goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-07-22
EGUBAKOITZA
474. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM



## Gerra gogoratu dute Oñatin

'Gerrako garrak Oñatin' delako dokumentala grabatu berri dute, azaroan kaleratzeko | 31

Itziar Lamarain arrasatearra, Arabako Euskara, Kultura eta Kirol diputatu | 5



Irailaren 10ean hasiko du denboraldia Aloñak, kopan | 28



Kolonbiako folklorea ikusgai gaur, 20:30ean, Bergarako plazan | 33

# TXUKUNDU ETA GERO... ENTSEATU



Arrasaten, Musakolan dauden entsegu lokaletako gazteek ondo aprobetxatzen dihardute opor sasoia. Martxoan lapurreta egon zen lokalotan eta ordutik ez dituzte erabili. Egunotan segurtasun neurriak eta lokalaren itxura hobetzeko lanean ibili dira eta datorren astean berriro bertan entseatzen hasteko asmoa dute. | 12

**Lexuri Doiage eta Oihan Vitoria entsegu lokaleko paretak atontzen.**

MONIKA BELASTEGI

# Turismo eskaintza are zabalagoa egongo da udan

Debagoieneko Mankomunitateak urte osoan turismoa egiteko eskaintza zabala badu ere, udan handitu egiten da eskaintza hori, bertoko zein kanpoko bisitariei zerbitzu egokia eskaintzeko asmoz. Turismo aktiboa, kulturala, gastronomikoa eta naturala dira eskaintza horren oinarriak. | 4



Bisita gidatua Lezetxikin. | GOIENA

## SINADURAK


DIEGO MARTIARTU | 6

6 | MIRARI ALTUBE



IÑAKI KORTAZAR | 24

25 | ALAITZ JAUREGI



MIKEL IRIZAR | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

## IRAILAREN 2RA ARTE, IRAKURLE!

Astelehenean kaleratuko dugun zenbakiaren ondoren, oporrak hartuko ditugu abuztuaren 25era arte. Hurrengo zenbakia irailaren 2an argitaratuko dugu. Ondo ibili!

## Santiago egunean artisau azoka egingo dute Arantzazun

Batik bat, belarrez egindako lanak ikusi ahal izango dira | 5



## "Industria bultzatzen laguntzeko politikak egitea eskatuko nieke agintariei"

**Migel Lazpiur**
Confebaskeko presidente ohia | 8

## Karrotxo bako erosketa, enpresaritza ideia berritzaileena

'Ekiten' sariak banatu ditu Mondragon Unibertsitateak | 4

# Mugikorrak dira telefonoa, erabiltzaileak... Baina tarifak ez

- Hego Euskal Herrian oso garestia da mugikorra
- Gehienek telefono modernoa nahi dute lehenbizi
- Tarifei ez diete hainbeste erreparatzen



Poltsikoko telefonoak gure bizitzako zati bihurtu dira; inguratuta gaude. | LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Erakunde publikoek beste pauso bat eman dute poltsikoko telefoniaren sektorea erregulatzeko: joan den astean jakinarazi zuen Espainiako Telekomunikazioen Merkatu Batzordeak 2012ko ekainetik aurrera telefono operadorez aldatzea lanegun baten buruan egin beharko dela; hau da, telefono operadore batetik bestera aldatu ahal izango da norbera, zenbakiari eutsiz. Orain, hainbat egun hartzen ditu tramite horrek. Bitartean, bezeroa galdu behar duen operadoreak eskaintzekin *bonbardatzen* du hura, geratzeko tentatu guran. Horrela, bezeroak negoziatzeko parada dauka.

Negoziatzeko eta norbere operadorearen aldetik baldintza hobeak lortzeko aukera asko murriztuko denez, batzuek diote arau berriarekin galtzen irteten dela kontsumitzailea. Movistar eta Vodafone ere epe berriaren aurka agertu dira.

Baina, oro har, albiste ontzat hartu da erabiltzaileen aldetik, ustez enpresek euren zerbitzu eskaintza eta bezeroari arreta hobetu egin beharko dutela urte osorako, bezeroak galdu ditzaketelako. Iaz, Hego Euskal Herrian eta Espainian, 4,8 milioi operadore aldaketa izan ziren.

Debagoieneko telefonia komertzioendako, eguneroko kontua da hori. Eurendako, gaur egun dagoen astebete inguruko epea egokia da, izan ere, beste operadore batetik datorren bezeroak eskatu duen telefonoa ekartzeko tartea ematen die.

Horrek beste aldea ere badu: "Aurrekontua prestatzen diogu gure tarifekin, tramiteak egiten dizkiogu eta telefono berria erreserbatuta izaten diogu dendan, bost egunean. Gero, askok atzera egiten dute, bere operadorearen kontra-eskaintza onartzen dutelako", esaten du Orange-eko komertzio bateko Jaione Blazquez arduradunak. Horregatik, "azkenean psikologia garatzen dugu, eta igartzen dugu zein datorren benetan operadorez aldatzera eta zein kontra-eskaintzaren bila. Azken horiei eskatzen diegu tramiteak Internetez egin ditzaten", gaineratzen du.

## Smartphone bila

Blazquezen esanetan, hiru bezero multzo daude: "Batzuek, gazteenek, gehienetan, smartphone-ak eskatzen dituzte; pertsona nagusiek, zenbaki handidunak, tapadunak eta erabilerrazak; eta aurreztu nahi dutenek tarifari begiratzen diote batik bat".

Bergarako Movistar Irimo dendako arduradunek dioskutenez, lehenengo multzokoak asko dira: "Gehienbat, jendeak mugikor modernoak nahi izaten ditu. Tarifei gutxiago erreparatzen dietela esango nuke". Bestalde, portabilitatearen fenomenoa "orain gutxiago" igartzen dutela esan digute.

Europako Batasunaren txosten batek esaten du Hego Euskal Herria eta Espainia direla Europan mugikorra Internetera konektatzeko gehien erabiltzen den herrialdeetako bat, baina Irimoko arduradunek uste dute "hainbeste" ez dela Internetera sarrera bilatzen: "Baina hori ere etorriko da, gero eta gehiago".

Portabilitatea hobekuntzak lortzeko erabiltzen du jende askok. Andoni Garai arrasatearrak, adibidez, bere lehenengo smartphonea, marka ezagun batena, horrela lortu zuen: "Operadore berriak telefono moderno bat, baina ez hain ona eskaintzen zidan. Segituan, nire operadoreak kontra-eskaintza bat egiteko deitu zidan, eta lortu nuen nahi nuen telefonoa eta, bide batez, tarifa hobea".

Dena dela, baldintzak ez dira berberak norbanakoendako eta enpresendako. Autonomoek baldintza bereziki onak izaten dituzte, Arrasateko Josu Herrartek esaten digun moduan: "Autonomo gisa nenbilenean, hilean 40 dei kobratzen zizkidaten: hilean 18 euro gehi BEZa kobratzen zidaten. Nik dakidala, horrelako tarifak ez daude norbanakoendako". Berak esaten digunez, "operadorez aldatzea erabaki nuenean, segituan kontra-eskaintzak etorri zitzaizkidan, eta oraindik gaur egun ere, tarteka, deiak jasotzen ditut operadoreengandik".

## Erdi-monopolioa

Badirudi erabileragatik ordaindu beharrekoa ez dela lehentasuna, eta portabilitatea telefono berriagoak ohi baino prezio hobean lortzeko erabiltzen dutela askok; eta hori, kontuan hartuta Hego Euskal Herrian eta Espainian ditugula Europako tarifa garestienak. Adituek azpimarratzen dutenez, poltsikoko telefonia merkatuaren ezaugarriak, historikoki, konpetentzia txikia eta tarifa handiak dira Hego Euskal Herrian eta Espainian.

Egoerak hobera egin du 2006-ko bukaeran operadore birtualak –sare propiorik ez, eta sarea badaukaten lau operadoreetako baten sarea errentan hartzen dutenak– merkatura sartu zirenetik, horrek behartu baititu betiko operadoreak lehia baten sartzera. Movistar, Vodafone eta Orange ziren ordura arteko operadoreak; gero, Yoigo sartu zen, hori ere bere sarearekin. Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasuneko Jose Manuel Urkidiren esanetan, alde ona baduten arren, txarra ere badute: "Operadore horiek birtualak dira, eta jende askok, batik bat adinekoek, gurago dute bulego batera joan eta aurrez aurre duten norbaitekin berba egin". Izan ere, operadore birtualekiko harremana Internet edo telefono bidez da.

### DATUAK

**111**
MUGIKOR ZENBAKI

Hego Euskal Herrian, 100 biztanleko 111,5 mugikor linea dago. Hemen eta Espainian, 51,4 milioi linea dago, 46 milioi biztanleko.

**15**
ZENTIMO

Operadore gehienek 0,15 euro kobratzen dute komunikazioa ezartzea (dei-establezimendua). Sei urtean, 0,03 garestitu da.

**%60**
GARESTIAGO

Hego Euskal Herrian, telefono-deia 16 zentimo ordaintzen dugu, batez beste. Europako batez bestea 10 zentimo da.

**35**
ZENTIMO MINUTUKO

Roaming bidezko (gurea ez den operadore batetik, atzerrian) deien tarifa maximoa 0,35 euro da, legez.

### Mugan bizi izatea garestia izan daiteke

*Roaming*, herrialde bateko operadorearen linea beste herrialde baten erabiltzea, hitz beldurgarria da poltsikoko telefonoaren eta bidaien zale askorendako. Europako Batasunean deiengatik kobratu beharrekoa goitik mugatuta badago ere, gero eta gehiago erabiltzen da mugikorra datuak jaisteko, Interneten nabigatzeko... eta hori oraindik ez dago erregulatuta. *Tarifatzar* horien arrazoia da mugikor bat beste batekin konektatzeko erabiltzen den protokoloa. Dei egiterakoan, norberarena ez den operadore baten sarera konektatzen da erabiltzailea, eta ezartzen zituen tarifak, erregulazioaren aurretik, operadore horrek bere esparrua baino handiagoa estaltzeko egindako azpiegitura inbertsioaren arabera kalkulatzen ziren.

Hori ondotxo dakite mugan bizi direnak edo Irunen, Hondarribian, Miarritzen, Hendaian... asko ibiltzen direnak; esparruak garbi mugatuta ez daudenez, norbere mugikorra operadore batera edo bestera engantxatu daiteke, norbera konturatu barik... faktura jaso arte. Hori saihesteko, badago bi telefono erabiltzen dituenik ere.



Operadore birtual horietako bat Eroski Movil da. 2007tik merkatuan badago ere, joan den astean ireki zuen *on-line* denda (*www.compraonline.grupoeroski.com*), eta han eros daiteke nahi den produktua, edo norbere telefono zenbakia Eroski Movilera aldatu.

**Hiru enpresa handi**

Merkatuaren gehiengoa hiru operadore handienen artean banatzen dute: linea gehienak (%41,46) Movistarrenak dira; bigarrena Vodafone da (%29,07), eta hirugarrena, Orange (%20,22). Distantzia handira daude Yoigo (lineen %4,33), eta operadore birtualak (%4,92). Edozein modutan, 2008an gehien hazi zirenak Yoigo (7.600 lineatik 15.243ra), eta operadore birtualak (9.629 lineatik 15.515era) izan ziren.

Lehiatzaile gehiago dauden arren, operatzaile handienen artean benetako lehiarik dagoen zalantzan jartzen du Jose Manuel Urkidik: "Tarifak txikitu egin dira, baina oraindik ere beste herrialde batzuetan baino garestiagoak dira. Ez dakigu lehia dagoen edo behealdetik adostu egiten dituzten tarifak. Operadoreek elkarren esparruak zaintzen dituzte".

**Dei-establezimendua, garesti**

2005etik 2010era, batez beste %38,5 txikitu da telefonia mugikor zerbitzuaren prezioa. Baina hor ere, *tranpa* dago: zerbitzuaren prezio totala merkatu da –alta eta abonu kuotak izoztu egin dira, adibidez–, baina zerbitzu jakin batzuk garestitu egin dira. Hala, komunikazioa ezartzeagatik (dei-establezimendua) batez besteko prezioa 0,12 eurotik 0,15 eurora joan da azken sei urteotan. Horrela, 2007an tarifak borobiltzeko debekuarengatik galdu dutena konpentsatzen dute telefonia enpresek. Ez da harritzekoa Yoigoko arduradun Johan Andsjok esatea hemengo tarifak "%30 edo %40 merkeago balira, Europako batez bestekotik gertuago egongo lirateke".

Gaur egun, batez beste, Hego Euskal Herrian 16 zentimo ordaintzen dugu telefono mugikorrez hitz egiten dugun minutu bakoitza, eta Europan, 10 ordaintzen dute batez besteko.

**Atzerrian, kontuz**

Eta oraingo udan Iparraldera bidaiatzen badugu, edo Europako beste edozein tokira, nahi ez dugun ezustekoa izan dezakegu. Izan ere, telefono deia egiteagatik, jasotzeagatik, hitz egiten dugun minutuko... dena garesti kobratzen da. Europako Batasunak hainbat arau egin ditu tarifatzarrak txikitzeko: hala, Europako Batasuneko norbere herrialdetik beste baten erabiliz gero norbere mugikorra, hitz egiten dugun minutuko ezin digute 0,35 euro baino gehiago kobratu, ez eta 0,11 euro baino gehiago ere, atzerrian gaudela deitzen badigute. Era berean, SMSa jasotzeagatik ez kobratzea agindu zuen Europako Batasunak.

Are garestiagoa da erabilera atzerrian Internet erabiltzen badugu telefonotik. Hala, 3 megako pisua duen irudi bat jaisteagatik, zenbait operadorek minutuko 2,6 euro kobratuko digute. Operadore batzuek deskargatutako mega bakoitzeko 12 euro ere kobratzen dute. Gainera, Europako Batasunak hartu zuen neurriak, maximo batzuk jartzeak, ez zuen eraginik izan, operadoreek oso marjina handiak dituztelako. Orain, urtetik urtera gero eta prezio maximo txikiagoak finkatu nahi ditu. Helburua da 2015erako herrialde barruko eta herrialde arteko tarifak berberak izatea.

Mugikorrendako aplikazioak sortzen dituen Batura Mobile Solutions Debagoieneko enpresako Gotzon Arzelusek dioenez, "tarifa garesti horiek freno bat dira industria posible batendako. Informazioaren eta komunikazioaren jendartean bizi izanda, hainbeste oztopo izatea kontraesana da".



L.K.

**JOSE MANUEL URKIDI**
GIPUZKOAKO KONTSUMITZAILEEN BATASUNEKO KIDEA

## "Arazoak saihesteko, informazioa da gakoa"

Kontsumitzaile-elkarteko kide eta abokatua Goiena telebistan elkarrizketatu genuen.

**Ze iruditzen zaizue portabilitatea egun baten egin ahal izatea?**

Albiste ona da. Kontsumitzaileari ahalik eta aukera gehien, ahalik eta tarifa txikienetan ekartzen dizkion guztia ondo hartzen dugu.

**Telefoniaren barruan, zerk eragiten du kexa edo kontsulta gehien?**

Telefonia da gure "gai izarra". Eta batik bat, fakturazio arazoengatik dator jendea: kontratatu ez duen zerbait fakturatzen diotenean. Adibidez, batzuetan, oso telefono moderno bat erosi du, baina informazio jakin bat ez zaio eman bezeroari, eta tarifa bat ordaintzera behartuta dago, telefono horrek Internetera sarrera duelako.

**Kontsumitzaileak babesgabe sentitzen dira...**

Informazio falta izaten da. Askotan, kontratuak ez ditugu irakurtzen; oso luzeak eta teknikoak izaten dira. Arazoak galarazteko, gakoa informazioa da. Zerbait eskaintzeko deitzen digutenean, kontratua beti idatziz bidal diezaguten eskatzea komeni da. Orientazioa behar badu, kontsumitzaile bulegootara etor daiteke edozein.

## Zure telefonoa biziberritu!

**BLUETOOTH** Telefono gehienek dute uhin bidez eta doan edukiak konpartitzeko teknologia hori; bakarrik aktibatu egin behar da. Badago ligatzeko erabiltzen duenik ere: 100 metroren bueltan konektatuta eta Bluetooth-arendako ikusgai dagoen edozeini bisita-txartela, kantak edo argazkiak bidaltzeko aukera dago.

**WHATSAPP** Internetera konexioa izanez gero, aplikazio hori jaits dezake norberak, eta mezuak doan bidali zerbitzu eta aplikazio berberak dituen beste bati.

**SHAZAM** Aplikazio bitxi horrek tabernetan-eta ipintzen dituzten abestiak zeintzuk diren balio du. Aplikazioak abestia *harrapatu* eta titulua esaten digu.

**AGENDA** Telefono guztiek dute agenda. Aukeratu dezakegu lan, bilera, urtebetetze... ahaztu nahi ez dugun horretaz gogoraraztea alarma jakin bat ipinita, eta, hainbat ohar baditugu, bakoitzari alarma bat ipin diezaiokegu.

Bestalde, egunero errepikatzen den ohar bat ere programatu dezakegu.

**TALDEAK** Agendako kontaktuak taldeka sailkatu ditzakegu: adibidez, etxekoak, lanekoak, lagunak... eta bakoitzari dei-tonu bat ipini, telefonoa entzuterakoan jakiteko zeinek deitzen digun. Ajuste horiek gure gidatik egin ditzakegu.

**AURREZTU** Gastu txikiagoa egiteko, esan nahi dugunaren arabera, deia egin beharrean SMSa bidal dezakegu. Eta gogoratu behar da atzerrian gaudenean gure herrialdetik SMSa jasotzea doan dela.



**BATERIA** Bateriaz txarto baldin bagabiltza, argiak pizten dituzten funtzioak eta Bluetooth zerbitzua desaktibatzea komeni da. Bestalde, argazkiak ateratzeak, kamera gisa erabiltzeak, irratia edo musika entzuteak...horrek guztiak energia askoz gehiago behar izaten du deiak edo SMSak baino.



**KARGATZEA** Telefono berria lehen aldiz kargatzerakoan, luzaroan utzi behar zaio kargatzen (adibidez, gau osoan), horrela bateriak ahalmen handiagoa izan dezan. Aldiz, aurrerantzean, bateria gastatzen denean bakarrik, eta telefonoak beteta dagoela abisatu arte bakarrik komeni da kargatzea.

**ARROZA** Telefonoa busti egin bazaigu, edo momentu baten uretara jausi bazaigu, arrozetan sartu dezakegu, arrozak ura xurga dezan. (Trikimailu horrek, jakina, muga batzuekin bakarrik funtzionatzen du).

# Ingurua ezagutzeko eskaintza zabala, berton

▶ Mankomunitateak urte osoko eskaintzari eusten dio uda sasoian ere

▶ Turismo aktiboa, kulturala, gastronomikoa eta naturala dira nagusi

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Urte osoan turismoa egiteko eskaintza zabala du Debagoieneko Mankomunitateak. Bertoko mendiak bisitatzeko txangoak antolatzeaz gain, abentura ekintzak eta museoak ere eskaintzaren barruan sartzen dira. Orain, uda sasoian, irteeren maiztasuna handitu egiten da.

Bertoko aberastasuna erakutsi eta zabaltze aldera, Mankomunitateak urte osoko eskaintzari eutsi eta irteeretan parte hartzeko aukera gehitzen du, txango gehiago antolatuta.

**Denetariko aukerak**

Mendia eta horren inguruko txangoak nagusi badira ere, ibarreko herrietako museoak eta historia ezagutzeko aukera ere eskaintzen da txango ezberdinen bidez.

## Turismo aktiboan dauden eskaintzak

Bisita lasaiak egiteko aukeraz gain, abenturazko txangoak egiteko aukera ere badago. Mendia abiapuntutzat hartuz, hiru aukera ezberdin daude.

**ESPELEOABENTURA ARRIKRUTZEKO KOBETAN** Arrikrutz (Oñati) barnetik ezagutzeko aukera eskaintzen duen abentura ekintza. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da (943-08 20 00). Irteerak bihar, abuztuaren 6an eta 20an eta irailaren 17an egingo dira.

**PAINTBALLA** Arrasaten dago eta aurretik deitu behar da (696 37 93 66). Erreserba e-postaz ere egin daiteke: *arrasatepaintball@gmail.com*.

**SEGWAYA** Urkulu urtegiraino segwayetan ibilbideak egiteko aukera ere badago. Azken irteerak bihar eta etzi egingo dira. Eskoriatzako Ibarraundi Museotik irtenda, 90 minutuko iraupena duen ibilbidea da. Hasieran ikastaro bat ematen da segwaya erabiltzen ikasteko eta ondoren ibilbidea egiten da, urtegiraino. Prezioa 45 euro da eta gutxienez hiru pertsonako eta gehienez seiko taldeak osatu behar dira (943-79 67 20).

## Monumentuak oinarritzat hartuz

Bergaran, Elgetan, Eskoriatzan eta Oñatin dauden monumentuak kontuan hartuz, historiari errepasoa emateko bisita ezberdinak eskaintzen dira.

**BERGARA** *Andres de Madariaga eta bere mundua* bisita. Hilaren 29an, 17:00etan eta 24an eta 31n, 11:30ean. Abuztuko zapatu guztietan, 11:30ean.

**ELGETA** *Gerra Zibila Euskal Herrian*. Ibilbide Tematikoa. Uztailaren 31n, abuztuaren 7an eta 28an, 10:00etan.

**ESKORIATZA** Ibarraundi museoa, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara.

**OÑATI** Aukera bi daude: Arantzazuko Santutegira bisita eta Sancti Spriritus unibertsitatea eta San Migel parrokia. Santutegia egunero bisitatu ahal da ondoko orduetan: 10:30, 11:30, 12:30, 16:00 eta 17:00. Unibertsitatea eta parrokia, aldiz, astelehenetik egubakoitzera 12:30etik 17:00etara bisitatu ahalko dira. Asteburuetan 12:30ean. Aukera ezberdinak ere badaude: *Oteiza eta Arantzazu* edo *Arantzazu artistikoa*.



Arantzazuko Santutegia. | GOIENA

## Naturaz gozatzeko aukerak

Bertoko paisaiak aprobetxatuz, mendi irteerak egin eta mendiko bestelako altxorrak ezagutzeko aukera egongo da. Alor horretan lau aukera ezberdin eskaintzen dira .

**MENDI-IBILIEN SAREA** Bertoko mendietara irteerak egiteko aukera. Horretarako, ondoko telefonora deitu behar da: 943-79 64 63.

**ARANTZAZU PARKETXEA** Santutegia, Interpretazio Gunea, parke naturala eta Gandiaga II Topagunea egun baten ezagutzeko aukera eskaintzen du txangoak (943-78 28 94).

**AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA** Bi ibilbide egokitu daude: Gomiztegi-Arantzazu (Oñati) edo Urkulu urtegikoa (Aretxabaleta). Oñatiko ibilbidean abiapuntua Arantzazuko Santutegia izango da (Santo Kristo ermita) eta 1,2 kilometroko luzera du ibilbideak. Aretxabaletako ibilbidea, aldiz, Aozaratza elizatetik abiatuko da eta zirkuituak 805 metroko luzera du.

**OÑATI-ARRIKRUTZ KOBAK** Astelehenetan izan ezik, gainerako egunetan egingo dira irteerak: 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Parte hartzeko aurretik deitu behar da: 943-08 20 00.



Bisitariak kobak ikusten. | GOIENA

## Gastronomia alorreko bisitak

Jardunaldi gastronomikoen barruan produktuen ekoizpen prozesua gertutik ezagutzeko bisita gidatuak sartzen dira. Parte hartzeko aurretik deitu behar da (943-71 89 11).

**ARTZAINAREN IBILBIDEAK**

- ▶ Aukera bi daude: Gomiztegi baserrira (Oñati) bisita egin, artzaintzaren historia ezagutu eta esnekien dastaketa egin edo baserria bisitatu, dastaketa egin eta artzain-txakurren erakustaldia ikusi.
- ▶ Bihar hasi eta hilaren 31ra arte egingo dira bisitak, 11:00etan.
- ▶ Prezioak: 10 eta 7 euro.

**ITURRIKO GATZA**

- ▶ Irteeran gatz museora eta Jakion enpresara bisitak sartzen dira. Lehendabizi, Jakion Debagoiena eskualdeko barazki eta fruta kontserbagintza enpresa bisitatuko da; eta gero, gatz museoa.
- ▶ Irteerak bihar eta hilaren 30ean egingo dira, 11:00etan.
- ▶ Prezioa: 4 euro.

# 'Ekiten' sariak banatu ditu Mondragon Unibertsitateak

Aurten 56 taldek eta 180 ikaslek parte hartu dute ekintzailetasuna sustatzeko urteroko sariketan



Proiektu guztien sortzaileak, atzo, saria eman dieten ordezkariekin. | A. ALKORTA

A. ALKORTA | ARRASATE

Erosketak orgarik gabe egiteko proiektuak (*Erosotasuna erosketetan*), baserriko eta sasoiko produktuak *on line* saldu eta etxera eramateko proiektuak (*BaserriTIK*) eta bizikletak garbitzen dituen txanpon bidezko makinaren egitasmoak (*Bike washer*) jaso dute aurten Mondragon Unibertsitateak urtero banatzen dituen *Ekiten* sariak.

Ekintzailetasuna bultzatu eta enpresa berrien sorrera sustatzeko asmoz egiten da *Ekiten* sariketa. Aurten 56 taldek eta 180 pertsonak parte hartu dute lehiaketan eta horietatik zazpi talde izan dira sarituak.

Sariketa hiru kategoriatan banatuta egiten da: Enpresa Ideia Berrien Lehiaketa, Landa-Gunea Garatzeko Ideia eta Proiektuen Lehiaketa eta Gazteria, Aisialdia eta Kirol arloko Ideien Lehiaketa. Lehenengo saria jaso duten hiru proiektuek mila euroko saria eskuratu dute; bigarren eta hirugarren geratu direnek, aldiz, 500 euro eskuratu dituzte.

"Epaimahaiak ez du erraz izan irabazleak aukeratzerakoan", adierazi dute unibertsitateko arduradunek.

Enpresa Ideia Berrien Lehiaketan, sari nagusia *Erosotasuna erosketetan* proiektuak eskuratu du. Kategoria berean, bigarren saria autoak herri eta hirietan aparkatzen laguntzen duen aplikazio mugikor baten oinarritutako proiektuak eraman du. Hirugarren saria *Disainnitek* diseinu egitasmoak jaso du.

**Beste kategoriak**

Landa Gunearen Garapenerako Ideien eta Proiektuen Lehiaketan, irabazle nagusia *BaserriTIK* proiektua izan da; bigarren eta hirugarren postuak hutsik geratu dira.

Azkenik, Gazteria, Aisialdia eta Kirol arloko Ideien Lehiaketan *Bike Washer* izan da irabazle nagusia. Bigarren saria *ActinMap* ideiak jaso du. Azken proiektu hori ekimenak (jaiak, manifestazioa, kontzertuak,...) geologikoki lokalizatzean datza. Hirugarren saria sare sozialak ulertzeko modua aldatzen duen *Whoru-Geo-Social Live Network* proiektuak eraman du.

# Astelehenean, belarrekin egindako eskulanak izango dira Arantzazun

Oñatiko Artaso taldeak azoka eta erakusketa antolatu ditu, laugarrenez, Santiago egunerako

MIRIAN BITERI | OÑATI

Azken urtetako ohiturari jarraituz, Oñatiko Artaso taldeak eskulangintza azoka antolatu du Santiago egunerako. Astelehen goizean izango da hori, Arantzazuko basilika aurrean. Aurtengo edizioan, askotariko belarrekin egin daitezkeen eskulanak erakutsiko dituzte artisauek, hala nola apaingarriak eta ukenduak. Artasotik Arantzazuko erloju-dorrearen aurrealdeko plazatxora joateko gonbita egin dute.

Hain zuzen, laugarrenez egingo du Artasok esandako azoka. Lehenengoa 2008ko uztailaren 27an egin zuten, Gandiaga topagunean egindako aurkezpen ekitaldian. Eskulangintza-azoka, birziklatze tailerra eta eskulanen erakusketa antolatu zituzten orduan. Handik urtebetera, artzaintzaren gaiarekin girotu eta haren inguruko hainbat lanen erakustaldiak prestatu zituzten. Besteak beste, artilearen inguruko prozesu guztiak, artilearekin eginiko eskulanak, larrugintza, abarkak eta erakusketa etnografikoa ikusteko aukera izan zuten Santiago egunean Arantzazura joan zirenek.

Iaz, ostera, naturarekin zerikusia zuten gaiekin girotu zuten azoka. Gaiarekin lotutako liburuak erakusteaz gain, ezti eta gaztagintzako tailerrak, taila, saskigintza, xaboi, zeramika eta kaikugileak izan ziren, trikitilariek alaitutako giroan.

Artaso elkartearen helburua artea sustatzea da. 2007an sortu zen, Arantzazun. Asmoa da artelan ezberdinak jendeari hurbiltzeko tailer, eskulangintza-azoka, erakusketa eta bestelako ekintzak antolatzea.



Naturarekin lotutako produktuak erosteko aukera egon zen iazko azokan. | GOIENA

# Itziar Lamarain arrasatearra, Arabako Euskara, Kultura eta Kiroleko diputatua

Lore Martinez Gipuzkoako Informazio Gizarterako Sistemen zuzendaria da

M.B. | ARRASATE

Arabako Euskara, Kultura eta Kiroleko diputatu izendatu zuten atzo, eguena, goizean Itziar Lamarain PPko zinegotzi arrasatearra. Ardura hori edukitzea "ohorea" dela eta harro dagoela dio. Honakoa aipatu du: "Euskararen defendatzaile sutsua naiz eta babestu eta bultzatuko dut, baina, era berean, elebitasunaren aldekoa naiz; hemen bi hizkuntza ditugu eta bien aldekoa naiz".

Era berean, euskal kultura babestu eta bultzatzeko lan egingo duela dio: "Euskal kultura plurala da, ez da ikuspegi bakarrekoa, eta denak babestuko ditut. Oso liberala naiz alde horretatik, batere dogmenzalea". Aurreiritzi barik doala ere esan du, "folio zuriarekin, idazten hasteko gogoz".

Lamarainek ez du argi oraindik Arrasateko Udalean zinegotzi izaten jarraitu ahal izango duen. Dio



Itziar Lamarain. | GOIENA



Lore Martinez Axpe. | GOIENA

"harro eta gustura" dagoela Udalean egiten duen lanarekin eta nahiko lukeela jarraitu, baina "zail" ikusten du bi lanak bateratzea: "Uda pasatzen utziko dut eta ondoren erabakiko dut".

**Bailaratik, zuzendari bakarra**

Bestalde, asteon jakin dugu Lore Martinez Axpe aretxabaletarra izango dela Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazio Gizarterako Sistemen zuzendari nagusia. Martitzenean zehaztu zuen Diputatuen Kontseiluak agintaldi honetako kargu politikoen egitura; 12 zuzendari nagusien artean debagoiendar bakarra dago.

Lore martinez EAko zinegotzia ere bada Aretxabaletan. Ingeniari informatikoa da lanbidez. Goienako kolaboratzaile ohikoa da, Goiena telebistako *Tertulia* saioan eta baita papereko zutabegile gisa ere.



Juan Antonio Mañarikua *Antxon* elgetarra. | MIRIAN BITERI

Juan Antonio Mañarikua 'Antxon' | Zentzuko arduraduna

# "Gaixoen ilusioa eta konfiantza sortzen ahalegintzen naiz"

Etxez etxeko eta pertsonalizatutako laguntza psikosoziala eskaintzen du Zentzu enpresak

M.B. | ARRASATE

Etxez etxeko eta pertsonalizatutako laguntza psikosozialaren gaineko zerbitzua eskaintzen du Zentzu enpresak. Horko arduradun Juan Antonio Mañarikua *Antxon* gizarte-hezitzailearekin egon gara, zerbitzu berri horren nondik norakoak ezagutzeko.

**Zertan datza eskaintzen duzun zerbitzua?**

Berritzailea da. Laguntza eskaintzen dut etxean; baina laguntza hori ez dago zaintzara bideratuta. Adineko pertsonei eta minusbaliatuei zuzenduta dago, batetik. Gaixoen ilusioa eta konfiantza sortzen ahalegintzen naiz, ahalmen pertsonalak eta sozialak mantentzeko eta hobetzeko terapia prebentiboen bidez.

Horrez gain, alzheimer, parkinson edo esklerosi anizkoitza bezalako endekapenezko gaixotasunak dituztenekin terapiak egiten ditut, eta minbizia dutenekin.

**Nola egiten duzu lan?**

Interesatuta dagoen jendearekin harremanetan jartzen naiz; lehenik eta behin, gaixoa osotasunean aztertzen dut; besteak beste, ahalmena eta bizi izateko gogoa noraino galdu duen eta gaixoaren testuingurua aztertzen dut. Horretatik guzti horretatik etekina aterako dut, eta programa pertsonalizatua sortu.

Askotariko jarduerak jarriko ditut martxan horrekin; alde batetik, oinarrizkoak daude, hala nola irakurmena eta lengoaia jorratzeko ariketak. Bestetik, arte terapia egiten dut eurekin; besteak beste, margotzea edo buztinarekin ibiltzean datza hori. Laburbilduz, oroimena, orientazio orokorra, mintzaira, sormena eta psikomotrizitatea bizkortzeko bilatzen dituzten askotariko ekintza estimulagarriak egiten ditut gaixoekin. Motibazioa bilatzen dut, horrekin aurrerapauso handia ematen da-eta.

**Formazioa behar da horretarako...**

Hala da. Gizarte-hezitzailea naiz, eta pertsona nagusien arloan espezializatuta dago. Ni ibilita nago Oñatiko San Martinen, Bergarako Mizpirualden eta baita Elgetako eguneko zentroan ere; proba egin dut eta emaitza ederrak jaso ditut.

**Nolakoak dira saioak?**

Normalean, ordubete edo ordu eta erdikoak dira; gaixoaren egoeraren araberakoa izaten da hori. Saio bakoitzak 35 euro balio du; horren barruan guztia dago sartuta, baita kilometrajea edo eskulanak egiteko materiala ere. Asmoa da saio horiek astero bitan egitea gaixo bakoitzarekin.

**Dagoeneko zerbitzua ematen hasi zara?**

Kontaktuak egiten nabil. Dagoeneko hainbat dei jaso ditut, eta hainbat udalekin ere egin dut berba, proiektua azaltzeko; tartean, Bergara eta Arrasatekoarekin. Debagoiena osora nago zabalik, baita Elorriora ere. Horretaz gainera, baserrietara joateko asmoa ere badut; hiri nahiz landa eremuan ematen dut zerbitzua. Azken horretan behar handia dagoela igarri dut.

**Interesatuek nora jo behar dute?**

Zerbitzuan interesa dutenek bi bide dituzte: 696 02 93 05 telefonora deituta edo *amanarikua@telefonica.net* helbidera idatzita.

**"Ordutebete edo ordu eta erdiko saioak eskaintzen ditut"**

## ZABALIK



**DIEGO MARTIARTU**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Tantari beha

Txorrota itxi eta urezko hariak hari izateari utzi dio. Etenkako isuria gelditu denean, ur tanta baten sorkuntzaren misterioa behatzeko gertatu naiz, eskuak harraskan bermatuta. Hara, hodi metalikoaren zulo-ertzera etorri da lotsaz bezala eta burua atera ez atera zalantzan geratu da. Azkenean, hodi ilunetik argitara irteteko grinari ezin eutsita, ertz borobilean poliki-poliki gizentzeari ekin dio oraindik izankizun den ur tantak, edo ttanttak (urari buruz ari garenez, bustiduraz hobe). Hasieran burutxo herabea zirudiena sabel hanpatuaren itxura hartuz joan da, puztu eta puztu...

> **"Indar bien arteko borroka izugarri latza begitandu zait"**

Esfera erdia izatera iritsi denean, zorro betea, airean zintzilik, beheraka indar egiteari lotu zaio; bien bitartean, badago beste indar bat ttantta gorantz, jatorrizko zulo beltzerantz, erakartzen diharduena.

Indar bien arteko borroka izugarri latza begitandu zait, nahiz eta ia ziur jakin beherako indarra gorakoari nagusituko zitzaiola.

Dena den, ez dago gauza lazgarriagorik –benetan diotsut– itogina erabat eteten eta finitzen duen azken tantaren burutxo atera berria hodiak atzera nola irensten duen ikustea baino.

Oraingo honetan ez da halakorik gertatu, zorionez.

Txorrotaren ertzari oratu beharrez indar husturik, gero eta sabeltzenago, azkenean bere izate esferiko osoan askatu, mundura agertu eta amildu egin da, orain bai, tanta lodia: plausta.

Harraskan lehertu ostean, aurreko tantek egindako errekastoarekin bat eginda desagertu da urak husteko bide beltzean.

"Zulo batetik irten eta beste zulo batean sartu bitartekoa", horrela definitu ohi zuen bizitza Ezkioko enterradore zenak.

Atzetik etorri den tantak ere ez dit ikuskizun makala eskaini.

Nekez, baina lortu du honek ere zuloen arteko bidea egitea. Seko harritu naiz ordea: tanta biok ez zeukaten elkarren batere antzik.

## USTEAK USTE

**MIRARI ALTUBE** | 'aretxabaleta@goiena.com'

# Portasoletik Andramaixetara

Hamar urteren ostean antolatu dituzte Portasolgo jaiak Aretxabaletan, eta jendetza elkartu da hiru eguneko jaiotan: "Andramaixen ordezko izango dira", zioten batzuek. Antolatzaileak –merkatari eta ostalariak– pozik, eta auzotarrak ere bai, jai giroa izan delako jai ofizialetako konturik iristen ez den kale eta bazterretan.

Abuztuan Andramaixak datoz; jai nagusiak, baina eztabaida handien sortzen dutenak: "Ez dago ezer; halako dirutza gastatzea ere lau katu egonda...". Eta jaien arrakastaren giltza herritarrok izango dugu, betiko legez; egitarauan dena delakoa egonda ere parte-hartzeak bakarrik sortuko duelako jai giroa.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Musikaren neutraltasunaz

**Garbine Ubeda Goikoetxea**
http://www.argia.com/anti-orena/

Neuromarketinak nigan duen efektua neurtzen ari nintzen; beharrezko zitzaidanaren eta desio nuenaren arteko arrazoizko oreka bilatzen, erostarazteko teknika berri hauek atzaparrak ondo luzatuta izaten dituzten tenplu horietariko batean (Urbil merkataritza zentroan). Ordu bata eta erdiak aldera heldu nintzen –bazkaltzeko garaian, nahitara–, jende motroiloak saiheste aldera. Eta hipermerkatuko ate detektatzaileak pasatu besterik ez nituen egin, lehen apalategiko produktuei azaleko begiratua besterik ez nien eman, oztoporik jasangaitzenaz ohartu nintzenean: Alejandro Sanz marruka eta lantuka ari zitzaidan bozgorailuetatik. Hori oilo-ipurdia.

[...]

Kutxa erregistratzailera heldu nintzenerako, sarritan konprobatutakoa, jakin banekiena, betikoa, baieztatu nuen berriro ere.

Erosketa egitearekin batera, Espainiako pop salduena entzutera behartuko ninduela Eroskik.

Erosketa ordaindu eta ihes egingo nukeen, nire baitarako marmar apur bat egin eta hurrengora arte korrika urrundu, baina ikur hura ikusi nuen bat-batean, ziurtagiri sonatua, hipermerkatuko informazio-txabolatxotik pasatzean: "Bai euskarari".

Kexatu egin nintzen dezibelio horietan sartu zidaten muskulubarneko dosiak agente patogenoak besterik ez zituelako.

Eta demanda egin nien, urteotan egin ditudan bisitetan –eta ehunka izan dira– sekula euskarazko abesti bakar bat ere entzun ez dudalako, Olentzero egunekoa salbuespen.

[...]

Ingurumenarekiko errespetuz jokatzen ari al dira batere biodegradagarriak ez diren abesti likatsu horiek (eta besterik ez) promozionatzean?

Ongi merezia al dute "Bai euskarari" ziurtagiria?

Tira, ba egun hartan gaiztotu egin nintzen derrepentean.

Barkatu.

Poltsak lurrean utzi, erakusmahaira hurbildu eta erreklamazio-orria eskatu nion etxeko uniformez jantzita zegoen andereari.

Intoxikazioaz mintzatu nintzen oharrean.

Kexatu egin nintzen dezibelio horietan sartu zidaten muskulubarneko dosiak agente patogenoak besterik ez zituelako. Eta demanda egin nien, urteotan egin ditudan bisitetan –eta ehunka izan dira– sekula euskarazko abesti bakar bat ere entzun ez dudalako, Olentzero egunekoa salbuespen.

Pare bat egunera, bezeroaren arretaz arduratzen den neska batek deitu zidan. Arrapataka aritu zitzaidan, urduri, azkarki. Lehen hitzetik arrazoia eman ostean, denen gustua asmatzea zaila dela eta, erosotasunez, zentro guztientzat sistema bat eta bera jartzea pentsatu zutela arrazoitu zidan. Eta dauden aukeren artean hauxe iruditu zitzaiela neutroena, esan nahi baita, gaztelerazko musika besterik eskaintzen ez duen hari musikal hau. Baina baietz, arrazoi nuela, eta esan beharreko tokian esango zuela...

Hilabetea joan da geroztik. Kexak kexa, arrazoiak arrazoi, Eroskiren akustika politikak beti bezain 'neutro' jarraitzen du.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

## Gazte 1 + ez!

**Mikel Etxeberria**
(Arrasateko Gazte Independentisten izenean)
Arrasate

2007tik aurrera, kolore guztietako poliziek 250 gazte baino gehiago atxilotu dituzte, euren militantzia politiko soilagatik, Euskal Herrian.

Batzuk sarekada zabal mediatikoetan hartu izan dituzte preso, beste batzuk banan-banan eta kamera barik jausi dira indar polizialen edo militarren esku. Euren aurka ez da frogarik egoten, ez eta ekintza jakin batzuekiko balizko loturarik.

Kasu gehien-gehienetan, Segi gazte erakunde abertzale eta ezkertiarreko kide izatea da leporatzen zaiena; politikoki antolatuta egotea, beraz.

Segi gazte independentisten antolakuntzarako erakunde politiko hutsa da, herririk herri gazteekin lankidetzan, askatasunerako, berdintasunerako eta independentziarako aukerak eta ekimenak sortzen diharduena.

Baina legedia antiterrorista ezartzen zaie atxilotutako balizko kideei, bost eguneko inkomunikazio aldia eta gutxieneko sei urteko espetxe zigor eskaera barne.

Tortura salaketak ugariak izan dira, baina ez dira ikertzen.

"Terrorismoaren aurkako borroka" delako antzerki higuingarri honen azkenaurreko atala, Oarsoaldeko 17 gazteren aurka Audientzia Nazionalean abiatu berri den epaiketatzarra da. Hauei ere Segiko kide izatea da leporatzen zaiena, 2008tik hona kontrolpean mantendu dituen polizia operazio baten ostetik. Horietatik hiruk uko egin zioten epaiketan agertzeari eta ertzainek (enegarren aldiz) atxilotu egin zituzten Oreretan astelehenean (uztailak 18).

Aski da! Garai zahar zein berrietan, onartezina da gazteria antolatuaren aurkako jazarpena, baina orain, Ezker Abertzale osoa alde bakarreko urratsak ematen ari den bitartean, are jasangaitzagoa da Espainiaren itsukeria eta gerra gosea.

Oraindik, 2011ko Europan, militantzia politikoa itzalpean daroaten milaka herritar soil ditugu geurean, beti polizia, epaile eta politikari ukiezinen mehatxupean.

Honen aurrean, matxinatzeko eta antolatuta erantzuteko dei egin nahi diegu gazte guztiei.

Adi egon mobilizazioei eta herrietako ekimenei!

## Buelta eman

**Oxel Erostarbe**
(Elgetako alkatea)
Elgeta

Argumentazioari buelta eman, eta desaktibatu alderdi popularrak bilatzen duen konfrontazio identitario absurdua. Zergatik uste duzue ari direla PP eta UPyD lehian? Badakitelako zenbait itsu-itsuan sartuko direla *identitometroarekin* neurtzen "Vuelta a Españak"-ko Bilboko eta Gasteizko etapak. 30 urte pasa Euskal Herritik igaro barik leloa errepikatuko duenik egongo da. Gezurra, jakina, edo kontzeptu murritza, Euskal Herriarena ere bai: Iruñea (1990, 1992, 1994), Tutera (1993), Leire (1980) eta 2001ean, behintzat, Tuteratik igaro zen.

Eta Frantziako Tourrak zer? Bada, Baionan helmuga 1986 eta 1987an, eta irteera 2003an. Biarritzera azken aldiz ailegatu zenean, 1978an, Lasak irabazi zuen. Eta Donostiara ailegatu zenean? 1992an, gogoratzen. Geroago Iruñera ailegatu zen. Kanbora 2006an ailegatu zen, eta uste dut merezi duela Le *Journal du Pays Basque*-n argitaraturikoa irakurtzea: *Batasunekoak, Tourrari buruz.* Azpimarragarria, benetan, komatxo arteko hau: "Batasuna a également fait référence à lengouement que suscite le vélo chez supporteurs basques "ce pourquoi le passage du Tour par ici est en soit une bonne chose. Il faut juste quil nous respecte en tant que peuple".

Bestetik, zenbatetan pasa da Tourra Euskal Herritik? Oker ez banago, deialdiak ere egin izan dira, hara joan eta 'gure' txirrindulariak animatzeko eta selekzio propioak aldarrikatzeko.

Beste kontu bat da, jakina, txirrindularitza-itzuliak eta lurraldetasuna beste barik lotzea, oraindino XX. mendean bageunde bezala. Horri buruz dihardugula, uste dut kontuan izan beharko litzatekeela Frantziako Tourraren azkeneko hamar hasieretatik bost Frantziatik kanpora egin dituela, eta erabat ohikoa dela atzerrira igarotzea ibilbidearen momenturen batean edo bestean.

Ondorioz: nik animatu egingo ditut txirrindulariak Euskal Herritik igarotzen direnean, eta uste dut mesede txikia egiten diogula geure buruari honelako ika-mikekin. Zer esango genuke Nafarroako Gobernuak Euskal Herriko Itzulia Nafarroatik ez igarotzeko eskatuko balu, txirrindularitza eta lurraldetasuna loturik hark ere? Uste dut egokiagoa dela, Tourra Donostiara ailegatu zenean egin zen bezalaxe, Vueltari gure izaera onartzea eskatzea, eta euskararen presentzia egokia izango dela ziurtatzen ahalegintzea. Eta, jakina, gura beste aldarrikapen egiteko. Baina hamar urte geroago Vuelta a España Euskal Herritik berriz ere igarotzea ez da desobedientziarako arrazoi.

PS: Debagoioena, Bizkaia? Edo Araba? "Vuelta" Gipuzkoatik igarotzen ez dela irakurri dut eta.

## ZUZENKETA

**Joan den asteleheneko *Goiena* paperean, Mairuaren Alardean Iñaki Arbulu omendu zutela idatzi genuen eta oroigarria eman ziotela haren emazteari.**

**Oroigarria jaso zuena, baina, haren arreba izan zen. GOIENAk barkamena eskatu nahi dio Arbuluren familiari egindako akatsagatik.**

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

ABUZTUAN ERE, INFORMAZIO GUZTIA

GOIENA.NET
Uneoro albisteak aktualizatuta
GOIENA TELEBISTA
Emisioa, etenik gabe. Albistegia egunero.




DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena"

**Migel Lazpiur** | Confebaskeko presidente ohia

# "Industria jarduera bultzatzen laguntzeko politikak egitea eskatuko nieke agintariei"

- Migel Lazpiurrek eguaztenean laga dio euskal enpresaburuen buru izateari
- "Industria ondo badoa, Euskadi ondo doa", dio Confebasken sei urte eman dituenak

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Eguaztenean utzi zion Confebaskeko buru izateari, karguan sei urte eman ostean. Migel Lazpiur (Bergara, 68 urte) gustura doa, bere enpresan, Bergarako Lazpiurren, buru-belarri murgiltzera.

**Sei urte eman dituzu euskal enpresaburuen presidente karguan. Zelan?**

Izan ditut une onak eta beste batzuk ez horren onak. 2005a ezkero egon naiz karguan eta lehen hiru urteek ez dute zerikusirik azkenekoekin. 2005etik 2008ra arte ekonomia ondo zihoan, euskal enpresak ondo zihoazen, eta gure lana askoz errazagoa izan zen. Izan ziren une gogorrak ere, biolentziarengatik eta terrorismoarengatik, baina enpresak, oro har, ondo zihoazen. Azken hiru urteak, ostera, ekonomia koiuntura zailagoan igaro ditut, nahiz eta, beste alde batetik, ETAren su-etena albiste ona izan den. Baina Inaxio Uriaren hilketa ere hor dago, une benetan gogorra.

**Enpresa asko ixten ikusi duzu...**

Bai, egia da. Hala ere, Espainiako enpresak edo ekonomia baino askoz egoera hobean gaude gu. Langabezia tasa, esaterako, %10 da hemen eta, ostera, %20 Espainian. Gure enpresak, oro har, egoera onean zeuden krisiaren aurretik, baina, krisia luzatzen doan heinean, eusteko ahalmena ere txikitzen doa; hori benetan kezkagarria da.

**Aurreikus zitekeen harrapatu gaituen mundu mailako finantza krisi izugarria?**

Horren tamainakoa izan zitekeenik, inolaz ere ez. Egia da, hala ere, arduratuta geundela Espainian higiezinen sektoreak, etxegintzak -eta, zeukan pisuarekin, higiezinen *boom*-arekin. Europa osoko etxebizitza guztien %60 Espainian egiten ziharduten. Hori zen benetan kezkagarria.

**Unerik gozoena edo onena?**

Confebask erreferentzia da administrazioen aurrean: Gasteizen, Madrilen eta Bruselan. Lan handia egin dugu erakundeen aurrean eta horrek eman digu ospe ona, errespetatuak gara euskal enpresaburuak. Horretaz harro nago.

**Zer ikasi duzue euskal enpresaburuek krisi honetatik?**

Krisiak beti erakusten digu zerbait. Krisiaren aurrean, hiru gauza egin ditugu euskal enpresaburuek: batetik, gerrikoa estutu eta gastuak murriztu; bigarrenez, saltzera atera kanpora. Euskaldunok beti izan gara saltzaile txarrak eta gaur egun ere hala da. Azkenik, geure enpresetako jendea, langileak, zaindu. Ekonomia jarduerak beherakada izan du, bai hemen eta baita Espainian ere. %30eko jaitsiera izan du, gutxi gorabehera. Datu horren aurrean, gure kasuan, langabezia tasa da %10 eta Espainian %20. Horrek esan nahi du euskal enpresok hobeto zaindu ditugula langileak.

**Confebasketik egin dituzuen aurreikuspenen arabera, aurten 5.000 lanpostu sortuko dira Euskadin...**

Bai, egin ditugun azterketetatik ondorio hori atera dugu. Izan ere, gure ekonomia 1,3 haziko da; Espainiakoa, erdia. Ez da asko, baina hurrengo urtean ere gora-ka joango dela aurreikusi dugu. Egia da, hala ere, langabezia tasa ez dela askorik jaitsiko. Lanpostuak sortuko dira, baina gazte asko sartzen doa lan merkatura eta horrek ere badauka eragina. Guk uste dugu urte amaierarako %9 izango dela langabezia tasa gurean. Horretarako, hala ere, Europak ondo egin beharko du lan eta euroaren, merkatuen eta Grezia bezalako herrialdeen krisia konponbidean jarri beharko du.

**Zein sektoretan sortuko dira lanpostuak?**

Industrian, duda barik. Hemen ez ditugu etxe asko egin eta eraikuntzak ez du pisu handirik gure ekonomian. Hala ere, eraikuntzari begira jarritako enpresa asko dauzkagu: aldamioak, sarrailak, etxetresnak edota altzariak egiten. Eta sektore hori larri dago. Turismoak ere gora egingo du eta sektore inportantea izango da.

**2012. urtea hobea izango dela ere esan duzue...**

Uste dugu baietz. Euskal ekonomiaren hazkundea 2,6ra hurbilduko dela aurreikusten dugu.

**Enpresen erabakitze organoetan eta jabetzan langileen parte hartzea sustatzea da joera. Zela ikusten duzu?**

Ondo ikusten dut. Mundua aldatuz doa, eta, gure enpresek aurrera egin nahi badute, aldatu eta egokitu egin beharko dute egoera berrira. Ezin gaitezke uneoro egon beharginen eta ugazaben arteko ika-mika eta konfrontazioekin. Beharginek enpresetan gehiago integratu behar dute. Informazio gehiago izan behar dute eta konpromiso handiagoa hartu behar dute.

**Zelan ikusten duzu hauteskundeetatik sortu den mapa?**

Joko politikoaren ondorio da, gauza normala. Oraingoan hauxe izan da emaitza; hurrengoan bestelakoa izango da…



Migel Lazpiur, Goiena telebistan. | ENEKO AZKARATE

> **"Guretako merkatu guztiak dira onak, eta Espainia ere bai"**

> **"2012an euskal ekonomiaren hazkundea 2,6ra hurbilduko da"**

> **"ELAri esaten diogu lagun dezatela herri hau aurrera ateratzen, ez delako gure lana bakarrik"**

**Eta Bilduk Gipuzkoako Diputazioa gobernatzea?**

Ez daukat batere kezkarik. Herritarrek horixe aukeratu dute. Nik bakarrik eskatzen diet agintariei ondo goberna dezatela eta denekin batera egin dezatela. Eta lan egin dezatela Euskadiko industria lagundu eta bultzatzeko. Izan ere, Barne Produktu Gordinaren %30 industria da Euskadin; eta beste %20 industriara begirako zerbitzuena. Guztira, %50. Espainian, %14 da eta Europako batez bestekoaren gainetik gaude. Industria ezinbestekoa da gurean. Industria ondo badoa, Euskadi ondo doa. Ondo ez badoa, arazoak ditugu. Lehiakortasuna eta industria jarduera bultzatzen laguntzeko politikak egitea eskatuko nieke agintariei.

**Lehendakaria zergak igotzearen alde agertu da...**

Zergak ere Euskal Herriko industria sustatzera bideratu behar dira, ez oztopatzera.

**Bakea eta normalizazio politikoa gertuago daudela dirudi. Lasaiago zaudete orain enpresaburuak?**

Bai, zalantza barik, hori igartzen dugu, laguntzen digu.

**Bakeak ze ekarriko die euskal enpresei?**

Lasaitasun handiagoz lan egiteko aukera…

**Zein da euskal enpresaburuen erronka nagusia?**

Lehiakortasuna eta saltzen jakitea. Euskal enpresek kalitatezko produktuak ekoizten dituzte; jende serioa gara. Errespetatuak gara. Baina mundu osoan saltzera ailegatu behar dugu, txikiak eta gutxi izan arren. Lana eta aberastasuna alde guztietatik ekarri behar dugu eta, kasu batzuetan, kanpora joan eta han sortu lantegiak. Han egin lan, hemen ere aberastasuna sortzeko.

**Zelan baloratzen duzu ELA euskal sindikatu nagusiak darabilen estrategia lan hitzarmen kolektiboen inguruan?**

ELAri esaten diogu lagun dezatela herri hau aurrera ateratzen, ez delako gure lana bakarrik, langileena ere badelako. Mundua aldatzen doa eta ezezkoan ezin daiteke egon uneoro.

**Espainia arazo da euskal ekonomiarendako?**

Ez nuke hori esango. Une honetan Espainia txarto dago eta, esan dudan moduan, %30 saldu izan dugu bertan. Guretako merkatu guztiak dira onak, eta Espainia ere bai. Saldu edo erosten dugun toki guztiak dira onak. Gure bezero guztiei zor diegu errespetu handia.

**Euskal enpresaburuen burua izateari utzi diozu; orain, zer?**

Badut lana. Lehenengo-lehenengo, etxeko enpresan, Lazpiurren. Hiru urte txar pasa eta gero, beste bultzada bat eman behar diogu. Eta, gero, neure zaletasunak ere baditut. Deseatzen nago nire lagun Migel Okinarekin batera pintatzera joateko.

**Bergarako Lazpiur zelan doa?**

Estutasunak pasa ditugu, baina langileen konpromisoarekin eta neurriak hartuz, eutsi egin diogu. Aurten hobeto gabiltza.

**Zelan daude Bergarako enpresak?**

Arduratzen naute, bereziki, handi batzuk: Candy, Arcelor Mittal… Denon artean egin beharko genuke zerbait.

**Bergarako Udalak herriaren etorkizunaz hausnartzeko plan estrategikoan parte hartu duzu...**

Bai; orain udal agintariei dagokie tiratzea, baina gu prest gaude laguntzeko, zelan ez, bergararrak gara!

# Jatetxe Gida



## Arantzazuko Santutegia

*Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI*
*943 78 13 13*
*www.hotelsantuariodearantzazu.com*

**Eskaintza**
- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegi txokoa.

**Egunero zabalik**



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

**Eskaintza**
- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

**Astelehenetan itxita**



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79
*www.soraluzeostatua.es*
*info@soraluzeostatua.es*

**Eskaintza**
- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Eguneko menuak.

**Domeka gauean itxita**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

## DUELA 10 URTE

2001-07-20

### Arantzazuren milurte erdia

Arantzazuko santutegiko frantziskotarrek ekitaldi ugari antolatu zituzten orain dela hamar urte, urteurren oso berezia betetzen baitzuten; bostgarren mendeurrena hain zuzen ere. 1468ko ekainaren 11n, San Bernabe egunean, artzain batek sasi artean Ama Birjinaren irudi bat aurkitu zuen, eta horregatik santutegia eraikitzea erabaki zuten. Alejandro VI.a Aita Santuak 1501eean eman zien baimena frantziskotarrei.



Arantzazuko santutegia. | GOIENA

2001-07-20

### EAJk EH gobernutik bota, Elgetan

EAJk gobernu batzordetik kanpo utzi zuen EH alderdia Elgetan, orain dela 10 urte. Beti batera egon arren EAJ bakarrik geratu zen gobernu batzordean. EHkoek Goienaren aldeko apustua egin ez izana leporatu zieten jelkideei, eta horrekin ez ziren ados EAJkoak. Horren harira gaineratu zuten eurak Goienaren alde egon direla beti, EAJren erabakiak lehen aldiz utzi zuen talde politiko bat gobernu batzordetik kanpo.

## DUELA 5 URTE

2006-07-21

### Alkateen mugimendua

Alkateen mugimenduak 30 urte bete zituen orain dela bost urte, 2006ko uztailaren 21ean, hain zuzen. Foruak galdu ziren mendeurren egunean egin zuten aldarrikapen ekitaldia Bergaran, 1976an. Orduan bizi izandakoa jasotzen zuen liburuaren aurkezpena egin zuten Bergarako udaletxean, 2006an.

## HERRITARRAK

BERGARA

**Pedro Rico** Gaur, uztailak 22, 56 urte betetzen ditu Pedro Ricok. Bergara KEko presidenteak Ogizunen egiten du lan. Oporretatik bueltan (Avilan, Gredosko mendilerroan izan da) lanera itzuli zen atzo. | EDU MENDIBIL

# "Gaztetxo nintzela hasi nintzen okin eta hasieratik gustatu zitzaidan lana"

Valladolideko Villavellid herrikoa jaiotzez, mutikotan etorri zen Pedro Rico Bergarara. Hamar anai-arreba dira (bera zazpigarrena) eta Pedro da Bergaran jarraitzen duen bakarra. 14 urterekin hasi zen okin lanetan. Hor jarraitzen du, furgonetarekin alde batetik bestera. Bi seme-alaba dituzte.



Pedro Rico ogia banatzen, eguenean Bergaran. 14 urterekin hasi zen okin lanetan. | E.M.

**Nola hasi zinen okin?**
Uda baten izan zen. Uztaila eta abuztua eman nuen San Pedro kalean zegoen Goenetxe okindegian eta gustatu egin zitzaidan... Ez nuen eskolara bueltatzerik nahi. Beste lanik ez dut egin; Mayc lantegian hasteko eskaini zidaten aspaldi, baina ez nintzen joan azkenean... Orain dela 20 urte, berriz, Ogizun sortu genuen bost lagunen artean eta hortxe nabil.

**Lanbideko gauzarik txarrena?**
Ordutegia, duda barik. Gauerdian hasten naiz, 12 t´erdietan, eta eguerdian, ordu batak aldera bukatu...

**Ogizalea izango zara...**
Bai, elikagai naturalenetakoa da eta asko gustatzen zait. Zerekin gehien? Egunaren arabera, baina ogia saltsatan bustitzea ikaragarria da, kokotxen saltsarekin esate baterako.

**Sukaldean trebea zarela esan digute.**
Gustatzen zait sukaldari jardutea. Denetik egiten dut baina okela gisatua eta orokorrean arraina gertatzen ditut ondoen.

**Gaur, zure eguna ospatzeko zerbait berezia prestatuko duzu?**
Jeneralean Gure Ametsa elkartean batzen gara egubakoitzero, baina gaur etxean dudan txokoan ospatuko dugu nire eguna; kokotxak prestatzeko asmoa daukat. Bospasei lagun elkartuko gara. Garai baten hogei lagun inguru elkartzen ginen egubakoitzero Gure Ametsan eta gaur bost bat izango gara astero joaten garenak. Hogei urtetik gora daramagu astero biltzen. Gorlako bazkidea ere banaiz.

> "Ordutegia da txarrena; gauerdian hasi eta eguerdian bukatzen dut"

> "Zaletasun handia dago Bergaran kirol ezberdinak egiteko eta ona da hori"

**Bergara KEko presidente jarraituko duzu.**
Bai, beste lau urte egiteko konpromisoa hartu dut.

**Nola ikusten duzu herriko kirola?**
Ondo. Zaletasun handia dago kirola egiteko: futbolean, saskibaloian, eskubaloian, pilotan... Kirol ezberdinetarako zaleak egotea aberatsa da, zalantzarik gabe.

**Ikusteko, futbola gustatzen zaizu gehien?**
Ez pentsa. Telebistan, igeriketa probekin edota eskubaloiarekin asko gozatzen dut. Baita txirrindularitzarekin ere: Tourreko etapa menditsuak ikusgarriak izaten dira.

**Nork irabaziko du aurten?**
Adi Samuel Sanchezekin. Maillot horia janzteko aukerekin ikusten dut. Contador ere gogor dabil, Evans ere bai... Hiruren artean egongo da irabazlea; Schleck anaiek ez dut uste ezer egingo dutenik.

**Futbolean makina bat sufrituko zenuen aurten Valladolid taldearekin...**
Bai, lehen mailara igotzeko moduko taldea zeukaten baina Abel Resino entrenatzaileak ez du asmatu. Play-offa jokatu barik igo behar zuten Pucelakoak eta azkenean bigarren mailan jarraitu behar... Disgustu ona hartu nuen Elcheren kontrako kanporaketa galtzean!

Gainera, irteera erakargarria da Valladolideko hemengo zaleendako. Realeko eta Athleticeko jarraitzaileak hara joateko irrikan egoten dira. Ea hurrengo urtean... Djukic izango da taldeko entrenatzailea datorren denboraldian eta lan interesgarria egin dezakeela uste dut.

**Eta zein da zure lehenbiziko taldea?**
Lehenbizikoa, Bergara. Ondoren, Valladolid, eta gero Reala, Athletica eta Real Madrila. Txikitan Real Madrileko zalea nintzen, baina gaur egun ez ditut batere gustuko talde handiak. Lehen mailan, Reala da nire taldea..., baldin eta Valladolid ez baldin badago noski.

**Abuztuan, zer?**
Lan egingo dut. Oraintxe egon berri naiz kanpoan. Hamar egun egin ditugu Avilan, Gredosko mendilerroan. 30 urte neraman joateke Avila aldera eta sorpresa atsegina hartu dut. Leku benetan ikusgarriak daude han Gomendatzeko moduko tokia da; asko gozatu dut. Gaur [eguena] itzuli naiz lanera... Orain, lan egitea tokatzen da. Abuztuan eta irailean lan egingo dut eta etorriko da aurrerago egun batzuk libre hartzeko ordua.

## NIRE HERRIAN

:) **BERGARAKO JENDEA**

Bertako jendea da herriko gauzarik onena. Herritarren izaera azpimarratuko nuke. Kanpotik datozen denak ongi-etorriak dira Bergaran eta estimatzekoa da hori. Orokorrean, Euskal Herrian oso ondo hartzen dugu kanpoko jendea, larregi ondo zenbait kasutan. Gure izaeraren alde ona da, behar beste baloratzen ez duguna beharbada.

:( **HERRIKO ZIRKULAZIOA**

Herri barruko zirkulazioa nahiko txarto dago, batez ere hara eta hona ibili behar dugunondako. San Pedro eta Artekale trafikorako itxita egotea ez dut ulertzen... Bizitza barik geratzen ari da inguru hori eta gutxienez eguerdira arte trafikorako zabalik egon beharko litzateke nire ustez. Komertzioa da kaltetuena neurriokin.

HERRIAK

ELGETA



Udalak mahai gainean duen urbanizazio proiektua; asmoa da hainbat fasetan egitea. | L.Z.

# Negoziazioak, Domingo Iturben lanak egiteko

- Udalaren eta Gotzaindegiaren arteko negoziazioak, nahiko aurreratuta
- Domingo Iturbe eraikina partzialki botatzea aurreikusten dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurten betetzen ditu 100 urte, baina ez dugu urtemuga ekitaldirik ikusiko. Elgetako Udala eta Gotzaindegia Domingo Iturbe patronatuaren eraikina partzialki botatzeko negoziaziotan dabiltza. Egoera txarrean dago eta arrisku handia dakar; izan ere, istripu bat baino gehiago egon da azkenaldian; erortzear dago eraikina, eta, horregatik, hesituta dago buelta osoan.

**Eraikina partzialki bota**

Eremuak urbanizatzeko premia duela uste dute udal arduradunek eta azken urteotan proiektu eta ideia ezberdinak izan dituzte aztergai. Uneotan mahai gainean duten proposamenak eraikina partzialki botatzea aurreikusten du; alegia, eraikin osoa botatzea frontoi zaharra zutik mantenduta. Eskolak hainbeste urtean eskatu duen jolastoki estalia izango luke horrela. "Eraikina zaharberritzeak 800.000 euroko aurrekontua du, eta ez da bideragarria", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Ez Udalak ez Gotzaindegiak ez dute lan horiei aurre egiteko dirurik eta ikusi dugu dirulaguntzarik ere ez dela egongo".

Eraikina partzialki botatzearekin bat eremua urbanizatzeko aukera izango luke Udalak. Hori bai, eraikina botatzeko lanen kostua eta urbanizazio lanena Udalak hartuko lituzke bere gain, eta permuta-hitzarmen bat sinatuko luke, non Gotzaindegiak etorkizunean eraikin txiki bat altxatzeko baimena izango lukeen.

**Urbanizazio proiektua**

Pazko Astean bota zuen Udalak eskola zaharra deituriko eraikina; urbanizazio proiektuaren lehenengo pausoa izan zen. Hurrengo faseak lau ardatz izango lituzke: Domingo Iturbe patronatuaren eraikina partzialki bota eta frontoi zaharra eraberritzea, Domingo Iturbe kaleko lur azpiko hoditeria berritzea, eskolatik Espaloirako eskailerak kentzea eta eskolaren aurreko aldean harmailak ipintzea.

Lanok 620.000 euroko aurrekontua dute eta Eusko Jaurlaritzak 231.000 euroko dirulaguntza eman du. Elgetako Udalak 200.000 euroko laguntza eskaera egin du Erein programara eta udal ordezkariak irailean dira Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Hezkuntza delegatuarekin batzartzekoak.

Elgetako Maala guraso elkartearen ordezkariekin ere bilera egin gura du Udalak. Datorren asterako deituko dute batzarra egitasmoaren gaineko azalpenak eman eta zalantzak argitzeko.

## Bideragarritasun ekonomikoak erabakiko du eraikinaren etorkizuna

Urteak dira Domingo Iturbe patronatuaren eraikinaren etorkizuna aztergai dela. Mendizaletasunarekin Elgetak duen harremana kontuan izanik, mendi museo bat egitea izan zen lehenetariko proposamena. 2007ko alkate aldaketarekin proposamen hori baztertu egin zen, eta 2009an Udal Gobernu berriak aproposagoa jo zuen bertan umeendako jolastoki estalia egitea.

Zenbait dirulaguntza lortu ziren proiektua idatzi eta urbanizazio lanak hasteko, baina kostu handiko proiektua zen eta eraikinaren jabetza Gotzaindegiarena da.

Luze jo dute negoziazioek. Tarte honetan zenbait istripu txiki gertatu dira erortzear dagoen eraikinean, Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olano Elgetan izan zen eraikina ikusten eta Elgetako Udalak Ideia Lehiaketa antolatu zuen.

Badirudi, azkenean ere, eraikina partzialki botatzea eta eremua urbanizatzea izango dela irtenbidea.



Eraikina gaur egun. | L.Z.

## Elgetako belaunaldi askoren eskola izandakoa

Asko dira Elgetan Domingo Iturbeko ikasgeletan ikasi dutenak; familia berean belaunaldi batek baino gehiagok. Elgetako ikastola izan zen eraikin horretan egoitza izan zuen azken ikastetxea, eta 1996an eman ziren azken eskolak. Hortaz, badira 15 urte eraikina hutsik dela.

Partzialki botatzea aurreikusten duten eraikina 1911. urtekoa da. Maria Aquilino Iturbe Altube jaunak sortu zuen *Patronato de las Escuelas Católicas de niños del Sagrado Corazón de Jesús* izenpean. 25 urtean Elgetako 5-15 urte bitarteko mutikoendako eskola izan zen. 1936ko gerrak etenaldi bat ekarri zuen; ordura arte maisulanak egin zituzten La Salleko eta Vitoristen kongregazioetako fraideak joan egin ziren, eta ikastetxea itxi egin zuten.

Gerrako bonbardaketek asko kaltetu zuten eraikina eta gerra ostean berreraikitze lanetako biltegia izan zen bertan dagoen frontoia. "Elizaren arkupean egiten genuen pilotan", gogoratzen du Juan Mari Irazabal *Zeleta*-k. Gerra ostean berriz zabaldu ziren Domingo Iturbeko ikasgelak, eta, kasu horretan, sekularrek ere egin zituzten maisulanak, tartean argazkian duzuen Felix Gartziak. "68 bat urte izango ditu argazki horrek", esan digu Irazabalek. Bere burua ezagutu du, besoak gurutzatuta, eskaileraren eskumako barandan eserita. "Hasiera batean mutilendako eskola zen; izan ere, neskek Maalako mojetan ikasten zuten. Gerora, neska-mutikoak denak batera ibiltzen ziren".



On Felix eta Elgetako ikasle taldea Domingo Iturbe eraikinaren atarian. | ARTXIBOA



Gazteak, eguazten arratsaldean, depositukо lokalak margozten. | MONIKA BELASTEGI

# Entsegu lokalak hobetu dituzte 'Grafiti jaia'-rekin

## Hilabeteetan lokalak erabili gabe izan eta gero, orain martxan jarriko dituzte

**ASIER ALKORTA** | ARRASATE

Musakolan dauden deposituko entsegu lokalen itxura "hobetzeko" eta segurtasun neurriak "aldatzeko" *Grafiti jaia* egin zuten eguaztenean eta eguenean Depos elkarteko kideek, beste herritar batzuekin batera.

Martxoaren bukaeran lapurreta egon zen entsegu lokaletan, eta, lapurretei aurre egin eta, oro har, lokalaren itxura "hobetzeko", *Grafiti jaia* antolatu zuten Depos elkarteko kideek. "Material asko lapurtu ziguten. Gero, lokalaren itxura hobetu eta segurtasun neurriak aldatzeko jai hau egitea pentsatu genuen. Guztion artean margotu dugu lokala", azaldu du Oihan Vitoriak, Depos elkarteko kideak.

Lokala urrun dagoenez, Udalaren aldetik "alboratu samar" sentitzen direla diote elkartekoek. "Udalak lokal hauek ditu, baina ez digu laguntzen. Lapurtu ziguteneаn bai, etorri ziren, baina, bestela, dena guk kudeatzen dugu". Bide horretatik, elkartea osatzen eta lokala erabiltzen duten lau musika taldeekin arreta handiagoa izan dezan eskatzen dute Deposekoek.

Dena den, egoera gogorretan ere aurrera egiteko gaitasuna dute elkartekoek, eta, umorez, jai giroz zipriztinduta, egin dituzte txukunketa lanak. "Janaria ere ekarri dugu, jaira jende gehiago erakartzeko. Guztira, hamabost bat lagun elkartu gara".

**ESANAK**

**"Udalak gurekin arreta handiagoa izan beharko luke"**

**OIHAN VITORIA** | DEPOS-EKO KIDEA

**Ate berriak**

Lapurretak gertatu zireneti lokala hutsik egon da, ez du inork erabili. Eta lapurtutako materiala oraindik orain ez dutela berreskuratu gaineratu dute. "Udaltzaingoan salaketa jarri genuen, baina ez dugu ezer lortu. Gero, ate berriak ipini bitartean, lokala hustu egin genuen eta geratzen zen materiala gure etxeetara eraman genuen".

Orain, aldiz, lokala txukundu eta gero, segituan, datorren astearen bueltan, berriro bertan entseatzen hasiko direla aurreratu dute.

# Atzo inauguratu zuten ofizialki Iturbide egoitza

**A.A.** | ARRASATE

Azkeneko bi urte eta erdian Iturbiden egindako obren inaugurazioa egin zuten atzo, eguena, 18:00etan. Besteak beste, egoiliarrak, senitartekoak eta udal ordezkariak izan ziren bertan. Berrikuntza nagusiak eraikinaren barruko aldean egin dituzte, beheko solairuan, eta, besteak beste, bi gela berri egin dituzte.

Jon Ander Juldain Iturbideko gerentearen esanetan, gustura daude egoitzan egindako berrikuntzekin eta egoitzak hartu duen itxura berriarekin. Aldaketa nagusia beheko solairuan izan da; hau da, lehenago Abaroa zegoen tokian, orain, harrera, bulegoak, ile-apaindegia, egongela eta oraindik guztiz bukatu gabe dagoen gimnasioa kokatu dituzte. Horrez gainera, bi gela berri ere egin dituzte; orain, bada, berrikuntzak eginda, 104 egoiliarrentzako lekua dago Iturbiden.

Aipatutako berrikuntza nagusiez gainera, iturgin lanak eta larrialdietako eskailera edo irteera egiteko ere aprobetxatu dute. Egoitzaren barrualdea atondu edo txukundu ere egin dutela gaineratu du Juldainek: hormak margotu eta kartelak jarri dituzte.

**Emaitzarekin "gustura"**

Obrak 2008ko urrian hasi zituzten eta bi urte, eta, erdian trabak izan ondoren, orain, erabiltzaileak, egoiliarrak zein senitartekoak, langileak eta baita udal ordezkariak ere gustura dira Iturbideren aurpegi berriarekin.

**Erabiltzaileak emaitzarekin gustura daudela esan dute**



Udaleko ordezkariak eta egoitzako arduradunak, atzo, Iturbiden. | ASIER ALKORTA



SALBA DALMU PORTALOI

# Portaloi elkarteak Otxandio bisitatu du

Portaloi kultura elkarteko kideak Otxandion izan ziren joan den astean. Kalerik kale kantuan ibili ziren elkarteko kideak eta ontxandiarrak. Bada, 300 lagun inguru elkartu zirela esan dute elkarteko kideek, eta, eguraldia aldeko izan ez bazuten ere, guztiaren gainetik, ondo ibili zirela esan dute. "Dena ondo atera zen, eta gero, bazkaltzen, 180 lagun elkartu ginen".

# Gaztegunea urrian irekiko dutela aurreratu du Arrasateko Udalak

**A. ALKORTA** | ARRASATE

Gazteguneko lokala egokitzeko lanak ia amaituta daudela aurreratu du Udalak, eta, aurreikuspenen arabera, urriaren 14an zabalduko dela esan du. "Oraindik azken lantxo batzuk egin behar dituzte, baina zati handiena eginda dago", esan dute Udaleko arduradunek.

Agertokia eta elektrizitate alorreko lantxo batzuk egin ostean, Arrasatek prest izango du gaztegunearen lokala. "Gainerako herrietan bezala, gaztegunea egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalduko da".

Txatxilipurdik kudeatuko du 12-17 urte bitartekoei zuzenduta egongo den txoko berria: "Udalarekin elkarlanean, betiere".

**Parte-hartzea bultzatuz**

Gaztegunearen eginkizun nagusia 12 eta 17 urte bitartekoen parte-hartzea bultzatzea izango da, eta, bide batez, orain aisialdiaren alorrean dagoen eskaintza osotzeko balioko duela esan du Udalak.

Herri osoari begira egindako proiektua da gaztelekuarena: "Herriak horrelako ekimen baten beharra zuen".



# Maala Arrabaleko jaixak 2011

## ondo ibili!

**UZTAILAREN 22A, EGUBAKOITZA**

**08:00etan** Etxafuego jaurtiketa.
**16:30ean** Umeendako jolasak eta txokolate–jana.
**19:00etan** Txikiteoa.
**21:00etan** Afaria.
**22:30etik** aurrera Musika.
**23:30ean** Suzko erruberak.

**UZTAILAREN 24, DOMEKA**

**12:30ean:** Parrokian meza, Maalako Errabalean hil direnen omenez
**Jarraian:** Errabaleko erretiratu guztiendako luncha Plus Ultra tabernan


102 urte
• Arrasaten, • Arrasaterekin, • Arrasaterentzat.
Casa Ceciaga
Maalako Errebala 3
Tel.-Faxa: 943 79 12 72

ARREGI ARTE
Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 79 56 44
arregi.arte@gmail.com
markoak margolanak obra grafikoa ispiluak erakusketak

Plus Ultra
TABERNA
Tel.: 943 79 20 57

HOTEL ARRASATE ** HOTELA
www.hotelarrasate.com

Biteri Etorbidea 1
Tel.: 943 79 73 22 - Faxa: 943 79 14 16
e-posta: hotel@hotelarrasate.com

KIMETZ
Taberna
Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburgesak
Pintxoak
Razioak
943 10 97 30
Maalako Errebala 15. Arrasate.

BC GAZTE... | ME... | Gurte arte.
Jai zoriontsuak izan!
Tel.: 943 79 70 67

AE ELKORO
ELEKTRIZITATEA ORO AR
ATEZAIN ELEKTRONIKO
TB SATELITE / DIGITALA
DVD
TELEZABALKUNTZA
MANTENU ZERBITZUA
Tel.: 943 79 45 99
943 79 18 86

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Ondo pasau jaixak!
Tel.: 943 79 20 56

# Maalako Errabaleko jaiak hasiko dira gaur; afaria ere izango da

**A. ALKORTA** | ARRASATE

Ohiturei jarraituz, etxafuegoekin hasi dira gaur Maalako Errabaleko jaiak. Auzotarrek "egitarau polita" egiten saiatu direla esan dute. Jai giroa gaur piztu da eta domekara arte iraungo du.

Jaietako antolatzaileen esanetan, hilabete eta erdi lehenago hasten dira auzotarrak jaiak prestatzen. "Zazpi lagun inguru ibiltzen gara prestaketa lanetan. Besteak beste, laguntzak lortu eta musikariak lotzen ibiltzen gara. Gauza txiki asko lotu behar izaten dira", dio jaietako antolakuntza lanetan ibiltzen den Koldo Balantzategi Maalako Errabaleko auzotarrak. Jaia "xumea" izaten dela dio, herrikoia. "Baina hortxe dago xarma".

Lehenengo egunean egingo den afarian 55 auzotar inguru elkartuko direla aurreratu du. "Menestra eta oilaskoa egongo da jateko eta afaria kalean egingo da". Afalostean, Arrasateko bi trikitilarik girotuko dute jaia. "Jendeak dantza egin eta umorez ondo pasatzeko aukera egoten da afaldu ostean".

Jaiei amaiera emateko, domekan erretiratuei omenalditxo bat egingo zaie, eurentzako ekintzak eginda.

Herritar guztiak auzoko jaietara gonbidatuta daudela dio Balantzategik.

# AUKEAko monitoreen hautaketa probak egingo ditu Udalak

**A. ALKORTA** | ARRASATE

Lan-poltsak datozen hiru urteetan gerta daitezkeen beharrei erantzuteko balioko duela jakin du Udalak. Izena emateko epea hilaren 26ra arte dago zabalik. Besteak beste, probetan parte hartzeko eskatzaileek ezinbestean igeriketa entrenatzailearen titulua, heziketa fisikoko lizentziatura edo irakaskuntzako titulua (kirol arloan) eduki beharko dute.

Hizkuntzari dagokionez, eskatzaileek gutxienez euskarako hirugarren maila izan beharko dutela aurreratu du Udalak.

Probetara aurkezteko, interesatuek Udaleko erregistro orokorrean edo udal wegbunean izena eman beharko dute, hilaren 26a baino lehen.

**Probak irailean**

Proba teorikoa eta praktikoa irailaren 6an egingo dira, Musakolako kiroldegian, 09:30ean.

Hautaketa prozesuan AUKEAko kudeatzaileak, Udaleko euskara teknikariak eta sindikatuetako ordezkariek parte hartuko dute.

Sorosle lanak egiteaz gain, monitoreek igeriketa eskolak ere eman beharko dituzte.

# Udal Zerbitzuek ordutegia aldatuko dute abuztuan eta batzuk itxi egingo dira

**A. ALKORTA** | ARRASATE

Abuztuan Udal zerbitzuen ordutegia aldatu egingo da eta kasu batzuetan, zerbitzuak eten ere egingo dira.

Gazte Bulegoa, Emakume Txokoa, Euskaltegia, Uarkape eta Iturripeko kirol instalazioak dira abuztuan ateak itxiko dituzten zerbitzuak.

**Zabalik egongo direnak**

BAZ 08:30etik 14:00ak arte egongo da zabalik eta Kulturate 09:30etik 12:30ak arte. Zapatuetan biak itxita egongo dira. Kiroldegia egunero egongo da zabalik (igerilekuak 10:00etatik 20:30etara eta instalazioak 09:00etatik 21:00etara). Udaltzaingoa 24 orduz egongo da zabalik.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Juan Rodrigo Santaolalla, Juan Santaolalla Quartet-eko kidea. | G.

# Bi taldek beteko dute astelehenera arteko eskaintza musikala

Sobrelamarcha taldeak bihar joko du eta Juan Santaolalla Quartet-ek astelehenean

**ASIER ALKORTA** | ARRASATE

Sobrelamarcha Lanzaroteko taldeak eta Juan Santaolalla Quartet-ek beteko dute gaurtik astelehenera arteko eskaintza musikala. Lehenengo kontzertua gaztetxean izango da eta bigarrena, jazz estiloan oinarrituta, Jose Letona plazan. Bi taldeek estilo ezberdinak jorratuko dituzte.

Lehenengo hitzordua Sobrelamarcha taldearekin helduko da, zapatuan, 23:00etan, gaztetxean.

Horretan bost emakume izango dira oholtzara igoko direnak. Lagunartean kontzertuak ematen hasi eta gutxinaka goraka igotzen joan den taldea da. Pop, rock, funk eta bestelako estiloak jorratuko dituzte euren abestietan. Eta abesti batzuk ezezagunak izango badira ere, beste batzuk aski ezagunak izango dira bertaratzen diren guztientzat. Izan ere, Michael Jackson, Cher, Tina Turner eta Katy Perry abeslari ospetsuen abestiak joko dituzte.

Kontzertuak hainbat tokitan eman izan dituzte. Besteak beste, 2010. urtean Ironman probaren amaierako jaialdian parte hartzeko eskatu zieten.

Urte askorik ez izan arren, publikoa zutik eta dardarka jartzeko moduko emanaldia egiten dutela diote taldekideek eurek eta kontzertua ikusi dutenek.

**Jazza astelehenean**

Hilaren 25ean izango da bigarren hitzordua, Juan Santaolalla Quartet taldearekin. Juan Rodrigo Santaolalla gitarra-jotzaile malagarra buru dela, taldeak jazz estiloko abestiak aireratuko ditu Jose Letona plazan, 20:00etan hasita. Kontzertua doan izango da.

Taldea osatzen duten musikariek Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) elkar ezagutu zuten, eta hortik sortu zuten taldea.

Egiten duten musika estiloari dagokionez, euren ohiko errepertorioa jazz estandarrean oinarritzen da eta kutsu intimoa du. Lerro melodikoak dentsitate harmonikoaren gainetik azaltzen direla diote haien kontzertuak entzun dituztenek.

Taldea hiru kidek osatzen badute ere, aurten berrikuntza bat dakarte: Daniel Cano tronpetistak eta Alejandro San Pelayo kontrabaxuak kolaborazioak egin dituzte. Beraz, jazza gustuko dutenentzako ikuskizun aproposa izango da astelehenean Jose Letonan egingo den kontzertua.



ESAIT

# ESAITekoak, Bizkaian barrena

Debagoieneko ESAITekoak Bizkaiko Bira egiten dabiltza aurten eta joan den asteburuan bosgarren etapa egin dute (Plentzia-Portugalete). Ondarroan hasi zuten bira, eta, orain artekoak eginda, hurrengo etapa Portugalete-Muskiz izango dela aurreratu dute. Azken txango horretan 30 lagunek parte hartu zuten. Bira hori egiteaz gain, urtean zehar bi irteera egiten ditu taldeak, eta, lehenengoa Pirinioetara egin eta gero, bigarrena Valderejora egingo dutela esan dute.

Maitane Gallastegi | Mondrako zuzendaritzako kidea

# "Emakumezkoen Bartzelona eta Reala ekarri nahi ditugu"

Datorren urtean 25 urte beteko dira Mondrak emakumezkoen taldea sortu zuenetik: "Bigarren mailara igo izana da ospatzeko modu onena"


Maitane Gallastegi, zuzendaritzako ordezkarietako bat. | X.U.

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE
Datorren denboraldia ederra izango da Mondrako emakumezkoendako. Gipuzkoan bigarren mailan lehiatuko diren lau taldeen artean egongo da Mondra –Athleticen kontra hasiko dute liga, Lezaman– eta taldearen urteurrena ere ospatuko dute, duela 25 urte sortu zuten-eta Rosi Catangak eta Roman Lopezek emakumezkoen Mondra. Maitane Gallastegik (Arrasate, 1982) urtetan jatzin du elastiko zuri-morea, eta orain, zuzendaritzatik dabil urteurreneko ekimenak kudeatzen.

**Zelan ospatuko duzue urteurren hori?**

Hasteko, esan behar da zazpi-zortzi laguneko taldea osatu dugula urteurreneko ekitaldiak antolatu ahal izateko. Hala, ligako bigarren jardunaldian, etxean jokatzen dugunean, omenalditxoa egingo diegu Rosi Catangari eta Roman Lopezi, eta udazkenerako emakumezkoen Reala eta Bartzelona ekarri nahi ditugu lagunarteko partidua jokatzera.

Gastu horiei aurre egiteko kamisetak atera ditugu, eta Mondraren tabernan daude salgai. Irailetik aurrera, berriz, Mojategiko tabernan ere jarriko ditugu salgai. Dena dela, 25. urteurrena datorren urtean beteko da, 2012an, eta orduan ere gauza gehiago antolatuko ditugu. Esaterako, Emakume Txokoko arduradunekin egon nahi dugu, kirolariak ekarri eta eurekin batera berbaldiak antolatzeko.

**Neskak kategoriaz igo izanak ere lagunduko du urteurrena ospatzen.**

Izan ere, hori da urteurrena ospatzeko modu onena. Ez dakigu zaleek zelan erantzungo duten, baina emakumezkoen taldea bultzatzen ahaleginduko gara. Kategoria horretako beste talde batzuek esan digute sarrera kobratzen hasteko, baina hori baino gehiago, gure asmoa izango da nesken partiduak ikusteko txartel bereziak ateratzea, bazkide-laguntzaile moduan-edo.

**Kategoria berrian alde handia egongo da?**

Zorionez, ez dugu Zaragoza aldera joan behar izango, aurten beste multzo baten geratu dira-eta. Horrek izugarri garestituko luke kategoria, asteburu-pasa joan beharko genuke-eta Zaragozara. Euskal Herriko taldeekin batera Errioxakoen kontra ere jokatuko dugu, eta egun bateko irteerak izango dira. Kontuan izan behar da Mondraren gainetik kategoria bakarra geratuko dela emakumezkoen futbolean, gu bigarren mailan izango gara, eta Reala, Bartzelona eta halako taldeak lehenengo mailan. [Orain arteko Superliga zena desagertu egin da; aurrerantzean lehenengo maila izango da]

Bestalde, oraindik ezin dugu aurreikusi taldeak ze maila emango duen. Lagunarteko bat jokatu genuen Añorgaren kontra, eta 4-4 berdindu genuen. Baina ez dakigu zenbaterainoko seriotasunarekin jokatu zuten eurek.

**Aldaketa handiak izango dira taldean?**

Jon Zuloagak eta Andoni Ezkurrak jarraituko dute entrenatzaile modura, eta lau fitxaketa egin ditugu: Ainhoa Lete (Eibar), Melani (Gasteiz Cup), Maialen Esnaola (Bergara) eta Izaskun Usabiaga (Tolosa). Gainontzekoak iazkoak izango dira.

**"Nesken partiduak ikusteko txartel bereziak atera nahi ditugu"**


Mondrako neskak, aurten, Mojategin. | JOSETXO ARANTZABAL


1995-96 denboraldian, Aloñaren kontrako derbian. | ARRASATE PRESS

## Arrasateko neskak, 25 urte futbolean

25 urte hauetan gorabehera handiak izan ditu Mondrako nesken taldeak. Orain daude gorenean, baina duela 10 urte nazional mailan ere izan ziren Arrasatekoak. Hala ere, kategoriak asko aldatu dira urte hauetan. Baita taldeen arteko berdintasuna ere, neskek gutxitan zapaltzen zuten–eta Atxabalpeko belar naturala.

# Etxeko atletek bost domina Basaurin

Maialen Axpek Euskadiko errekorra ondu zuen

**X.U.** | ARRASATE
Iñigo Uribarren, Jonathan Perez, Istar Dapena, Maialen Axpe eta Markel Blanco izan dira Basauriko Euskadiko txapelketatik domina banarekin itzuli diren atletak. Uribarren podiumera igo zen, hirugarren, salto hirukoitzean (14,08). Perezek, berriz, pertika saltoan urrea jantzi zuen, 4,30 metroko saltoa eginda. Seniorrekin lehiatu zen Dapena gaztea, meritu handiko hirugarren postua eskuratuta (3.80). Eta 800 metroko lasterketan Markel Blancok zilarra poltsikoratu zuen, 2 minutuko denbora eginda.

**Euskadiko errekorra Axpek**

Espainiako txapeldun izan berri den Maialen Axpe bigarren sailkatu zen Naroa Agirreren atzetik, baina gazte mailako Euskadiko errekorra ondu zuen (3.90).


Euskadiko errekorra ondu berri duen Maialen Axpe, Mojategin. | ARANTZAZU EZKIBEL

BASATI TABERNA
943 71 17 68

Restaurante UGARAN Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

# Bisitaldi gidatuak Andres de Madariaga ezagutzera emateko

Haren garaiko aldaketa urbanistikoen berri ere emango dute bisitotan

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

*Andres de Madariaga zalduna. Bergara eta mundua XVII. mendean* izeneko dohaineko bisita gidatuak antolatu ditu Udalak uztail eta abuzturako. Bisita gidatu horiekin, Andres de Madariaga Amatiano ezagutzera eman nahi dute, eta, pertsonaia bera eta haren garaia gogora ekartzeko, garaiko ondare-elementuak erakutsiko dituzte bisitotan. Hain justu ere, ondare-elementu hauek erakutsiko dituzte: Madariagari esker eraikitako Jesuiten eliza (Seminariokoa), San Martin plaza eta udaletxea, Olaso jauregiko lorategiko armarri bat eta XVII. mendeko etxe bat Bidekurutzeta kalean.

Bisitak 90 minutu inguruko iraupena du eta bereziki hiru espaziotan gauzatuko da: alde batetik, Jesuiten elizan –Errege Seminarioko eliza–. Hor, besteak beste, Madariaga pertsonaia ezagutzera eman duen ikerketa-indusketaren bideoa ikusiko da. Bestetik, San Martin Agirre plazan Madariagaren garaiko aldaketa urbanistikoa eta udaletxea landuko dira. Hirugarren, Bidekurutzeta plazan, XVII. mendeko bergararren bizitzara hurbilketa egingo da; antzinako merkatua eta garaiko komertzianteen etxe tipikoa ezagutuko dira.

**Bisitak uztail eta abuztuan**

Bista gidatuok uztail eta abuztuan izango dira, euskaraz zein gazteleraz (ikus ondoko taula).

Hain justu ere, euskarazko bisitak uztailaren 22an, 24an, 29an, 31n eta abuztuko zapatutan egingo dituzte. Gaztelerazkoak, uztailaren 23an eta 30ean eta abuztuko martitzen eta egubakoitzetan.


Madariagaren mausoleoa. | GOIENA

**EGUTEGIA**

| | |
|---|---|
| **Euskaraz** | |
| Uztailak 22 eta 29 | 17:00 |
| Uztailak 24 eta 31 | 11:30 |
| Abuztuko zapatuak | 11:30 |
| **Gaztelaniaz** | |
| Uztailak 23 eta 30 | 17:00 |
| Abuztuko martitzen eta egubakoitzak | 11:30 |

Turismo bulegoko teknikariek zuzenduko dituzte bisitok. Informazio gehiago 943 77 91 28 telefono zenbakian eta *www.bergara.net* helbidean.

**Eragin handiko gizona**

Austriarren Dinastiak oraindik mundu ezagun erdia kontrolatzen zuen garaian, Indietatik Europara Sevillako portuaren bidez iritsitako zilarra zen Europako potentzien ekonomia martxan jartzen zuen pizgarria. Garai hartan, Andres Madariaga Amatiano bergararrak (1628-1699), txikitatik umezurtz geratu zenak, jaioterria utzi zuen eta XVII. mende urrun hartako ekonomia -guneetarantz abiatu zen. Ibilbide hartan, itzal handiko pertsonaia izatea lortu zuen. Limako Auzotegiko Kontadore izan zen Peruko Erregeorderrian, eta zeregin horrek eragina izan zuen garai hartako potentzien arteko politikan eta nazioarteko harremanetan.

Halaber, bere jaioterriaren, Bergararen, eraldaketan ere eragina izan zuen. Izan ere, Jesusen Lagundiaren ikastetxeko –gaur egun Errege Seminarioa dena– eliza-mausoleoa eraikitzen lagundu zuen hura guztia finantzatuz; eta eraikuntza horrek hirigintza eraldaketa ekarri zuen, San Martin plaza sortu zen-eta. Bestalde, Bergarako garai ezezagun hartatik oraindik ere gelditzen diren zenbait aztarna daude: udaletxeko fatxadan pisuak eta neurriak zehazteko dauden markak, kasu.

# Boluko, Basalgoko eta Goimendiko jaiak aste bukaeran

Santa Ana eta Santiago jaiak ospatuko dituzte

**M.B.** | BERGARA

Bolun Santa Ana jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta domekara bitartean. Hain justu ere, 20:00etan hasiko dira jaiak Santanatxoren jaitsierarekin eta 22:30ean dantzaldia egongo da. Bihar, zapatua, pintura eta marrazki lehiaketa egongo dira 10:00etan, eta lan irabazlearekin datorren urteko jaietako kartela egingo dute. 12:00etan kukainak eta umeendako jolasak egongo dira; 18:00etan umeendako musika, mozorro lehiaketa, txokolate-jana eta buruhandiak. 20:30ean, berriz, dantzaldia egongo da Orots taldearekin eta 21:30ean herri afaria Azpeitxi jatetxean.

Domekan pilota partiduak egongo dira 11:00etan eta 12:00etan haurrendako puzgarriak eta jinkana. 22:00etan bukatuko dira jaiak Santanatxoren igoerarekin.

**Goimendin ere jaiak**

Goimendin Santiago jaiak ospatuko dituzte etzi, domeka, eta astelehenean. Domekan 21:30ean hasiko dituzte jaiak, plazan, berakatz-zopak banatzen. 23:00etan erromeria hasiko da Astiazaran II.a eta Agurtzane trikitilariekin eta 02:00etan sorpresa egongo da. Astelehenean meza egongo da 11:00etan; soka-dantza 12:00etan Eibarko Klub Deportiboko Kezka dantza taldearekin, eta 12:30ean Irazu eta Mendiluze bertsolariek saioa egingo dute. Gero, Jon Ostolatza eta Unai Andonegi trikitilarien txanda izango da.

Herri kirolen erakustaldia ere egongo da: 18:00etan Ruber Saralegi eta Aratz Mugertza aizkolariek eta Telleria harrijasotzaileak hartuko dute parte. 19:00etan saioa egingo dute berriz Irazu eta Mendiluze bertsolariek, eta, jaiei amaiera emateko, Jon Ostolatza eta Unai Andonegi trikitilariekin erromeria egongo da.

**Basalgon ere bai**

Bestalde, etzi, domeka, hasiko dira jaiak Basalgon, 18:30ean, ohiko makal jasotzearekin. Astelehenean meza nagusia egongo da 11:00etan. 12:00etan 21. Basalgora txirrindulari igoera eta 12:30ean, luncha. 13:00etan Amuriza eta Elortzak saioa egingo dute eta gero, erromeria egongo da.

Martitzenean, hilak 26, meza egongo da 13:30ean eta gero luncha eta jolasak umeendako. Jaiak 14:30ean auzoko erretiratuek eta jai batzordeko kideek egingo duten bazkariarekin bukatuko dira. Izena emateko azken eguna uztailaren 25a da, Basalgokoak elkartean.

# Sierbetako komentuko lanak ere aurrera doaz

San Pedro eliza berritzeko lehen faseko lanen barruan, Sierbetako komentua egokitzeko lanak ere egiten ari dira. Barruko paretak botatzen ari dira,z eta datorren astean bukatuko dituzte eraiste lanok. Asmoa da behe eta lehen solairuetan bi parrokietako pastoraltzarako guneak egokitzea eta bigarrenean, apaizen etxeak.


MONIKA BELASTEGI

# Hasi dute bidegorria Lazpiur eta Gorostola baserriaren artean

20 bat egun iraungo dute lanek eta bukatzean Mayc–Algodonerako tunel zatiari ekingo diote

**M.B.** | BERGARA

Martitzenean hasi eta 20 bat egunez itxita egongo da trenbide zaharra Mekolalde inguruan. Lazpiur lantegitik Gorostola baserrira arteko 600 metroko tartea da itxita egongo dena, bidegorria egokitzeko lanak egiteko. Azaleko lanak dira egingo dituztenak. Hain zuzen, zorua txukunduko dute asfalto gorria botata.

Lanek iraun bitartean, trenbide gainean dagoen bidexkatik joan ahal izango dira erabiltzaileak –seinaleztatuta dago.

**Mayc–Algodonera tartea**

Antia SL eta Excavaciones y obras de Diego SLk aldi baterako sortu duten enpresak dihartu lanok egiten, Udalaren eskariz. Eta Mekolalden asteon hasi duten tartea bukatu bezain pronto Mayc inguruan beste bidegorri tarte bat egokitzeari ekingo diote.

Hain justu ere, Mayceko biribilgunean hasi eta Algodonerako tunelerainoko tartea da txukunduko dutena; 216 metroko tartea. Oinezkoen zein txirrindulariendako tarte zabala geratuko da hor: gaur egungo espaloiaren zabalera mantenduta, ubidea estali eta horren gainean egokituko dute bidegorria.

Bi tarteotako lanen aurrekontua 159.600 euro da.

# 'Monzon' pastoralaren estreinaldia abuztuaren 7an eta 13an Larrainen

## Jean Bordaxar kantariak idatzi du pastorala; Bergaran, irailaren 17an

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Dena gertu dago abuztuaren 7an eta 13an, Larrainen, *Monzon* pastorala aurkezteko. Astelehenean egin zuten aurkezpena, Baionan eta Donostian, eta handik Bergarara etorri ziren pastoraleko ordezkariak. Artatse elkartean egin zuten bazkaria, besteak beste, Jesus Elortza Bergarako alkatearekin, Ramon Mendibil Olaso Dorrea Fundazioko presidenteordearekin, Maite Guridi zinegotzi ohiarekin eta Kristina Elkororekin.



*Monzon* pastoraleko ordezkariak, Maite Guridi, Kristina Elkoro eta Ramon Mendibilekin, astelehenean Artatsen. | E.M.


Jean Bordaxar, idazlea. | E.M.


Dominique Urruti, Monzon zaharra.


Ximun Accoceberry, Monzon gaztea.

### Ehun lagun

Jean Bordaxar kantariak idatzi du pastorala, eta, esan bezala, abuztuaren 7an estreinatuko dute Larrainen, Ori mendiaren magalean, hain zuzen. 97 lagunek hartuko dute parte, tartean 17 dantzarik eta 14 musikarik.

Iparraldekoek abenduan ekin zieten entseguei eta egun handia izango da haiendako datorren abuztuaren 7a. Izan ere, dagoeneko 20 urte dira Larrainek azken pastorala, *Xalbador*, eman zuenetik. Ordutik, baina, ez dira geldirik egon; iaz, esaterako, maskarada egin zuten Aratuztetan. Jean-Pierre Accoceberry *Monzon* pastoraleko presidentea dugu, eta, Bordaxarrek zerbait idatzi zuela jakinda, harengana jo zuen. Hain zuzen ere, *Agirre* pastoralean Monzonen rola zuen Bordaxarrek eta Monzonen bizitzaz interesatzen hastearekin ikusi zuen bizitza aberatsa zuela eta merezi zuela pastoral bat idaztea; omenaldi gisa pastorala egitea erabaki zuten, Aurten, gainera, Telesforo Monzonen heriotzaren 30. urteurrena betetzen da. Idazle, politikari eta buruzagi abertzaleari eskaini zitzaion azken omenaldian, aurreko martxoaren 12an, Udal Pilotalekuan, Larraineko ordezkariak ere izan ziren.

### Egun handia Larrainen

Abuztuko bi emanaldietarako guztia prest dago: ekitaldiak goizetik hasiko dira. Eguerdi aldera meza izango da eta ondoren pastoral gunera hurbilduko dira ikusleak. Bazkariaren ostean eskainiko dute pastorala , 15:30ean eta ondoren afaria eta dantzaldia izango dira Larrainen. Herri txikia da, 217 biztanle baino ez dituena. Ilusioz beteta daude abuztuko bi emanaldietarako. Estreinaldirako 4.000 lagun inguru batzea espero dute antolatzaileek. Sarrerak 13 eurotan eskuratu ahal izango dira eta 14 urtetik beherakoendako sarrera doanekoa izango da. Hauxe duzue Larraineko telefono zenbakia: (0033) 559 28 62 80. Eta helbide elektronikoa, beste hau: *comlarrau@cdg-64.fr*. Larrainera joateko, Baionara autobidetik joatea da onena eta Miarritzeko bigarren ordainlekua Hasparreneko irteera hartu beharra dago. Ordu erdi inguruko ibilbidearen ostean, autobidean bertan, Salies de Béarn-en atera, Maulera jo eta handik Atharratze/Tardets-era. Azkenik, Sta. Grazi/Sainte Engraceko desbideratzea hartu eta gero Larrainera.

Larraineko alkate Sebastian Uthurriage ere izan zen astelehenean Bergaran. Zera adierazi zigun: "guretako Monzon abertzale handia zen, gure nortasunaren eta duintasunaren defendatzailea, abertzaleondako eredu aparta. Borrokalari handia izan zen, eta Larrainen ere borroka gure egun orotako afera da, gure lurren defentsan tartean. *Beti atxik makila eskuan eta anteligia bihotzean* esaten dugu guk...". Abuztuko emanaldietan ehundik gora laguntzaile izango dituzte guztia ondo ateratzeko.

### Irailaren 17an, Bergaran

San Martin jaien barruan, irailaren 17an, *Monzon* pastorala Bergaran egingo dute. Seminarioan antzeztuko dute eta astelehenean bertan ikuskizuneko alderdi teknikoak zehazten izan ziren Udaleko ordezkariekin.

# Udaleko zerbitzuen ordutegia abuztuan

**E.M.** | BERGARA

Udalak aditzera eman ditu hainbat zerbitzuren udako ordutegiak. Horrela, Agorrosingo kirolguneak ordutegi ezberdina izango du abuztuaren 1etik aurrera: aste osoan, astelehenetik domekara 09:00etatik 21:00etara izango dira zabalik bainutokia eta gainerako kirol instalazioak. Labegaraietako kiroldegia, berriz, itxita izango da abuztuaren 1etik 31ra, nahiz eta hango taberna zenbait egunetan zabalik izango den, ziurrenik. Errotalde jauregiko Udal Liburutegiari dagokionez, lehenbiziko astean zabalik izango da, hilaren 1etik 5era, 08:30etik 13:30era. Abuztuaren 6tik 28ra itxi egingo dute eta berriro hilaren 29an zabalduko dute ohiko ordutegiarekin, 08:30etik 20:30era.

### KZgunea, itxita

Bestalde, Irizar jauregiko KZGunea itxita izango da abuztu osoan eta irailean hasiko dira berriz lanean, goizez 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara. Turismo Bulegoa egunero izango da zabalik abuztuan, 10:30etik 19:00etara (domeka eta jaiegunetan 10:30etik 13:30etara). Edozein argibidetarako hauxe da bertako telefonoa: 943 77 91 28.


Agorrosingo kirolguneak ordutegi berezia izango du abuztuan. | MONIKA BELASTEGI

## OHARRAK

**BASERRI BIDEAK**
Asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza eta bideen zerrenda ikusgai udaletxean, abuztuaren 20ra arte.

**JAIETAKO ZOZKETA**
San Kristobalgo zozketan 1.785 izan da saritua. Saria: Orioko Balea hotelean egonaldia.

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Europako gazte mailako txapelketan izan da Mikel Aristi txirrindulari bergararra

## Lokatzako txirrindularia 68. postuan sailkatu zen Offidako lasterketan

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Mikel Aristi Lokatzako txirrindulariak 68. postua lortu du gazteen mailako Europako txapelketan. Zapatuan jokatu zen lasterketa, Italian, Offidan, eta txirrindulariek 110 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten. 85 lagun izan ziren helmugara iritsi zirenak. Irabazlea Pierre-Henri Lecuisinier frantziarra izan zen, bigarren Olivier Le Gac txapeldunaren herrikidea eta iaz ibilbide berean munduko txapeldun bilakatu zena eta hirugarren Loic Vliegen belgikarra. Irabazlea bakarrik iritsi zen helmugara eta 21 segundora eta 24 segundora podiumeko lagunak. Mikel Aristik 11 minutu eta 41 segundo galdu zituen txapeldunarekiko. Bergararraren taldekideak, Miguel Angel Benito eta Joaquin Torres, 9. eta 16. postuetan sailkatu ziren Italian eta Espainiako selekzioko beste ordezkaria, Alvaro Trueba, 80. tokian iritsi zen. 38 txirrindularik ez zuten ibilbidea bete. 1993an eta 1994an jaiotako txirrindulariak lehiatu ziren.

**Orobengoa, hirugarren Aztirian**

Bestalde, zapatuan Aztirian jokatutako gazte mailko proban, Sumofic-Lokatza taldeko Hodei Orobengoa 3. postuan sailkatu zen. Aztiriara iristean, azken kilometroan, Laguntasuna taldeko Santamariak eta Murielek taldeko lana egin zuten bergararrari garaipena oztopatzeko. Edozelan ere, Orobengoa pozik agertu zen aurten lortzen duen hirugarren podiumarekin. Xabier Gallastegi eta Jon Aranzabal, hurrenez hurren, 19. eta 20. iritsi ziren Aztiriako lasterketan.

**Basalgoko igoera astelehenean**

Astelehenean, Santiago egunean, Basalgoko igoera jokatuko da, auzoko jaien barruan. Tradizio handiko proba da Basalgokoa; aurtengoa 29. ekitaldia izango da. Nahi duten gaztetxo guztiek parte hartu ahal izango dute asteleheneko proban. Lasterketa 12:00etan hasiko da eta ordubete aurretik hasiko da izenematea. Lasterketa amaitu eta sari banaketaren ostean luncha eta bertsolariak izango dira Basalgon, jaietako egun nagusian.



Mikel Aristi gazte mailako Europako txapelketan lehiatu zen zapatuan, Italian. | GOIENA



Hodei Orobengoa (8 zenbakiarekin), Aztiriako proban. | GIPUZKOAKO TXIRR. ELK.

# Ines Iturricastillok eta Xabier Uribesalgok amaitu zuten 'Ehun miliak' proba

## Joxe Balentziaga lesionatuta erretiratu zen, bost ordu pasatxo ibili ostean

**E.M.** | BERGARA

Xabier Uribesalgo eta Ines Iturricastillo bergararrek *Ehun miliak* izeneko ultratrail proba bukatzea lortu zuten aurreko asteburuan. Euskal Herrian jokatzen den mendiko lasterketarik gogorrenetakoa da *Ehun miliak*. Bergararrei dagokienez, Xabier Uribesalgok 42 ordu eta 51 minutuko denbora egin zuen helmugan. 64. tokian sailkatu zen Uribesalgo. Ines Iturricastilloren denbora 47 ordu eta 3 minutu izan zen. Sailkapeneko seigarren emakumea izan genuen bergararra eta sailkapen orokorrean 96. tokian geratu zen.

Beasainen hasi eta proba bertan amaitu bitartean, besteak beste, Elosua, Madarixa, Jazkue gaina, Txindoki, Lizarrusti eta Etxegarate gainditu behar izan zituzten partaideek. Debagoienera egubakoitz gauean iritsi ziren, 21:00 aldera Trekutzetik pasa eta Irukurutzetara jo zuten. Bergarako Pol-Pol mendizale taldeko kideek eta zale mordoxka batek egin zieten harrera korrikalariei Gorla inguruan. Kantina ondoan trikitilariak ere izan zituzten animoak emateko. Txip kontrola egin ondoren, mokadutxoa hartzeko aukera izan zuten lasterkariek.

**Dominguez eta Martinez nagusi**

Javi Dominguez gasteiztarra izan zen irabazlea, 24 ordu eta 49 minutuko denborarekin. Bigarren Jose Vicente Benito izan zen, 25 ordu eta 11 minuturekin eta hirugarren Pedro Germano sailkatu zen, 26 ordu eta 21 minutu egin eta gero. Imanol Aleson iazko irabazleak ez zuen proba amaitu.

Emakumeen artean Nerea Martinez iruindarra izan zen onena, bosgarren tokian, 28 orduko denborarekin. Ordubete eta lau minutu atera zizkion bigarren sailkatu zen Leire Iruretagoienari. Hirugarrena Jaione Sasieta izan zen, 13. postuan, 33 ordu eta 17 minuturekin. Esan bezala, Ines Iturricastillo izan zen seigarren emakumea.

**Balentziaga erretiratu egin zen**

Beasaingo helmugara 97 lagun iritsi ziren eta 107 lasterkarik ez zuten proba amaitzerik izan. Zoritxarrez, haien artean izan zen Joxe Balentziaga beterano bergararra. Elosua inguruan utzi egin behar izan zuen lasterketa, lesionatuta. Ordurako bost ordu pasatxo zeraman Balentziagak.




Ines Iturricastillo bergararra, Luis Mari Diaz (313 zenbakia) eta David Joan Davila (312) lagunen ondoan. | 'EHUN MILIAK'

### Labegaraietako kiroldegia itxita izango da abuztuan

Labegaraietako kiroldegia itxita izango da abuztuan, hilaren 1etik 31ra. Irailaren 1ean zabalduko dute eta orduan izango da kirol kantxak erabiltzeko aukera berriro. Labegaraietako telefono zenbakia hauxe duzue: 943 76 56 41. Kiroldegiko kantxaren erreserbak bertan egin daitezke.

Bestalde, Agorrosingo kirolgunean ordutegi berezia izango dute abuztuan: 09:00etatik 21:00etara izango da zabalik kirolgunea.

### Txirrinduzaleen irteera domekan, kostaldera

Bergarako Txirrindulari Elkarteko lagunek irteera egingo dute domekan, uztailaren 24an. Oraingo honetan kostaldera joko dute, Getaria eta Zarautzera, 132 kilometroko ibilbidea egiteko. Uztaileko irteeretan ohikoa denez, 08:00etan elkartuko dira San Martin plazan. Hurrengo irteera abuztuko oporren bueltan egingo dute. Hain zuzen ere, irailaren 4rako aurreikusi dute hurrengo irteera. Iraileko irteerak 09:00etan izango dira.

## 'Zombies party' filma eskainiko dute eguaztenean

A.E. | BERGARA

Gaztetxeko zineklubak jarraitu egingo du datorren eguaztenean. Uztaileko azkeneko saioa izango da, eta, hala, amaitu egingo dute umorezko zikloa.

Edgar Wright zuzendariaren *Zombies party* (2004) eskainiko dute, 22:30ean, gaztetxean. 99 minutu irauten duen komedia da, beldurrezko komedia.

**Shaun gizonaren bizitza**

Zonbiak agertzen diren beldurrezko komedia erromantikoa da *Zombies party*.

Shaunen bizitza kontatzen du filmak; The Winchester tabernan pasatzen du eguna Ed lagunarekin; bere neskalagun Liz alde batera utzita. Egun baten, hildakoak bizitzara itzuliko dira.

## Aritzeta abesbatzak Gorlizen abestuko du bihar, 22:30ean hasita

Gorlizen egingo den XVII. habanera eta euskal polifoniako jaialdian parte hartuko du Aritzeta abesbatzak. Jaialdian beste bi abesbatza ere arituko dira, Coral Polifonica de Haro eta ekitaldiaren sustatzailea den Lirain abesbatza. 22:30ean hasiko da eta Iberrebarri aretoan –Gorliz– izango da hiru abesbatzen emanaldi koloretsua.

## Gaur zabalduko dute Zaloa Ipiñaren 'Argi diztirak' erakusketa

Aroztegi aretoan gaur hasi eta abuztuaren 14ra arte egongo dira ikusgai Zaloa Ipiña artista bilbotarraren lanak. Ipiñak Arte Ederrak ikasi zituen eta grabatu garaikidearen gaineko masterra egin zuen Galizian. Bakarka egiten duen lehen erakusketa da Bergarakoa.



Rico McLarrin eta Marcos Coll Band taldea. | GOIENA

# Gaur izango da uztailari dagokion azkeneko jazz saioa

### Rico McLarrin & Marcos Coll Band taldeak jardungo du Espoloia girotzen

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bermuga musika egitarauak laugarren jardunaldia izango du gaur. Modu honetan, uztaileko kontzertuak amaitutzat emango dituzte; abuztuan kontzertu gehiago eskainiko dituzte, baina egubakoitzean beharrean eguaztenetan izango dira.

AEBetako, Berlingo eta Galiziako musikariek osatzen duten taldeak jardungo du gaur, 22:00etan hasita, Bergarako Espoloian.

**Bluesa, funka eta soula**

Los Reyes del KO taldetik datoz musikariak. Rico MaClarrinek eta Marcos Collek Berlinen ezagutu zuten elkar, Marcos Coll eta Adrian Costa buru zuen Lo Reyes del KO taldean jotzen hasita.

Garai hartan, Rico McClarrin eta & Marcos Coll Blues Jarana egitasmoa ere martxan jarri zuten.

**Jai giro aparta eskainiko dute**

Rico MacClarrin Miamiko abeslaria, bateria-jotzailea eta aktorea da. Bateria jotzen maisua da, eta baita *showman*-a ere. Bestalde, abeslari moduan argi dago ondo menderatzen duela musika beltza deiturikoa.

Marcos Coll, ostera, Europako aho soinularirik onenetakoa da. Los Reyes del KO musika taldeko buru izateaz gain, musika munduko izar handiekin ibili izan da: Buddy Miles, Mick Taylor, Tom Jones...

Gaurko emanaldian Mozambikeko Carlos Dalelane baxu-jotzaileak eta Fred P.G. gitarra-jotzaile frantsesak jardungo dute. Jai giro aparta eskainiko dute.

**Abuztuko emanaldiak**

Abuztuari dagokionez, eguaztenetan izango dira kontzertuak, 22:00etan, Espoloian. Lehenengoa abuztuaren 3an izango da –The Reverendos–; abuztuaren 10ean Xabi eta Petti donostiarra eta beratarra, hurrenez hurren; abuztuaren 17an Mursego eibartarra; eta abuztuaren 24an Zaragoza eta Madrilgo Troublemaker taldea.

# 'Egubakoitzak kartzelan' formatua, bueltan

### Irailean berriro ere errepikatuko dituzte gaztetxeko kanpo agertokiko kontzertuen formatua

A.E. | BERGARA

Maiatzean egin zuten lehenengoz *Egubakoitzak kartzelan* egitasmoa. Egubakoitzetako gauei beste giro bat emateko asmoz, kontzertu lasaiak antolatu zituzten gaztetxeko kanpoaldeko agertokian.

Bada, egitasmoak izan zuen arrakasta ikusita berriro ere antolatzea erabaki dute. "Egubakoitz gauetan sortu zen magia eta normalean gaztetxera etortzen ez den jendearen babesa sentitzea dira ekimena errepikatzeko bi arrazoi nagusiak", adierazi dute antolatzaileek.

**Egitaraua esku artean dute**

Irailean *Egubakoitzak kartzelan II* egitasmoa ekingo dute eta antolatzaileak buru-belarri dabiltza horretan. Hala, dagoeneko erabaki dute ze musikari etorriko diren gaztetxera; oraindik, baina, ez dituzte zehaztu datak.



Mikel Urdangarin Bergaran izango da irailean. | GOIENA

Mikel Urdangarin, Napoka Iria, Giorgio Bassmatti, Civil Love, Saioa, Mara... izango dira, besteak beste, kartzela zaharrean.

Gogoratu behar da gaztetxeko kanpoaldea terraza erara jartzen dutela, giro lasai eta atsegina sortzeko asmoz. Irailetik aurrera izango da bigarren edizioa.





Luis Ugarte, Santi Igartua, Nikolas Igartua, Juan Jose Orueta, Miguel Arregi eta Mikel Arregi, afari-merienda prestatzen. | MIREIA BIKUÑA

# 25. urteurrena ospatuko dute bihar Olabarrietako elkartekoek

- Askotariko ekitaldiak egingo dituzte urtemuga ospatzeko
- Garai baten eskola izandako eraikinean dute elkartea; 61 bazkide dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Felix Lezetak, Juan Jose Oruetak, Santi Legarrek eta Nikolas Igartuak egindako ahaleginari esker dute elkartea Olabarrieta auzoan. Haiek izan ziren sortzaileak eta, kostata, 1986ko uztailaren 25ean elkartea inauguratu zutenak. "Auzoan genuen eraikinarekin zer egin erabakitzeko bildu ginen, eta eztabaida piztu zen: batzuek elkartea gura zuten eta beste batzuek ez. Bigarren bilerara orduko alkate Eli Galdos gonbidatu genuen, bitartekari lanak egiteko. Baina eztabaida indartu egin zen. Hirugarren bileran bost lagun elkartu ginen, eta aurrera egitea erabaki genuen. Auzotarrekin banan-banan egin genuen berba. Gure ametsa bete genuen", esan digu Nikolas Igartuak, sortzaileetako batek.

**Bigarren belaunaldikoei**

Ordutik hona, hamaika bizipen eta istorio izan dituzte auzoan. Horiek guztiak elkarri kontatzeko asmoz, 25. urteurrena ospatuko dute bihar. "61 bazkide gara, gehienak egongo gara bazkarian. Bazkide batzuk Olabarrietan bizi dira, beste asko kalean", esan digu Mikel Arregi presidenteak.

Hasierako estatutuek zioten auzoan bizi izatea ezinbestekoa zela bazkide egiteko. Bada, orain dela bi urte baldintza aldatu egin zuten. "Auzoan gazte gutxi geratzen dira, eta erabaki genuen bigarren belaunaldikoei bazkide egiteko aukera ematea. Eurak dira gehien kontsumitzen dutenak, eta beharrezkoak elkarteak aurrera egiteko. Emakume bazkideak ere baditugu", esan digu Juan Jose Oruetak.

**OSPAKIZUNAK**

**09:00** Etxafuego jaurtiketa.
**09:00-12:00** Ibilaldia auzoan.
**11:00-12:00** Haurrendako jolasak.
**12:00-14:00** Herri kirolen erakustaldia: aizkolariak eta harrijasotzaileak.
**14:30** Bazkaria.
**16:00** Erromeria.
**20:00** Etxafuego jaurtiketa.

Gazteen presentziarik ezak ekarri du Olabarrietako jaien gainbehera. "Orain dela urte batzuk herriko lehenak ziren. Jai *potenteak* ziren, eta giro izugarria egoten zen. Bada, gazte gutxi dago auzoan jaiak antolatzeko. Akaso etorkizunean, gazte belaunaldi berria sortzen denean...", diote.

**Eraikinaren jabetza**

Elkartea egiteko erabakia hartuta, lanak hasi zituzten. Gehiena auzo-lanean egin zuten. "Baina ez bakarrik elkartea, auzoan beste hainbat lan egin ditugu elkarrekin", diote zuzendaritza batzordekoek.

Euren hurrengo erronka elkartearen jabetza lortzea da. "Eraikin erdia auzoarena da, eta beste erdia lortu gura dugu. Aurreko udalbatzak ezezkoa eman zigun. Udala aldatu egin da eta euren asmoak zeintzuk diren ikusi beharko dugu. Jabetza osoa lortzen badugu, 50 urte beteko ditu elkarteak. Ziur", diote.

## Eskola izatetik elkarte izatera

Elkartea egun dagoen eraikinean eskola egon zen. Egun elkarteak duen egitura bera mantentzen du: sarrera leku berean eta bi solairu. Orduko arauak aintzat hartuta neskak eta mutilak gela banatan banatzen zituzten: mutilak ezkerrekoan eta neskak eskuinekoan. Eta irakasleak bigarren solairuan: maisuak ezkerrean eta andereñoak eskuinean. Alde bietan banatzeko ohitura oraindik mantentzen dute auzoko elizako ospakizunetan.



1969-70 ikasturteko Olabarrietako mutilak irakaslearekin. | SANTI IGARTUA

### Nagusien danborradako izen-ematea hilaren 29ra arte

Nagusien danborradan parte hartu gura duten danbor-joleendako (18 urtetik gorakoak) eta dantzariendako (1994. urtean jaiotakoak) izen-emate epea zabalik dago hilaren 29ra arte, kultura etxean edo gaztelekuan. Zozketa irailaren 1ean egingo dute Errekaldeko lokalean, 19:00etan. Era berean, entseguak irailean egingo dituzte.

### Umeendako haur parkea gaur, Ulmak antolatuta

Ulma Taldearen 50. urteurrenaren barruan, 10 urte arteko umeendako haur parkea egingo dute gaur, 16:00etatik 20:00etara arte, Herriko Plazan. Hiru gune egongo dira: 1 eta 2 urteko txikiendako gunea, 3-10 urte artekoendako jolasen gunea eta adin berekoendako tailerren gunea: mozorroak, marrazketa, eskulanak, pintura...

### Enjoy English udalekuetako azken jaia gaur Santa Anan

Txantxiku ikastolako neska-mutikoek Enjoy English udalekuetan parte hartu dute azken asteotan. Bada, agur jaialdia gaur egingo dute Santa Ana antzokian, 18:00etan. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek askotariko ekintzak egingo dituzte euren gurasoen eta lagunen aurrean. Udalekuak bukatzeko merienda egingo dute.

### 'Batetik bestera' argazki lehiaketa gaztelekuaren eskutik

Udako oporren aurretik *Batetik bestera* argazki lehiaketako deialdia egin dute gaztelekuko arduradunek. 12-18 urte arteko gazteendako deialdia da, eta norberak, gehienez, hiru erretratu aurkez ditzake. Izen-emate epea irailean zabalduko dute, eta bi sari banatu: irabazlearendako 150 euro eta bigarrenarendako 100 euro.

### Lizargarte eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Lizargarate trikitizale elkarteak antolatuta ospakizuna egingo dute Lizargaraten abuztuaren 21ean. Dagoeneko salgai ipini dituzte bazkarirako txartelak. Hain justu ere, Urbia eta Umerez tabernetan eta Lizargaraten bertan eros daitezke, abuztuaren 14a baino lehen: langileek 20 eurotan eta langabeek 15 eurotan.

# Madalena jaiak ospatuko dituzte domekara arte

Gaur 20:30ean hasita egingo dituzte Santxolopeztegi auzoan

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Santxolopeztegi auzoan Madalena jaiak ospatuko dituzte, gaur hasita. Eurek hartuko diete lekukoa Trianako jai batzordeko kideei. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte, baina musikak –rock kontzertua eta erromeria– eta Gorritiren animaliek ez dute hutsik egingo.

Gainera, azken urteetan egindako moduan, bihar, zapatua, autobus zerbitzua egongo da Oñatitik Santxolopeztegiraino. Lehen autobusa 23:00etan irtengo da Txaketua taberna paretik eta joan-etorria egingo du orduro.



Santxolopeztegiko auzotarrak herri kirolak ikusten, iaz. | JULIO CALLEJA

**Rock kontzertua**

Ospakizunak gaur bertan hasiko dituzte, 20:30ean. Bertsolarien doinuekin Madalenaren jaitsiera egingo dute. 21:00etan mahaiaren bueltan batuko dira auzotarrak, Gardokiren musikak lagunduta. 01:00etan rock kontzertua egingo dute AMD, Los Cretinos eta Gazte Iraultza taldeek.

Zapatuko egitaraua 13:00etako mezarekin hasiko dute. Bukaeran luncha egongo da.

Arratsaldean txikienendako ekintzak egingo dituzte: 17:30ean Gorritik emanaldia egingo du animaliekin eta 18:30ean puzgarriak ipiniko dituzte.

Gero, musika izango da nagusi: 23:00etan Kupela taldea eta 03:00etan Miren, Agur eta Gorka.

**Herri kirol desafioa**

Domekan meza egingo dute 12:00etan eta gero herri kirol desafioa: Urrutia eta Lizarralde, Urrutia eta Altzolaren kontra. 16:30ean mus txapelketa egongo da eta 20:00etan Madalenaren igoerarekin bukatuko dira jaiak.



ELKAR HEZI

## Udaleku freskoak Elkar Hezin

Ekainaren 29an hasi zituzten udalekuak Elkar Hezi ikastetxean. Bost astean askotariko ekintzak egin dituzte: besteak beste, txangoak, eskulan tailerrak eta ur jolasak. Adinaren arabera banatu dituzte: 2 eta 3 urteko umeek euskarazko udalekuetan dihardute eta 4 urtetik aurrerakoek, ingelesezko udalekuetan. Egunero 09:30etik 12:30era arte batu dira. "Helburu nagusia ondo pasatzea da, baina, aldi berean, euskararen eta ingelesaren erabilera indartzeko aukera izan dute neska-mutiko guztiek", esan digute arduradunek.

## OHARRAK

**TRIANAKO ZOZKETA**

Trianako jaietan egindako zozketaren zenbaki sarituak hauek dira: lehenengo saria –Zelai Zabalen bi pertsonarendako bazkaria edo afaria–, 941 zenbakia; bigarren saria –19 hazbeteko telebista–, 311 zenbakia; eta hirugarrena –urdaiazpiko bat–, 489 zenbakia. Zenbaki sarituek hilabeteko balioa izango dute.

**PLASTIKO BILKETA**

Baserrietan sortutako plastiko zuria eta beltza batuko dute uztailaren 26an. Lau puntutan jasoko dute: Zañartun Zuazola inguruan, Murgian Asentzio ermitaren ondoan, ETEO atzealdean eta Olabarrietako autobus geltokian. Plastikoak aurreko egunean atera beharko dira, 17:00etatik aurrera. Oporren aurreko azken bilketa da.

TWITTER
kontu bana, herri eta gai bakoitzeko
Egin zaitez jarraitzaile!

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena.
Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak... jasoko dituzu.

HERRIAK
Antzuola: @antzuolagoiena
Aramaio: @aramaiogoiena
Aretxabaleta: @aretxagoiena
Arrasate: @arrasategoiena
Bergara: @bergaragoiena
Elgeta: @elgetagoiena
Eskoriatza: @eskogoiena
Oñati: @oinatigoiena

GAIAK
Ekonomia: @ekonomiagoiena
Hezkuntza: @hezkuntzagoiena
Kirolak: @kirolakgoiena
Kultura: @kulturagoiena
Osasuna: @osasunagoiena
Teknologia berriak: @teknonetgoiena
Goiena Kluba: @goienakluba

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Gatibu, Esne Beltza... kontzertu askorekin datoz Andramaixak!

## June Gaztañaga eta Aritz Zugasti alkate txikiek hasiko dituzte jaiak

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Egunotan jasoko dute etxean aretxabaletarrek Andramaixetako egitaraua, oporretan joan aurretik jaietan zer izango duten jakin dezaten. Kontzertuak izango dira aurtengo izarrak, eta, horrekin batera, umeendako jolas berriak ekarriko dituzte.

Andramari jaietan ondo errotuta dauden ekitaldiekin hasiko dituzte jaiak: mus txapelketa, ikurrinaren agurra eta txupinazoa. Eta, iaz egindako legez, aurten ere alkate eta alkateorde txikiek emango diete hasiera jaiei: June Gaztañagak eta Aritz Zugastik. Biak izango dira Andramaixa jaien ordezkari lau egunotan.

Udalbatzaren ardura izango da abuztuaren 14an ikurrinari agurra egitea, alkate txikiekin batera. Andramari eguneko elizbiran, ostera, ez dute parte hartuko eta meza nagusira kide guztiak ez dira joango.

**Kontzertu asko**

Euskal giroko kontzertuak izango dira nagusi jaiotan: Gatibu Andramari egunean eta Esne Beltza abuztuaren 16an. Horrez gain, Oihan Vega disko-jartzaile bergararrak gidatutako dantzaldia izango da bezperan.

Jai girorik falta ez dadin, batukadak –Fantasia Brasileña eta Xoxote taldeak– eta txaranga –Baralde– ibiliko dira kaleetan gora eta behera. Jaiak bukatzeko, Los Cinco Bilbainos boskotearen emanaldia izango da.

Txosnagunean, berriz, beste hainbat kontzertu izango dira: Bizardunak eta Sakakeitan; Gazte Iraultza eta Interprete Desconocido; Goienetxe anaiak; Los Zapilotes Txirriaus…

**Pailazoak eta antzerkiak**

Umeendako jolasei dagokienez, betikoek –buruhandiak, gaztelu puzgarriak…– berriekin egingo dute bat: xaboi-burbuilak egiteko tailerra, egur jokoak… Eta gaztetxoek zezentxoak izango dituzte jolas egiteko, iaz legez, errekortadore eskolari esker. Ikuskizunak ere izango dituzte umeek, pailazoen eskutik: Potxin eta Patxin abuztuaren 15ean eta Kiki, Koko eta Moko 16an.

Helduendako ikuskizunak ere izango dira: Fadunito kale animazioak *La gran familia* eskainiko du 15ean eta Toni La Sal-ek *Birusak erasoan* 16an.

Gainera, sokamuturra izango dute jaien hirugarren egunean zezentxoak gustuko dituztenek eta bazkaltzeko paella egingo dute, azken urteotan legez. Bazkalostean, jokoak antolatuko dituzte Gazte Ekimenekoek eta egun hori ondoen girotutako koadrilek sariak jasoko dituzte.

**Txirrindularitza eta pilota**

Kirolak ere izango du tartetxoa Andramaixetan, hilaren 16an, hain zuzen: goizean, Leintz bailarako 73. txirrindulari lasterketa egingo dute elite eta 23 urtez azpikoek; eta gauean, profesionalen arteko pilota partiduak Iturrigorrin: Arretxe II-Otxandorena, Lemuno-Mendizabal II.ren aurka lehen partidua; eta Berasaluze VIII.a-Albisu, Saralegi-Patxi Ruizen aurka bigarrena.



Xabi Solano gidari duen Esne Beltza taldea izango da abuztuaren 16ean, Herriko Plazan. | ESNE BELTZA

### Abuztuaren 13a ezkero gazteak jaietan

Azken urteotan legez, Gazte Ekimenak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu, txosnagunean egitekoak gehienak, eta jaiak abuztuaren 13an hasiko ditu, txupinazoa bota eta Bizardunak taldearen kontzertuarekin –beste kontzertu batzuk ere izango dituzte–. Gainera, gazte afaria egingo dute abuztuaren 14an eta presoen aldeko bazkaria 16an. Horrez gain, euskaraokea, street boulder txapelketa, galtzontzilo eta kulero lasterketa, zebra muskuiluen ikuskizuna… eta beste hainbat ekitaldi egingo dituzte jai giroa sortzeko. Horren guztiaren berri ere jai egitarauan dator.

**DATUA**

**85.405**

EURO

Jaietako lau egunetako aurrekontua da. Ekitaldiez gain, oholtzak, aseguruak eta beste kontu batzuk daude horren barruan.

# Santiago jai dotoreak ospatuko dituzte egunotan Goroeta eta Ugastegi auzoetan

## Jolasak, bazkari eta afariak, trikitilariak, meza eta beste hainbat kontu dituzte

**M.A.** | ARETXABALETA

Goroeta eta Ugastegi auzoetan Santiago zaindaria izango dute gogoan bihar hasi eta astelehena bitartean egingo dituzte ospakizun ekitaldiekin.

Kanpai errepikak, etxafuegoak eta txikiteoa izango dituzte bihar (19:00) Goroetan, jaiak hasteko. Ekitaldi garrantzitsuenak, baina, domekan izango dituzte: umeendako jolasak (17:00); mus eta briska txapelketak (18:00) eta auzotarren afaria (21:00). Afalostean dantzaldia izango dute *Txome* akordeoi-jotzailearekin eta gautxoriendako txokolate beroa eskainiko dute.

Astelehenean, ostera, meza nagusia izango dute (12:30) eta mokadutxoa gero (13:30) jaiak agurtzeko.

**Jokoak eta zezenak Ugastegin**

Eta Goroetan gora dagoen Ugastegi auzoan ere ospatuko dituzte Santixaoak. Gaur, garbiketa lanak egingo dituzte eta Santa Kurtz ermita apaindu (19:00) eta bihar, zapatua, ekitaldi nagusiak egin: meza Santa Kurtz ermitan (12:30); ondoren, mokadutxoa trikitilariekin; zezentxoekin sokamuturra eta tirolinarekin jolasak.

Goiko Etxeko ganbaran bazkalduko dute gero –jatekoa norberak eroanda– eta arratsaldean ekitaldi gehiago izango dira: karta jokoak –mus eta briska–, euskal kantuak; eta umeendako jolasak: eskulanak, sokamuturra eta, eguraldia lagun izanez gero, tirolina, gezi-jaurtiketa, doke jokoa… Baita dantzaldia ere, trikitilariek girotuta.

Eta domekan jaiak agurtuko dituzte: hamarretakoa (10:00); etxafuegoak (12:00); pontxea Santa Kurtz ermitan (12:15) –gura duenak bueltatxoa Degurixatik–; eta bazkaria (14:30).

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

### Jaialdia eginda agurtuko dituzte udalekuak gaur

Udaleku irekietan ibili diren 285 neska-mutikoek gaur izango dute azken eguna. Ekitaldi mordoa izan dituzte hiru astean: sanfermin eguna, zezentxo eta guzti; jolasak eta eskulanak; irteerak: igerilekuetara irteera; Galartzara gaua pasatzera… Gaur jaialdia izango dute Herriko Plazan. Kantuan eta dantzan egingo dute bertan.

### Josten ikasteko hiru saio egingo dituzte datorren astean

Kultura Sailak antolatuta josten ikasteko eskolak emango ditu Carmen Baquedano adituak: oinarrizko arauak, botoiak josi, praka barrenak moztu…

Hiru saio izango dira, bi ordukoak (11:00-13.00): martitzenean, eguaztenean eta eguenean. 15 lagunendako dute lekua eta debalde dira.

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

### *Anduaga Jatetxea*

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea
ARETXABALETA | 943 79 96 54



### BASABE

**Menuak eta afariak**

Basabe poligonoa
ARETXABALETA 943 77 31 19



### DORLETA TABERNA

*Loteria eta kinielak*

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETA




### Gurea TABERNA

Lotoak eta kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



### HIRUSTA JATETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 06 57



### IOSU taberna haretegia

Urdaitegia-gozotegia
•
Kroasantegia
•
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



### *Matikua jatetxea*

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



### OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko janari prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67



# Alokairuan jarri dute ostera Luis Ezeizako etxea

## Irailetik, alkatearen dedikazio portzentajea %100 izango da

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA
Alokatu barik jarraitzen du Luis Ezeiza ikastetxean dagoen etxebizitzak. Udalak hirugarren saiakera bat egitea erabaki du, eta horren esleipenaren gaineko espedienteari hasiera ematea adostu zuen udalbatzak aho batez eguazten arratsaldeko osoko bilkuran. Interesatuak, besteak beste, gutxienez urtebete baino lehenagotik egon behar du udalerrian erroldatuta, eta urteko 21.000 euro baino gehiagoko diru sarrera ponderaturik ez daukala egiaztatu beharko du.

Osoko bilkura berean, alkatearen dedikazio portzentajearen eta ordainsari mailaren gaineko erabakia onartu zuten. Abuztuaren 30era arte, %40 izango da Herceren dedikazioa eta irailaren 1etik aurrera, %100. Soldatari dagokionez, orain arte MUko Enpresagintza Fakultateko irakasle moduan kobratutako bestea jasotzea adostu zuten.

**Batzordeetako arduradunak**
Bestalde, alkateak hainbat erabakiren berri eman zuen. Jakinarazi zuen bera egon ezean Arantza Iregik (Bildu) jardungo duela alkate moduan; bigarren, Jose Mari Herce (Bildu); eta hirugarren, Iñaki Madinabeitia (Elizateak).

Era berean, gogorarazi zuen hainbat batzorde informatiboren ardura delegatu duela; hain justu ere, Arantza Iregi Gizarte Zerbitzuetako batzordeko presidente izendatu du, Jose Angel Petralanda Kulturakoa eta Leire Urtzelai Garapen Jasangarri eta Parte-hartze batzordekoa.


The Cherry Boppers boskote bilbotarra. | GOIENA

## The Cherry Boppers eta Fiachras, Errekan Gorari amaiera emateko

**M.B.** | ESKORIATZA
Amiera borobila emango diote asteburuan aurtengo Errekan Gora jaialdiari. Gaur, egubakoitza, The Cherry Boppers taldeak *Ramix it again!* izeneko lana aurkeztuko du Santa Marina plazan, 22:30ean. Bihar, ostera, Fiachras izango da Gernika plazan, 19:30ean, *Hiltzera goaz* lanarekin.

Bizitasun eta profesionaltasunez betetako taldea izango dute gaur gauean Santa Marinara joaten direnek. Musika beltzaren eszena magikoa, dotorea eta sormenez betetako taldea da; zenbait adituren ustez, Europako jazz-funk talde hoberenetarikoa. Boskote bilbotarraren lan berria nazioarteko DJ eta ekoizleek egindako nahasketek osatzen dute. Nahasketa lan horretan, All Good Funk Alliance, Lack Of Afro, R de Rumba, DJ Floro, Fundacion Tony Manero, Watch TV eta Makalak parte hartu dute. Funk, rumba eta elektronikaz betetako festa amaigabea eskainiko dute.

**Fiachras, disko berriarekin**
Fiachras ere disko berriarekin etorriko da gurera; hain justu ere, *Hiltzera goaz* izeneko lanarekin. Aurrekoa baino landuagoa eta itsaskorragoa da; punk, rock eta folk doinuek bat baino gehiago saltoka eta dantzan jarriko dute. Gainera, trikiti eta saxoaren laguntzarekin ukitu berezia emango diete kantu berriei.

### Marinen Madalena jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Madalena jaiak ospatuko dituzte asteburuan Marinen. Bihar, zapatua, hasiko dira ospakizunak; Arientzako kanpai-jotzaile eskolakoek hasiera alaitsua emango diete festei, 18:00etan. Iluntzean, ostera, auzo afaria egingo dute, umore onean. 21:00etan hasiko da otordua.

Domekan, ostera, meza nagusia izango dute esandako elizateetakoek, eguerdian. Elizkizunaren ondotik, aperitibo ederra egongo da bertaratzen diren guztiendako; horrela emango zaie bukaera, Marinen, aurtengo Madalena jaiei.


MIRIAN BITERI

## Luis Ezeizako jolastokia konpontzen hasi dira

Luis Ezeiza ikastetxeko kiroletarako kantxa konpontzen dabiltza. Irailera bitartean zorua fresatu egingo dute eta, jarraian, mortero akrilikodun zoru berria ipini. Azkenik, hainbat kirol egiteko marrak margotuko dituzte; hain zuzen ere, areto futbolean, saskibaloian eta boleibolean jokatzeko. Obraren kostua 50.000 euro inguru da.

NIRE USTEZ


IÑAKI KORTAZAR

## Eskoriatzaren mesedetan...

Badoie poliki aurtengo emarixa emunaz Errekan Gora musika ekimena: Aurten be kalitate handiko taldiak ikusteko aukera euki dou uztaileko asteburuetan ziher herrixen eta inguruko auzuetan.

Hasiera Gasteizko Toni La Salek eman zion Errekan Gorari eta izenari men eginez, nire ustez gatz pixka bat falta izan zitzaion emanaldiari, ondoren eta beste formatu batean Ain_1 etorri zitzaigun gurera, aspaldi ikusi gabeko taldeak jende asko harritu zuen emanaldiaz, goxo, sentikor eta ikuslegoarekin konplizitatea lortuz hotela bakarriz ez, errekaren beste aldea bete zuten! Ederra!.

Hurrengoak Audience bizkaitarrak izan ziren; *Amerikanuak* lan berriarekin bailarako jende asko erakarri zuen ikus-entzunezko emanaldi betearekin. Hurrengo hitzordua Malatuk zuen; talde berria baina ez horregatik esperientzia gutxikoa, Musikari profesional hauek Jose Aranako atzealdea betetzea lortu bait zuten ikuslegoaren txalo zaparrada luzeak lortuz. Sokaide talde bizkaitarrak ere Naroaren gidaritzapean Apotza auzoko gaua berezia izatea lortu zuten, folk doinuak eta dantza sueltoan elizatea apainduz.

Baina asteburu honetan ere badago zer ikusi eta zer gozatu, The Cherry Bopper Jazz-funk talde Bizkaitarrarekin eta Fiachras-sen taberna giroko musikarekin. Orduan bai hurrengo urtera arte agurtuko dugu Errekan Gora, baina bitartean gozatu!!!. Eskoriatzaren mesedetan, *sekulorum* sekulotan!.

**"Aurten be kalitate handiko taldiak ikusteko aukera euki dou"**

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
**Konponketak:** Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

# Eguraldiak lagunduta, "oso ondo" joan dira aurtengo jaiak

U. A. | ANTZUOLA

Jai batzordeak asteon egin du aurtengo jaietako balorazioa eta orokorrean "oso ondo" joan direla adierazi digu Jone Larrañaga kultura teknikariak. Euriarekin beldur pixka bat zuten, baina "azkenean eguraldiak ere lagundu zuen".

Jai batzordean ekitaldiz ekitaldi baloratu dituzte jaiak eta arrakastatsutzat jo dituzte honako ekintzak: egueneko kale-afarian eta egubakoitzeko kale-bazkarian uste baino jende gehiago bildu zen; hontzaren jaitsierak jende asko erakarri zuen, adin guztietakoa; egubakoitzean adin ezberdinetarako jolasak egon ziren umeen parkean eta positibotzat jo dute bai ume zein gurasoek; zezentxoetan uste baino jende gehiago egon zen eta hurrengo urterako Zurrategin leku handiagoa emateko asmoa dute; zapatuan ere jende asko bildu zuen Mairuaren Alardeak eta Joselu Anaien erromerian askok jardun zuten dantzan, euria egin arren; domekan ekintza ezberdina izan zen hip-hoparena eta adin guztietako herritarrak bildu zituen; Larrain dantza "inoizko jendetsuena" izan zen.

Txosna batzordeak ere jaien balorazio positiboa egin du egunero jende asko ibili delako bai txosnetan, zein antolatutako ekintzetan.

### Litroak eta zikinkeria

Jaietako negatiboena izan dira kalean litroak edateak eragindako zikinkeria, Ibarrondoko atari batean kristalak apurtzea eta ondorio handirik izan ez zuen borroka bat.

Jai batzordeak eskerrak eman nahi dizkie jaietan modu batera edo bestera parte hartu duten guztiei.



Adin guztietako jendea erakarri zuen hip-hop emanaldiak. | JOSETXO ARANTZABAL

# Zerbitzu minimoetarako harrera zerbitzua egongo da abuztuan

14:00ak arte egongo da zabalik udaletxea

U. A. | ANTZUOLA

Abuztuan jai izango dute Udaleko teknikari guztiek eta harrera zerbitzua egongo da martxan zerbitzu minimoetarako: astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 14:00etara.

Eskolako patio estalia eta pilotalekua zabalik egongo dira abuztu osoan; ez dago ordurik erreserbatu beharrik.

### Liburutegia, itxita

Liburutegia itxita egongo da abuztuaren 1etik 31ra bitartean. Udako ordutegia dago orain liburutegian eta irailean ere ordutegi hori izango da irailaren 12ra bitartean; 11:00etatik 14:00etara.

### Hondakinen bilketa

Antzuolako jaietako aldaketan ostean, hondakinen bilketa ohiko moduan egingo da datorren astean eta abuztu osoan: 21:00etatik 06:00etara bitartean atera beharko dira hondakinak. Norbaitek zerbait nahi izanez gero, udaletxera edo Mankomunitatera deitu beharko du. Emergentzia-gunea erabiltzeko baimena eta giltza udaletxean eskatu beharko dira.

# Urri hasieran bukatuko dituzte eskolan igogailua jartzeko lanak

Uztailaren 6an hasi zituzten lanak eta, oraingoz, "martxa onean" doaz

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Herriko eskolak duen irisgarritasun arazo handiena konpontzeko bidean da dagoeneko. Izan ere, hasita daude eskolan igogailua jartzeko lanetan. 2011. urterako udal aurrekontuetan jasotzen den inbertsiorik handiena da eskolako igogailuarena: 84.412 euro bideratuko ditu Udalak eskolan igogailua jartzeko.

Uztailaren 6an hasi zituzten lanak, eta, guztia ondo joanez gero, irail bukaeran amaituko dute obra zibila. Behin lan horiek bukatuta, igogailua muntatu beharko da; hori urrian egingo dute. Valen Moñux Udaleko aparejadorearen esanetan, "lanak martxa onean doaz eta urrian bukatuta izango dute guztia". Datorren 2011-2012 ikasturtea, beraz, igogailurik gabe hasiko dute eskolako umeek, baina ikasturtea hasi eta berehala izango da martxan.



Igogailuaren egitura dagoeneko jarri dute eskailerako zuloan. | USOA AGIRRE

### Eskailera estutu

Eskolako sarreran dagoen eskailera nagusian ari dira igogailua jartzeko lanak egiten. Eskaileraren zulotik gora jarriko dute igogailua, eta, horretarako, eskailera estutu egingo dute. Obra zibila Bergarako Construcciones Pera enpresa ari da egiten; igogailua, berriz, Donostiako Muguerza Igogailuak enpresak jarriko du.

### Komun berriak

Igogailuko lanez gain, beste lan batzuk egiten ere ari dira eskolan. Eskolako lehenengo pisuan, bi urteko gelen inguruan, komunak egiten ari dira. Lan hauek Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu eta bere esku dago gastu eta kudeaketa guztia.

Komunak egitearekin batera eskolako fatxadan edo aurrealdean aldaketak ere egingo dituzte. Izan ere, leihoa irekiko dute lehenengo pisuko komun berrietan eta goiko pisuan ere, fatxadaren itxura bat etortzeko, leiho bat aterako dute, eskolaren itxura pixka bat aldatuta.

## NIRE USTEZ



ALAITZ JAUREGI

# Zenbat urte izengo die?

Gaur goizian denda aurria eskobiakin garbitzen niharduan bittartian, urte dexente dala pasau zan gauza bat etorri jat burura, gaurko moduko egun baten, urte batzuk atzerau, baina oingo moduan jaixen ondoren pasau zana. Gehixenok honezkero badakizue zertaz nabillen; gure herrixan egon zian uholdietaz dihardut hain zuzen be. Benetan gogorra izen zan haura dana bizi izetia, zelako desastria, zelako sustuak eta bildurrak, zelako galerak... gogorra benetan geure herrixa egoera horretan ikustia, ondio markak be nabarmenak dia; denda batzutan ipinitta dago noraino allegau zan ura.

Baina ez dot nahi oroitzapen triste eta penagarri bat gogora ekartzia, baizik eta uholde harek ekarri zittuan gauza positibuak akordau eraitxia baizik. Ez jat sekula ahaztuko zela danok irten giñuan kalera eta bakoitzak ahal zeban eran bai herrixa garbitzen eta bai herrittarrei be laguntzen jardun, berdin zan ze eta zela eitten zan, danon helburua iguala zan: herrixa bere onera bueltatzia eta ahal zan neurrixan danok geure bizitza normala berreskuratzia. Baitta lortu be! Beittu bestela zelako edarki aurrera etara dogun danon herrixa! Eta onena da danon artian lortu doula, elkarlanian eta alkarri laguntzen. Beraz, momentu triste bat gogoratu biharrian, zorion eta eskerrik asko on bat jaso deigun! Gora Antzuola ta antzuolarrak!

**"Uholde harek ekarri zittuan gauza positibuak akordau erain nahi dittut"**

# Haurreskolan plazarik gabe geratu direnek izena eman dezakete udaletxean

U. A. | ANTZUOLA

Irailean hasiko den ikasturte berrirako ez dago, oraingoz, ume gehiagorendako lekurik; 21 plaza daude eta kupoa beteta dago.

Hala ere, Udalean eta haurreskolan jakin nahi dute kanpoan geratu direnetatik zenbat umek izango luketen haurreskolan sartzeko asmoa ikasturte berrian, hurrengorako zerbait pentsatzeko. Udaletxean eman beharko dute izena haurreskolan sartzeko asmoa dutela azalduta.

### Irailaren 6an kurtso berria

Gaur, egubakoitza, bukatuko dute ikasturtea haurreskolan, eta, abuztuko oporren ostean, irailaren 6an hasiko dute ikasturte berria herriko bi urtera bitarteko umeek.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Iaz udan jarri zuten lehenbizikoz igerilekua Aramaion, Bañera parkean. | GOIENA

# Aurtengo udan ez da gaztetxoendako igerilekurik izango Bañera parkean

Joan den urtean jarri zuten lehenbizikoz 12 urtetik beherakoendako; gaia aztertzeko nahiko denbora izan ez dutela dio Lierni Altuna zinegotziak

**EDU MENDIBIL** | ARAMAIO

Aurten ez da Aramaioko gaztetxoendako igerilekurik izango. Iaz jarri zuten lehenbiziko aldiz 12 urtetik beherakoei zuzendutako igerilekua, Bañera parkean, eta nahiko harrera ona izan zuen neska-mutikoen artean. Uztailaren bukaeran ireki zuten eta abuztuaren 29ra arte izan zen zabalik; Iker Beitia gazteak jardun zuen sorosle lanetan.

Lierni Altuna udal gobernulko bozeramaleak baieztatu digunez, aurten ez dute igerilekurik jarriko. Altunaren arabera udaletxean ez dute nahiko tarte izan igerilekuaren kontua aztertzeko. "Maiatzean hasi ginen udaletxean eta ez dugu denborarik izan gaiari behar bezala heltzeko, beste hainbat konturekin lanean ibili garelako. Hala ere, datorren urtean aztertuko dugu igerilekua jarri ala ez" adierazi digu Lierni Altunak.

**Gaztetxoendako irteerak**

Bestalde, Udaleko kultura zerbitzuak antolatuta, uztailaren 27an Urdaibain kanoan zeharkaldia egiteko aukera izango dute Aramaioko gaztetxoek. Era berean, uztailaren 29rako surf ikastaroa iragarri dute Zarautzen. Oraingoz 11 lagunek eman dute izena surf ikastarorako. Jarduera bakoitzaren prezioa 10 eurokoa da eta izenematea martitzenera arte, hilaren 26ra arte, dago zabalik. Kasu bietan irteera 10:00etan egingo da Aramaiotik eta itzulera 18:00ak aldera. Interesatuek udaletxera jo beharko dute izena ematera.

## 1950eko aramaioarrak, Kroaziara abuztu amaieran

**E.M.** | ARAMAIO

1950ean jaiotako aramaioarrek Kroaziara joateko bidaia antolatu dute aurten. Hain zuzen ere, abuztuaren 29tik irailaren 5era bitartean izango dira Kroazia aldean. Hamabost lagun (gizonak zein emakumeak) dira Kroaziara bidaia egingo dutenak. Esan bezala, abuztuaren 29an egingo dute irteera Loiuko aireportutik Dubrovnikera. Astebete igaroko dute Kroazian.

**Hiru egun Dubrovniken**

Bidaiako lehenbiziko hiru egunak Dubrovniken emango dituzte aramaioarrek; Itsaso Adriatikoko turismo gune ederrenetako bat da Dubrovnik. Handik Opatija eta Rijeka aldera joango dira. Era berean, beste hainbat leku bisitatuko dituzte, Split, Sibenik, Zadar edota Krk esate baterako eta guzti horien inguruak ere bai. Ilusioz antolatu dute Aramaioko kintoek udako bidaia. Kroazia aldeko jendea eta ohiturak ezagutzeko irrikaz daudela azpimarratu digute antolatzaileek.

Lehen aldiz da 1950ean jaiotako aramaioarrek horrelako bidaia bat antolatzen dutela. Orain dela hilabete batzuk hasi ziren antolaketa lanetan eta pozik dira jasotako erantzunarekin. Esan bezala, hamabost lagun joango dira. Itzuleran izango dute zer kontatu, zalantzarik ez.

### Murugaingo indusketan auzolana domekan eta bisita gidatua hilaren 31n

Murugaingo indusketan Espainiako gerrako trintxerak lokalizatu eta lubakion mapa egingo dute domekan, hilaren 24an. Irteera udaletxetik egingo dute, 09:30ean.

Bestalde, datorren domekan, uztailaren 31n, bisita gidatua izango da Ondare Babesa enpresako Etor Telleria arkeologoaren eskutik. Ekintzotan parte hartzeko izena eman behar da udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

### Ezinduendako laguntzak: eskaerak, irailaren 1era arte

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak pertsona ezinduei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 1ean amaituko da. Argibide gehiago nahi izanez gero, udaletxeko gizarte laguntzailearen bulegoan jaso dezakete interesatuek.

### Hurrengo ohiko udalbatza irailean izango da

Eguaztenean, hilaren 27an, ez da osoko bilkurarik izango. Hurrengo ohiko osoko bilkura irailean izango da. Udalbatzak hileko azken eguaztenean egitea adostu zuten alderdiek, eta, beraz, irailaren 28an izango da hurrengoa. Abuztuaren hasieran, dena den, ezohiko osoko bilkura bat egiteko asmoa daukate.





## Zuiako Umeen Euskara Eguna

Udalekuetan ibilitako gaztetxoak Izarran izan ziren martitzenean, Zuiako Koadrilako Umeen Euskararen Eguna ospatzen. Aramaiotik 80 bat gaztetxo eta 11 begirale joan ziren Izarrara. Hantxe, Legutio, Durana, Ondategi, Murgia eta Izarrako neska-mutikoekin elkartu ziren eta egun ederra igaro zuten: zezen mekanikoa, tailerrak, puzgarriak, haur diskoteka eta bestelako jarduerekin primeran ibili ziren denak.

ANA MUÑOA

ELGETA

# Seinale berriak ipinita lubakietarako ibilbidean

Oporrak aukera polita izan daitezke ibilbidea nork bere kabuz egiteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Laster dugu hemen abuztua, eta horrekin batera ordutegi eta zeregin berriak gehienondako. Gipuzkoako Mendi Federaziotik adierazi digute Intxortako ibilbide tematikoan egitekoak ziren seinalizazio lanak amaitzear daudela. Gezi formako seinaleak ipini dituzte eta leku esanguratsuenetara nola iritsi adierazten dute, baita zein koloretako seinaleak jarraitu behar diren eta ze distantziatara dauden ere.



Seinale berri bat gudarien monolitoaren ondoan. | L.Z.

**Bisita gidatuak, hiru**

Ibilbidea gidari baten azalpenak entzunez egin nahi izanez gero, oporrotan hiru bisita gidatu egingo dituzte: uztailaren 31n eta abuztuaren 7an eta 28an, guztiak domekan. Ibilbidea kafe antzokitik abiatuko da 10:00etan eta hiru bat orduko iraupena du. Lehendabizi, Interpretazio Gunea bisitatzen da, eta ondoren bost kilometroko ibilbide tematikoa oinez egiten da. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea –943 71 89 11 edo 943 79 64 63–. Prezioa da bi euro 6-16 urte bitartekoendako eta bost euro 16 urtetik gorakoendako.

**ZERBITZUAK**

| IZENA | ORDUTEGIA |
|---|---|
| **Udala** | Zabalik goizetik; txirrina jo |
| **Udal Liburutegia** | Itxita hil osoan |
| **Anbulatorioa** | Ohiko ordutegia |
| **Julian** | Zabalik goizetik |
| **Kutxa** | Ohiko ordutegia: 08:00/14:30 |
| **Ugari** | Zabalik goizetik; 08:30-13:00 |
| **Erdiko denda** | Itxita 15etik 29ra, bestela goizetik |
| **Goikoetxea harategia** | Goizez + bariku arratsaldetan zabalik |
| **Arrandegia** | Itxita 15etik 28ra |
| **Farmazia** | Zabalik goizetik |
| **Irama denda** | Itxita 8tik 27ra ; bestela goizetik |
| **Irama elektrizitatea** | Hil osoa zabalik |
| **Ana liburu denda** | Itxita 1etik 28ra |
| **Elgeta autoak** | Itxita 1etik 15era; bestela goizetik |

**Salbador eta San Roke jaiak**

Antolatzaileek lanean dihardute eta Salbadorrak abuztuaren 6an izango dira. San Roke jaiak, berriz, abuztuaren 16an.

## Landetxeetan abuzturako erreserba gutxi

L.Z. | ELGETA

"Uztaila polito joan da, baina abuzturako ezer gutxi mugitu da", adierazi digute Barrenenguan. Eguzkitzan ere berdina gertatzen zaie: "Egia da abuztuan azken momentuko erreserbak direla nagusi, baina, oraingoz, ez dago ezer".

Urteroko joera da, Elgetara etortzen diren bisitariek ez dute erreserba aurrerapen handiarekin egiten. "Kostaldea aukeratzen dute lehenengo eta hura betetakoan hasten gara gu deiak jasotzen", adierazi digute Eguzkitzan.

Gauzak horrela, espero dute krisiak eragin handirik ez izatea aurtengo udan. "Espero dezagun datozen egunetan gauzak apur bat gehiago mugitzea, oraingoz ezer gutxi dago -eta".

## Goimendi auzoko Santixauak, domekan eta astelehenean

L.Z. | ELGETA

Urtero moduan, berakatz-zopekin hasiko dituzte Santixau jaiak Goimendin. Domekan izango da hori, 21:30ean. Dantzarako aukera ere egongo da jaien lehenengo egunean; Astiazaran II.a eta Agurtzane trikitilariek erromeria egingo dute, 23:00etan hasita. Goizeko ordu txikiak arte ariko dira.

**Santixau eguna**

11:00etan entzungo dute meza Goimendiko ermitan eta hortik aurrera egitarau zabala egongo da. Eguerdira bitartean bertsolariak eta haurrendako jolasak eta arratsalderako herri kirolak, bolo txapelketa, bertso saioa eta erromeria. Bertsotan Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze ariko dira.


Erromeria Goimendi auzoko jaietan. | L.Z.


AISIALDIKO HEZITZAILEAK

## Asteon margo erraldoia eta gaur irteera Omara

Marrazki erraldoia egin dute asteon udalekuetako neska-mutikoek. Eskuak pinturatan sartu eta nork bere zirriborroa egin du *Geure txikitasunian artista haundixak garelako!* jartzen duen horman. Gaur, barikua, irteera egingo dute. Herriko Plazatik 09:00etan abiatuta Oma harana eta Agustin Ibarrolaren *Baso margotua* bisitatuko dituzte. Umeak 17:00etan itzuliko dira Elgetara.

LEINTZ GATZAGA

# Andramari jaiak gertatuta ditu Kultura Sailak irailaren 7tik 11ra bitartean ospatzeko

Rock kontzertua, herri kirolak, skate erakustaldia, pilota partiduak...

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Irailaren 7an hasi eta 11ra bitartean izango dira Andramari jaiak, eta Kultura Sailak dagoeneko gertatuta dauka egitaraua. Urtero arrakasta duten ekitaldiak errepikatuko dituzte, eta jai giroa ziurtatuta izango da.

Bost eguneko jaiak ospatuko dituzte aurten, Dorletako amaren eguna irailaren 8a da-eta. Hain zuzen, egun horretan etorriko dira Otxandiotik egun-pasa egitera eta Ama Birjinaren omenezko meza nagusia izango dute Eskoriatzako abesbatzarekin.

Irailaren 9an herri kirolak eta gaueko rock kontzertuak izango dira protagonistak. Horiekin batera umeendako puzgarriak eta gaztetxoen pilota partiduak izango dira; 10ean, skate erakustaldia, herri afaria eta bolo txapelketa daude, baita dantzaldia ere Basajaun taldearekin; eta 11n, domeka, mendi bizikleta zeharkaldia eta pilota partiduak.

**Pilota txapelketako finalak**

Martxoa ezkero jokatzen dabiltzan Dorleta pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte jaiotan. Irailaren 9an gaztetxoen txanda izango da (17:00): benjaminak –A eta B taldeak– kimuak, haurrak eta kadeteak.

Beterano eta federatuen finalak, ostera, irailaren 11n izango dira, domeka (17:00), eta tartean Gatzagako bikotea dago. Hona partiduak: bigarren mailako beteranoak: Azpilikueta-Korta I.a (Arrasate), Heriz-Bengoa gatzagarren aurka; lehen mailako beteranoak: Zuazua-Pozo (Arrasate), Lizarralde-Alzolaren aurka (Aretxabaleta); federatutako gazteak: Arabaolaza-Etxagibel (Arrasate), Arregui-Prietoren aurka (Arrasate); eta federatutako helduetan eskoriatzarren arteko norgehiagoka izango da: Urrutia -J.Zubizarreta, Oiarzabal-E.Zubizarretaren aurka.



Sustrai Aloñako mutilak denboraldiko azken partiduan, etxeko zaleen aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOIA

# Irailaren 10ean hasiko du Aloñak denboraldia, kopan

## Iraurgiren kontra jokatuko dute kanporaketa, Zubikoan

XABIER URTZELAI | OÑATI

EBA mailan estreinaldia egin aurretik Aloña Mendik kopako kanporaketa batekin hasiko du, irailean, denboraldi berria.

Hala, Igartuaren eta Alartziaren mutilek irailaren 10ean, zapatuan, Lan Mobel Iraurgiren bisita izango dute Zubikoan. Eta, lehenengo partidu horrek balioko du denboraldi berrian etxeko partiduetan Oñatikoek izan behar duten babesa zenbatekoa izango den neurtzeko. Eta, baita denboraldi berrian erakuts dezaketen joko mailaren lehen pistak azaltzeko ere, nahiz eta balorazioak egiten hasteko oso goiz izango den oraindik.

Aurrean izango duten kontrarioa ez da makala, zilarrezko LEB mailan dagoen Lan Mobel Iraurgi. Logikak dio azpeitiarrek egin beharko luketela kanporaketa horretan aurrera, baina oñatiarrak ezustea ematen ahaleginduko dira, gutxi dute-eta galtzeko. Kanporaketa partidu bakarrera izango da; ez da itzuliko norgehiagokarik izango.

### KOPAKO TALDEAK

- ▶ Santurtzi
- ▶ Lan Mobel ISB
- ▶ Aurteneche M. Alava
- ▶ Cafes Aitona
- ▶ Zornotza Saskibaloi Tald.
- ▶ Easo Pastas Arruabarre.
- ▶ UPV/EHU Araba
- ▶ Aloña Mendi

**Ligako zozketa, hilaren 29an**

Euskal kopak balioko du aurre-denboraldiari pizgarria emateko, baina benetako erronka urriaren 1ean hasiko du Aloña Mendik, liga. Eta, konpetizio horretan izango duen egutegia hilaren 29an argituko du federazioak, zozketa bidez.

**Ointxekoak Tafallara**

Bestalde, Arrasateko klubeko ordezkariek bidaia batekin hasiko dute datorren denboraldia. Hala, aurre-denboraldiaren barruan irraileko bigarren asteburuan (irailak 10 eta 11) Tafallara joango dira klubeko talde guztiak –infantil mailatik seniorretara arte. Asmoa da klub moduan talde guztietako kideek elkarrekin igarotzea asteburua, eta lagunarteko hainbat norgehiagoka jokatzea.

AKUATLOIA

## Andoni Correas akuatloian azkarrena

Zapatuan Plentziako akuatloian Andoni Correas Oñatiko Triatloi Taldekoa izan zen irabazlea (33.18), eta aldi berean, Euskadiko txapeldun ere izan zen. Correasekin batera, Mikel Muxika bergararra (Antxintxika) bosgarren geratu zen sailkapen orokorrean, eta 23 urtez azpikoen mailan ere Euskadiko txapeldun izan zen (34.05). Eta ibarreko ordezkarien artean, Ritxar de Goñi (Antxintxika) gutxigatik ez zen podiumera igo, laugarren egin zuen–eta (33.41). Lasterkariek 5.000 metro egin zituzten korrika, eta 1.000 metro igeri.



I.PEREZ


TELEBISTAREN IRABAZLEA



JESUS BELAMENDIA AGIRRE (Elgeta)

16 hazbeteko LCD telebista

ZORIONAK!

EROSKI

EUSKALTELEKO KAMISETEN IRABAZLEAK

Aitor Belastegi Aranzabal (Antzuola)
Marijo Erostarbe Garitano (Oñati)
Floren Arana Barandiaran (Arrasate)
Jose Ramon Lasaga Arana (Oñati)
Jon Ezpeleta Calvo (Arrasate)



euskaltel

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

PILOTA

# Dorletako Ama txapelketako azken finalistak domekan

## Irailaren 9an eta 11n jokatuko dituzte finalak, Leintz Gatzagako pilotalekuan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Dorletako Ama pilota txapelketako azken finalistak erabakiko dira domeka goizean Gatzagan, 10:00etan hasita. Hala, domekako hitzorduarekin amaituko dute txapelketako lehen fasea, kanporaketena. Eta, abuztuan atseden hartu ostean iraileko bigarren asteburuan jokatuko dituzte esperotako finalak: "Irailaren 9an, egubakoitzean, gaztetxoenen txanda izango da, aurre-benjamin kategoriatik hasi eta kadetetarainokoek jokatuko dute. Eta, domekan gazte mailakoetatik hasi eta beteranoetara artekoek jokatuko dute", adierazi du txapelketaren antolatzaile Mauri Zubillagak.

**Espero ez zuen arrakasta**

Dorletako Amako txapelketak izugarri girotu ditu Leintz Gatzagako domeka goizak: "Ez nuen uste horrenbeste jende animatuko zenik pilotan jokatzera. Pentsa, beteranoen mailan hamalau bikotek eman dute izena eta dagoeneko Bergarako eta Oñatiko jendea hasi zait deika, hurrengo edizioa noiz antolatuko dugun galdetzen".

Bada, Zubillagak ez du zalantzarik, Dorletako Amako txapelketak izango ditu edizio gehiago: "Helburua Gatzagako herrian giro apur bat jartzea zen, eta horrekin batera pilotariei jokatzen jarraitzeko hitzordu bat jartzea, beteranoendako, esaterako. Baina, garbi daukat irailetik martxora arte ez dudala txapelketarik egingo, ez bada hilean partiduren bat edo beste. Hori bai, martxoko lehen domekatik uztailera arte partiduak antolatuko ditugu Gatzagan".



Uztaileko bigarren domekan jokatutako partiduetako batean, pilotariak lehian. | JOSETXO ARANTZABAL



IBON IRASTORZA

MENDI

## Besaidekoak Bizkaiko kostaldean

Bizkaiko Biraren 5. etapa egin zuten joan den domekan Besaide mendizale taldeko 30 kidek, eta oraingoan Bilboko itsas adar inguruan ibili dira. Eguraldi nahasi samarra izan zuten, baina hori gutxienekoa izan zen. Plentzian hasi, eta handik Galeako muturrerainoko tartea egin zuten lehenbizi. Sopelanan hamarretakoa egin, eta Areetaraino joan ziren, Bizkaiko zubiraino.

MENDIA

## Leire Ezpeleta lehen emakumezkoa G2haundiak proban

Joan den asteburuan Beasainen hasita egin zuten *Ehun miliak* probarekin batera antolatu zuten, baita ere, G2haundiak lasterketa (82 km) eta emakumezkotan Leire Ezpeleta arrasatearra izan zen azkarrena (16:56). Bedoñakoaren atzetik sailkatu ziren Vicky Romero (17:29) eta Carmen Cases (19:06).

TXIRRINDULARITZA

## Abuztuaren 16an ziklismo lasterketa Aretxabaletan

Andramari jaien barruan Euskaldun trofeorako baliagarria izango den txirrindularitza lasterketa egingo dute datorren abuztuaren 16an Aretxabaletan. Euskal Herriko sari luzeena da Euskalduna, 29 lasterketa ditu-eta bere baitan, eta Aretxabaletakoa egutegiko 20. lasterketa izango da.

"Goiena beti doa pauso bat aurretik"

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaia

GOIENAK IRABAZI DU 2011KO RIKARDO ARREGI SARI NAGUSIA

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

Zuei esker.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

# UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

## Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *goiena.net/blogak/argazkiak*



LARA GONZALEZ



IDOIA ITURRALDE



MIGUEL DE GANESHA

**Har ezazu parte!**

## Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak



**1. saria**

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.
- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.



**2. saria:** Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: kb photoestudio www.kbphotoestudio.com Panasonic LUMIX; GURE AMETSA JATETXEA; ARRASATE BIDAIAK

# KULTURA

# Errepresioa, iruditan jasoa

- 'Gerrako garrak Oñatin' liburua eta dokumentala azaroan argitaratzea da asmoa
- Aste bukaeran egin dituzte birsorkuntza lanak Oñatiko Irudiz enpresako lagunek

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Oñatiko kaleak zinema-plato bihurtu zituzten joan den aste bukaeran. Zoritxarrez, baina, han bizi izandakoak ez ziren fikziozko gertaerak izan; 30eko hamarkadan gertatutakoak erreproduzitu zituzten, *Gerrako garrak Oñatin* izango den dokumentala ekoizteko.

Ikus-entzunezko historikoa izango da eta 36ko gerran Oñatin bizi izandako errepresioa jasoko du. Gogoratu Guran Taldea dabil *Gerrako garrak Oñatin* liburua idazten –Intxorta 1937 kultura elkartearekin batera–; eta, hain zuzen, euren aginduetara egin dute Oñatiko Irudiz enpresakoek dokumentala.

**Elkarrizketak eta gertaerak**

Kepa Aranburuk egin ditu zuzendari lanak, argazki zuzendari lanak eta kameralari lanak; eta Aitor Perosterena atrezzoaz arduratu da. Muntaia ere Aranburuk egingo du. Dokumentala zuzentzen eta gainbegiratzen Gogoratu Guran Taldekoak ibili dira.

36ko gertakariak jasotzeko bi estilo erabili dituzte: batetik, elkarrizketak egin dituzte, 40 baino gehiago; bestetik, gertaeren birsortzea egin dute. Horretarako, liburuan oinarritu dira.

**Hiru pasarte**

Hiru gertaera jasoko ditu dokumentalak: Ormaiztegiko zubipean Antonio Galdos, Guillermo Martinez eta beste gazte bat fusilatu zutenekoa, Balentin Arkauzen erailketa Oñatiko udaletxean eta Oñatiko hamar emakume ilea moztu eta manifestazioetara joatera behartu zituztenekoa.

Hiru gertaerak Oñatin grabatu dira. Ormaiztegiko zubiko fusilamendua Casablancan egin zuten; Balentin Arkauzen erailketa Gomendio etxean egin zuten; eta emakumeen manifestazioa, behean ezkerreko irudian, San Anton kalean. "Ilea mozteko unea Santa Anan egin genuen", azaldu du Kepa Aranburuk.



Axier Martin , Ruben Idigoras eta Angel Agirre aktoreak, fusilatuen paperean. | JUAN RAMON GARAI

**ESANAK**

**"Aktore ez profesionalak izateko, oso ondo ibili dira"**

KEPA ARANBURU | ZUZENDARIA

**"Gerran hil zirenen aurpegi batzuk falta zaizkigu"**

JUAN RAMON GARAI | ARDURADUNA

Lantaldearendako, kokapenak bilatzea izan da zailena: "Eta baita ilea moztuko zuten emakumeak topatzea ere", dio Aranburuk. Atrezzoari dagokionez, Perosterenak dio: "Zailena kriseilua topatzea izan da; militar arropak alokatu egin ditugu, Madrilen, eta gainerakoak etxetik hartutakoak dira".

Hain zuzen, arropari buruzkoak izan dira grabazioan zehar izan dituzten eragozpenak: "Hau horrela ez zen eramaten... ".

Talde teknikoan 15 bat lagun ibili dira lanean, eta aktore eta figurante moduan 30etik gora. "Esan behar dut aktore ez profesionalak izateko bikain ibili direla, oso ondo. Umeak, nagusiak... sorpresa handia hartu dut", dio Aranburuk pozik.

**Hildakoen aurpegiak topatzea**

"Liburua osatzeko gerran hil zirenen argazki batzuk falta zaizkigu –ondoan zerrenda–. Horretarako, oñatiarren laguntza behar dugu", azaldu du Juan Ramon Garaik, Gogoratu Guran Taldeko kideak. Informazioa duenak dei dezala 678 24 20 31 telefonora edo idatz dezala *garaibengoa@hotmail.com* helbidera.

## FALTA ZAIZKIEN AURPEGIAK

**FUSILATUAK**

- Jose Kortabarria Laborda
- Jose Lete Ugarte
- Francisco Arrizabalaga
- Markos Aldazabal Etxebeste
- Guillermo Martinez

**GUDAN HILDAKOAK**

- Pablo San Pedro Lizarralde
- Juan Kortabarria Zubia
- Alejo Oñate Astigarraga
- Pablo Azkargorta Akisu
- Lorenzo Balantzategi Otamendi
- Benito Etxaniz Ugarte
- Gregorio Ugarte Ugarte
- Esteban Ugarte Urtzelai
- Francisco Soriano Domenech
- Jesus Zufiria Balantzategi
- Migel Andoaga Unamuno
- Pedro Agirrebengoa Altzelai
- Jose Altube Basauri
- Claudio Galdos Erle
- Jose Kortabarria Laborda
- Teodoro Igartua Letamendi
- Ignacio Rodriguez Iruretagoiena
- Santos Aiastui Zugazti
- Pedro Barrena Elortza
- Angel Guridi Txintxurreta
- Ramon Elortza Guridi
- Juan Jose Mendiola
- Pascual Irusta Aiastui
- Leon Perez Ganzarain
- Nicasio Letamendi Elizburu

Gogoratu Guran taldeak emandako izenak dira.



Manifestazioa irudikatzen, San Anton kalean. | JUAN RAMON GARAI



Kantonosten, grabatzen. | J.R. GARAI



Ilea mozteko unea. | JUAN RAMON GARAI




# Ferreriasko Jaiak 2011

## Uztailaren 26a, martitzena

**08:00etan** Etxafuego jaurtiketa.
**12:00etan** Txistularien kalejira.
**17:00etan** Umeendako jolasak.
Zaku lasterketa.
Umeendako lasterketak.
Jokoak eta lehiaketak.
7 eta 14 urte artekoendako lasterketak.
Txokolate–jana.
**19:00etan** Meza parrokian.
**21:00etan** Herri afaria. Txartelak salgai Tamaion. Azken eguna uztailak 22
**23:00etan** Musika eta dantzaldia.

ILEAPAINDEGIA
ILEA
943 79 87 62

angela
estetika zentroa
Ferrerias 35 • Tel.: 943 79 88 23
www.angelaestetika.net

MERKEKILO
Oihalak
Gortinak
Ferrerias 5 Tel.: 943 79 15 00

EUSKAL HERRIA AURRERA!!!
IRATI TABERNA
EZ GAUZ BAKOK!!!
FERRERIAS 27 • ARRASATE
TEL.: 943 79 56 11

BASATI TABERNA
Ferrerias kalea 19
943 71 17 68

Gorka
ile apaindegia
Tel.: 943 77 13 78

Mikropigmentazioa
Zilarra
Opariak
AKER
Tattoo & Piercing
Tlfno: 943799284
Ferrerias 44 behea

URIZAR
ostatua
logelak bainu pribatuekin
Ferrerias 15
Tel.: 943 79 12 93


Orkeseos taldeak 26 urte darama Fontibon herriko gazteak eta helduak dantzan hezten. | ORKESEOS

# Kolonbiako folklore dantzak dira gaur ikusgai Bergaran

Kolonbiako Orkeseos dantza taldeak emanaldia egingo du herriko plazan

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Urtero data hauetan bezala, folklore jaialdiaz gozatu ahal izango dugu Bergarako San Martin plazan. Emanaldia gaur, egubakoitza, izango da, 20:30ean, eta oraingoan Kolonbiako dantza talde onenetariko baten emanaldia izango dugu: Orkeseos Dantza Konpainiarena, hain zuzen ere.

Ikuskizuna eta hezkuntza helburuak batzen ditu talde horrek. Raul Ayala Morak sortu zuen Orkeseos 1985ean, Fontibon herriko jendarte eta kultura parte-hartze programa baten barruan. Herriko umeak, gazteak eta helduak dantza folklorikoan hezten eman dituzte 25 urte baino gehiago.

## Unescorekin lanean

Kolonbian eta kanpoan 300 emanalditik gora eginda, Kolonbiako dantza talde onenetarikotzat dute Orkeseos. Umeen eta gazteen aldeko Rocin izeneko nazio-sareko kide dira, eta Unesco eta Haz Paz erakundeek Kolonbian antolatutako bi topaketetan izan dira.

Instrumentu asko erabiltzen dituzte, tradizionalak eta modernoak: latindar multiperkusioa (bateria, kongak, tinbalak, bongoa eta guiroa), folklore-perkusioa (tanbora, alegrea, guaza, txutxoa, zerria eta beste batzuk), txirulak (quena, gaitak, kainabera, milloa…), saxofoi altua eta tenorea, tronboi tenorea eta baxua, klarinetea, tiple rekintoa, gitarra, bandola, baxu elektrikoa eta teklatua.

# Emakumeek sortutako musikak girotuko du gaztetxea

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Ez da ohikoa taula gainean emakumez osatutako taldeak ikustea. Bada, Arrasaten bihar, zapatua, bost emakume igoko dira taula gainera. Lanzarotetik etorrita, Sobrelamarcha taldeak alaitasuna eta freskotasuna ekarriko ditu gaztetxera.

## Ahotsarekin jolastuko dute

Musika freskoa egiten dute, eta nabarmendu dute gutxi entzuten diren abestiak eskaintzen dituztela. Hainbat instrumenturen laguntza izaten dute abestiak interpretatzeko orduan; baina, eurei gehien gustatzen zaiena da ahotsarekin jolas egitea. Hori da Sobrelamarcha taldeko neskendako instrumentu gogokoena. Bada, ahots berriak entzuteko aukera paregabea egongo da bihar.

## 2007an estreinatu ziren

Hasierako taldea sei emakumek sortu zuten: "Nahikoa osagai genuela erabaki genuen eta entseatzen hasi ginen", azaldu dute euren webgunean. 2007an eskaini zuten lehenengo kontzertua La Gaviota hondartzan. Ordutik hona, hainbat hoteletan eskaini dute euren musika, eta elkarteei laguntzeko jaialdietan ere izan dira behin baino gehiagotan. Taldearen une gorena 2010a izan zen: Lanzaroteko Cabildoak Ironman lehiaketako sari banaketa ekitaldian parte hartzeko deitu zien.

Gitarrak, baxua, teklatua, bateria... dira taldearen osagaiak; eta eskaintzen dituzte, besteak beste, Amy Winehouse, Tina Turner, Katy Perry, Manolo García eta Rosendoren abestiak.


Bost emakumek osatzen dute taldea. | GOIENA

# Moby Dick-ek egubakoitz iluntzea gozatuko du Antton tabernan bere folk-rockarekin

Gitarra akustikoa eta ahots sakona dira bakarlari horren ezaugarriak

L.K. | OÑATI
Azken boladan, kontzertu asko antolatzen dabiltza Oñatiko Antton tabernan. Oraingoan, askok hasi berri dituzten udako oporraldiari gogoz eusteko, Moby Dick bakarlari getxoztarraren emanaldia antolatu dute. Gaur, egubakoitza, izango da, Euskadi Etorbideko taberna horretan, 20:30ean. Sarrera doan da.

## Artista nabarmendua

Eneko Burzako bakarlariak, Moby Dick izen artistikotzat, ahots sakona eta gitarra akustikoa ditu tresna bakar. AEBetako folk-rockaren ildotik doa bere musika.

2010eko Bilbo Hiria pop-rock jaialdian finalera ailegatu zen, eta hirugarren postua lortu zuen. Lehiaketaren historian, inoiz finalera iritsi den lehenengo bakarlaria izan zen. Bere azken kontzertuei erreparatuz, Ainara LeGardon, The New Raemon edo 2010eko BBK Live Jaialdian emandakoak azpimarratu daitezke.


Moby Dick bakarlaria. | MOBY DICK

Zuzenean ematen du bere onena Moby Dick-ek. Adituek bere abestien emozioa eta bere ahots "aberatsa eta barietate handikoa" nabarmentzen dituzte.

# Los Angelesko The Dickies taldearen punk doinuak Oñatin etzi, domekan

Gaztelekuan izango da kontzertua, 22:00etan; hiru taldek jardungo dute zuzenekoan

A.E. | OÑATI
Hiru punk talde indartsuz gozatzeko aukera egongo da oraingo aste bukaeran Oñatiko gaztelekuan. Achtung!, La Urss eta The Dickies taldeek domekan eskainiko dute kontzertua, 22:00etan hasita. Sarrera 10 euro kostako da.

## Los Angelestik Oñatira

The Dickies Los Angelesko punk talde handietako bat da. 1977an sortua, musika azkarra eta melodiaz beterikoa jorratzen maisuak dira. Oñatikoa izango da Euskal Herrian eskainiko duten emanaldi bakarra; bestalde, Badalonan eta Madrilen ere izango dira.

## Granadako soinu bortitzak

La Urss Granadan sorturiko punk taldea da. Azkenaldian Europan ibili dira biran, euren musika eskaintzen. Soinu bortitza eta zuzeneko indartsua duen taldea da La Urss.

Achtung! Afonia, Dunne Buggy, Orreaga 778 eta Orquesta Pegaso taldeetan ibilitako musikariz osatutako taldea da. *Tumbando aguja* lehen lana aurkeztera etorriko dira domekan Oñatira. Eskarmentu handiko musikariak dira, eta, duda barik, ikuskizuna eta gorputza mugitzeko giroa ipiniko dute. Joan den egubakoitzean bezala, gaztelekua betetzea izango da asmoa.

**Ander Agirre** | Ingeniaritzako ikaslea

# "Alemaniako industria munduko erreferentea da eta ikasturte osoa dut hori ezagutzeko"

**ANDER MONEDERO** | ARRASATE

Ander Agirrek (Arrasate, 1987) Ingeniaritzako ikasketak egiten dihardu Mondragon Unibertsitatean, eta irailean Alemaniara doa karrera amaierako proiektua egitera.

**Zerk bultzatu zaitu Ingeniaritza ikasketen proiektua Alemaniara egitera joatera?**

Hiru urte egon naiz MUn Ingeniaritza ikasten, eta, errealitate desberdin bat ezagutzeko, kanpora joatea erabaki dut. Esperientzia polita izango da.

**Ez da kanpora joaten zaren lehenengo aldia. Ezta?**

Ez. Ingeniaritza ikasketak egin aurretik goi mailako heziketa ziklo bat egin nuen eta hiru hilabetez Holandako Eindhoven hirian izan nintzen praktikak egiten. Etxetik kanpo izan dudan lehenengo esperientzia izan zen eta niretzat oso aberasgarria izan zen.

**Zergatik?**

Bizimodua guztiz aldatzen da. Nabarmenena hizkuntza aldaketa da, komunikatzeko ingelesa erabili behar duzu, eta, hemengoarekin alderatuta, kultura erabat desberdina da.

**Herbehereak ezagutzeko aukerarik izan zenuen?**

Bai. Hiru hilabetean bidaia asko egin nituen eta Holanda ondo ezagutzeko astia izan nuen.

**Ingelesarekin ondo moldatuko zara.**

Bai. Hizkuntzak jakitea oso garrantzitsua da, eta kanpoan zaudenean azkarrago ikasten duzu. Ingelesez ez bada ezin zara jendearekin komunikatu. Gainera, gaur egun, ingeniaritza bezalako lanbide batean beharrezkoa da ingeles maila ona izatea, eta horrelako esperientziek asko laguntzen dute.

**Eta oraingoan, Alemania aukeratu duzu?**

Alemaniako industria munduko erreferenteetako bat da eta ikasturte osoa dut hori bertatik bertara ezagutzeko.

**Alemaniako ze hiritara zoaz?**

Hof hirira noa. Bavaria estatuan dago, Txekiatik gertu eta Munichetik 300 bat kilometrora. 50.000 biztanle dituen hiria da.

**Ingeniaritza ikasketak eta lana bateratu egin dituzu. Zaila da biak egitea?**

Ez da lehenengo aldia izan, goi mailako heziketa zikloa egin nuenean ere lanean izan nintzen. Orain, Fagor Arrasaten nago lanean, egunean lau ordu egiten ditut. Azterketa garaian gogorra egiten da, gauza asko egin behar dira eta horiek egiteko denbora laburra izaten da, baina biak uztar daitezke.

**Zer-nolako esperientzia da?**

Asko ikasten da. Ikasten ari naizena praktikan jartzen dut eta gauzak argiago ikusteko balio dit. Klasean teorian emandakoa praktikara nola eramaten den ikusteko aukera izan dut eta esperientzia aberasgarria izan da. Lan merkatuak nola funtzionatzen duen ikasteko aukera izan dut.

**Ikasketak alde batera utzita, zeintzuk dira zure zaletasunak?**

Kirola asko gustatzen zait: snowboarda, pilota, txirrindularitza… Gaztetxo hasi nintzen snowboarda egiten, gurasoek Errioxako Ezcaray herrian dute etxea eta snowboarda egiten Valdezcaray estazioan ikasi nuen.

**Lehiaketaren baten ere parte hartutakoa zara.**

Bai. 15 urterekin, Ezcarayko lagunekin batera, denboraldi bukaerako txapelketan parte hartu nuen. Maila oso handia zegoen, baina espero nuena baino aurrerago geratu nintzen.

**Lesio larri bat ere izan zenuen.**

Neguko aste bukaera guztietan joaten nintzen snowboarda praktikatzera egitera, baina 17 urterekin, Port Aine estazioko snowparkean jausi eta belauneko lesio larri bat izan nuen: lotailua eta meniskoa hautsi nituen. Ustez, ondo sendatu zen, baina aurreko urtean, lagunen arteko pilota partidu baten belauna handitzen hasi zitzaidan eta berriz ere ebakuntza egin behar izan zidaten.

**Ziklismozalea ere bazara?**

Bai. Aurreko astean lagunekin batera Andorrara joan nintzen Tourra ikustera. Asteburua pasatzeko plan bikaina da Tourreko etapa bat ikustera joatea.



Ander Agirre, MU ondoko zelai baten.

ANDER MONEDERO

## MARRA AZKARREZ

| | |
|---|---|
| **Bizi izateko leku bat:** Zarautz. | **Beste zaletasun bat:** Parranda. |
| **Bisitatzeko leku bat:** Amsterdam. | **Kirol bat:** Snowboarda. |
| **Kolore bat:** Berdea. | **Riderrik gustukoena:** Travis Rice. |
| **Film bat:** *El señor de la guerra.* | **Snowa egiteko leku bat:** Baqueira. |
| **Musika talde bat:** Never Surrender. | **Txirrindularitza proba bat:** Tourra. |
| **Mania bat:** Lo gehiegi egitea. | **Nork irabaziko du Tourra?** Cadel Evansek. |

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** San Antonen etxebizitza salgai. 65 metro koadro. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. 138.200 euro. 629 45 58 51

**Oñati.** Errekalden etxebizitza salgai. 71.82 metro koadro dauzka. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, trastelekua eta balkoia dauka. 7.20 metroko ganbara ere badauka. 653 73 08 03

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan. Igogailuarekin. 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate ondoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Familia, langile edota ikasleentzako egokia. 622 25 13 94

**Arrasate.** Hilean 600 eurogatik guztiz jantzitako apartamentua ematen da errentan Bizkaia etorbideko 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. 636 68 28 26

**Bergara.** 72 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logela eta komun bat. Berokuntza, gasarekin. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan udarako. 2-4 pertsonentzat egokia. Deitu 622 25 13 94 telefonora.

**Donostia.** Antiguo auzoan, irailetik ekainera arte, bi gelako etxebizitza ematen da errentan, Escolta Real 47an. Deitu 626 84 45 91 telefonora.

**Eskoriatza.** Ikasleentzat etxebizitza ematen da errentan. 4 logela. Unibertsitatetik 15 metrora. Guztiz ekipatuta eta berogailuarekin. 655 72 44 10 edo 656 71 65 11

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Onatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berokuntzarekin. Komuna berriztu berri. 635 74 29 33

**Ribadesella (Asturias).** Etxebizitza ematen da errentan udarako. Hiru logela. Erdigunetik gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 78 22 47

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, 2-3 hilabeterako (obren arabera). 677 35 04 49.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610 99 70 46

**Arrasate.** Kaixo, Arrasaten urte asko daramatzan atzerritarra naiz, bi edo hiru logelako etxe baten bila nabil, errenan. Emakume arduratsua, langilea eta jatorra naiz 610 99 70 46

**Bergara.** Etxebizitza hartuko genuke errentan. Hiru logela edo gehiagokoa. 943 53 36 72 edo 677 73 79 59

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 661 88 77 54

**Arrasate.** Hiru pertsona behar dira Erdiko plazan pisu merkea osatzeko. Deitu 658 74 48 24 telefonora.. Eneko.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Leku eguzkitsua. 653 71 44 57

**Arrasate.** Gizon pakistandarra naiz eta alokatzeko logela baten bila nabil. Hobeto bertakoa bazara edo bazarete hizkuntza ikasten nabil-eta. Deitu 600 07 01 95 telefonora.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 240 euro hilean, gastuak barne. 670 85 86 68

**Debagoiena.** Bizi izateko gela errentan hartuko nuke. Kontratuz bada, hobe. Erroldatzeko gertu. 634 40 66 47

**Oñati.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko erdigunean (Kale Barrixan). 225 euro gehi gastuak (argia eta ura). Etxe handia, guztiz jantzia eta hornitua. 652 71 52 50

## 2. GARAJEAK

### 202. EROSI

**Oñati.** Garajea erosi edo errentan hartuko nuke Kalegoiena inguruan. 617 80 26 20

## 3. LOKALAK

### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Erdigunean, bulegoa jartzeko moduko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Deitu 651 70 17 41 zenbakira.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da irailetik aurrera bi ume zaintzeko. 637 77 45 57

**OÑATI**
Sukalderako laguntzaile beharrean gaude.
697 83 56 89
(Iñigo)

**DEBAGOIENA**
Hortz-klinika laguntzailea behar da.
656 70 27 09 edo
joalan@euskalnet.net

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79

**Arrasate.** Neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28

**Bergara eta Arrasate.** Bertako neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna gertu nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87

**Bergara.** Neska gertu garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Deitu 943 53 29 18 edo 696 84 19 51 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** 18 urteko neska euskalduna, tabernari lanetan aritzeko prest. Fina eta langilea. 679 74 00 61

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketa lanak zein etxeko lanetan jardungo nuke. Eskarmentuduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Cintya. 618 14 71 34

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbiketak egin, edo nagusiak zaindu eta laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetan jarduteko ere. Urtetako eskarmentua eta legezko paperak eguneratuta. 638 59 04 71

**Debagoiena.** Gizona gertu garbiketa, lorazaintza, enpresa eta abarretan lanean jarduteko. Autoa eta gidatzeko baimena ditut. 630 33 37 64

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 678 22 71 59

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan jarduteko. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko, pertsona nagusiak zaintzeko edota sukaldaritza lanak egiteko (elikagaien manipulatze karnetarekin). Gloria. 630 26 13 28 edo 943 79 13 88

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanak egiteko edo tabernetan lan egiteko. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernan, nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan jarduteko. Gidabaimena daukat. 616 32 90 12

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. 681 27 99 54

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Autoa daukat. 696 38 10 07

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, etxez-etxeko laguntza (nagusi zein umeekin) edo garbiketak egiten egingo nuke lan. Interesatuok deitu 630 20 12 03 telefono zenbaki honetara.

**Nagusiak zaintzeko.** Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta familia kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskeintzen da. Interna lanetarako ere. Deitu zenbaki honetara eta Idoiagatik galdetu .697 24 51 86

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Antzuola.** Irailetik aurrera, ikaslearen etxera joanda eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Arratsaldez, bi orduz. Interesatuek deitu arratsaldez zenbaki honetara: 617 00 37 31

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Uda osoan zehar 2.batxilergoko mailararteko eskola partikularrak ematen dira edota etxekolanak egiten laguntzen dut. Matematika, kimika eta abar. 653 01 76 67

**Arrasate.** Arrasateko irakaslea eskola partikularrak udan emateko prest, 6-12 urte bitarteko umeak. Esperientzia handikoa. 635 75 05 26

**Debagoiena.** Matematika eta fisika eskola partikularrak ematen ditut, etxez etxe. 696 38 10 07

**Eskola partikularrak Oñatin.** Irakaslea eta psikologoa naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan eta urtean zehar. Esperientzia handia daukat. 666 21 73 48

**Ingelesa edo alemaniera ikasi nahi?.** Banakako zein taldekako klaseak ematen ditut. Ordutegi malgua. Udan edo udazkenean hasteko. Esperientzia handiko profesionala. Eskoriatza, Arrasate edo inguruak. Deitu konpromezurik gabe. Beti da garai aproposa hizkuntza berri bat ikasteko. Euskara eta gaztelaniako klaseak ere ematen dira atzerritarrentzat. 943 25 05 79 edo 635 12 87 82

**Oñati.** Urte askotako esperientziadun irakasleak (Jaione) klase partikularrak ematen ditu udan eta ikasturte osoan zehar. Ordutegi malgua. 943 78 28 43.

### 503. BESTELAKOAK

**ADE liburuak.** UNEDen hasiko naiz datorren urtean ADE egiten eta lehenengo kurtsoko liburuak erosi nahi ditut. Karmele. 660 86 95 00

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW Serie 1.** Beltza, bost ate, 118D, 2005eko irailekoa, 50.400 Km, garajean gordea, gurpil berriak, 14.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 77 84

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ehizarako txakurkumeak.** Untxien ehizarako edo etxean konpainia egiteko aproposak diren txakurkumeak saltzen dira. 636 11 79 46

### 703. EMAN

**Txakurkumea** ematen da opari. 5 hilabetekoa. Onatin. 943 78 15 19

### 704. BESTELAKOAK

**Katua galdu da Bergaran.** Katu laranja da, hiru urtekoa, arra. Ekain bukaeran galdu zen Bergarako Poligono inguruan. Bolito izenari erantzuten dio. Txipa dauka. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu mesedez zenbaki honetara: 663 65 76 06

**Txakurra galdu da Aretxabaletan.** Aretxabaletako Apotza-Etxebarri auzoan "pincherenano" arrazako txakur marroi bat galdu da. "Txispas" izenari erantzuten dio eta oso alaia da. 626 21 22 09 edo 943 71 49 61

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Canon Powershot G5.** argazki kamera salgai. Bost megapixel. 35 milimetrotako objektiboa. TFT pantaila birakorra. JPG eta RAW formatuak. Lowepro poltsa eta giga bateko txartela opari. 100 euro. 667 95 73 16

**Furgonetarako eserlekuak.** Mercedes Benz Viano furgonetaren bi eserleku tolesgarri salgai. Egoera oso onean, 40.000 km soilik. 679 09 78 19

**Gimnasiorako bonoa.** Arrasateko gimnasio baterako 20 hilabeterako bonoa salgai. 333 euro. Klaseak(pesak, spinning eta abar), makinak, sauna eta Pilates. Interesatuak marysea15@hotmail.com helbidera idatzi edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54

**Ordenagailurako jokoak.** 9 joku, jatorrizkoak. Estrategia eta abilezia metalerako aproposak: *La isla misteriosa, CIFA 09, Pro-evolution soccer, Los Sims 2, Los Sims de vacaciones, Magia Potagia. El principe de Persia, El senor de los anillos eta Primar pray.* Guztiak 60 euroan. 679 74 00 61

**Ping-pong-eko** mahaia salgai. 60 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Inakigatik. 699 06 23 95

**Volkswagen aulki birakaria.** Volkswagen T5 modeloko aulki birakaria salgai. 360ºtan biratu daiteke eta kajoi bat du behealdean. Oso egoera onean dago eta prezio interesgarrian saltzen da. 605 76 07 59

### 802. EROSI

**Ezti zentrifugagailua.** Erleei eztia ateratzeko zentrifugagailua erosiko nuke. 666 73 13 84

### 806. GALDU

**Audifonoa galdu.** Elgetan uztailaren 3an, ferixa egunian, Zeleta taberna inguruan audifonoa galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez. Genaro. 943 58 50 11

**Haur zapatila.** Haur zapatila galdu dugu Bergaran. Zapatilla txuria eta plateatua da 17 tallakoa. Aurkitu baldin baduzu, mesedez deitu. Eskerrik asko. 606 82 45 52 edo 943 53 38 99

**Ordenagailu eramangarria Bergaran.** Dell Inspiron Mini markako ordenagailua galdu nuen egubakoitzean, uztailaren 8an, Bergaran. Funda beltz eta granate baten barruan. Eskertuko nuke itzuliko balirate. 690 86 46 86

### 807. AURKITU

**Giltzak.** Hainbat giltza topatu zituzten uztailaren 4an Aretxabaletako Kurtzebarri eskola inguruko jolastokian. Arkupeko harreran galdetu.

## 9. HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Bergara.** Bazkide bila gabiltza San Blaseko elkarterako. 668 89 28 86

**Deba Garaia Inmobiliaria**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Sanantonabat, 75 $m^2$, oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- San Lorentzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berrizteko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko). 140 m2. Berria
- Bidekurutzeta. 78 m2. Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m2. Ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 $m^2$. Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m2, eguzkitsua, oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**KOROSTI INMOBILIARIA**
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 $m^2$. Terrenoarekin.
- Artekale 40 $m^2$. Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 $m^2$. Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 $m^2$. Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 $m^2$. Garajearekin.
- Burdiñate 53 $m^2$. 162.273 €.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761€.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319€.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Herri Lagunak 52 $m^2$. Prezio ona.
- Zubiaurre 51 $m^2$. Terrazarekin. 102.000€.
- Zubiaurre 81 $m^2$. Igogailuarekin. 183.909€.
- Zubieta 55 $m^2$. Berritua. 150.000€.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 $m^2$. Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Ondarren garajea salgai. 36 $m^2$.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

## LAN POLTSAK

- AUKEAko sorosleen lan poltsa
- AUKEAko monitoreen lan poltsa

**Izena emateko epea:** uztailaren 20tik 26 arte (biak barne).

**Oinarri-arauak:** BAZen (Maisu Arano 8) eta webgunean (*www.arrasate-mondragon.org*).

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

## ASTEA GOIENAN



JOSETXO ARANTZABAL

### Antzuolako jaien saio berezia gaur, egubakoitza

Aurtengo Antzuolako jaiek eman dutenarekin disfrutatzeko aukera izango duzue Goiena telebistaren bitartez gaur, egubakoitza, 22:07an. Momentu onenekin egindako saio paregabea izango da.

**'Jaiak: Antzuola'**
Egubakoitza, 22:07



JOSU TXINTXURRETA

### Informazio guztia 'Berriak' saioan datorren astean

Astelehenetik egubakoitzera bitartean bailaran gertatzen denaren berri albistegian emango dizuegu, *Berriak* saioan. Ohikoa den *Magazinea* saioa, bestalde, opor ostean bueltatuko da Goienaren programaziora.

**'Berriak'**
Ikus beheko taula

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 22**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:18** Onein
**14:44** Berriak
**15:14** Ur eta lur
**15:41** Hamaika.bit
**16:11** Leku txiki bat
**16:36** Berriak
**17:06** Berbetan
**17:39** Ipupomamua
**18:12** Leku txiki bat
**18:37** Berriak
**19:07** Kantari
**19:37** Magazinea
**20:37** Gipuzkoa kultura
**21:07** Magazinea
**22:07** Jaiak: Antzuolako jaiak
**22:40** Tertulia
**23:40** Magazinea

**ZAPATUA, 23**

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:00** Ipupomamua
**09:30** Leku txiki bat
**10:00** Antzuolako jaiak
**10:40** Bizitegia
**11:12** Ur eta lur
**11:39** Onein
**12:07** Berriak
**12:21** Kantari
**12:51** Gipuzkoa kultura
**13:21** Marrazki bizidunak
**14:11** Berriak
**14:26** Bertso saioa
**15:48** Bizitegia
**16:18** 28.Klip
**16:48** Antzuolako jaiak
**17:28** Tertulia
**18:28** Bertso saioa
**19:50** Magazinea
**20:50** Antzuolako jaiak
**21:30** Gipuzkoa kultura
**22:00** Berbetan
**22:35** Magazinea
**00:07** Bertso saioa.

**DOMEKA, 24**

**07:00** Bertso saioa
**08:00** Marrazki bizidunak
**09:00** Antzuolako jaiak
**09:40** Ipupomamua
**10:15** Leku txiki bat
**10:45** Marrazki bizidunak
**11:45** Ur eta lur
**12:12** Berriak
**12:27** Onein
**12:55** Gipuzkoa kultura
**13:25** Nire Herria
**13:48** Antzuolako jaiak
**14:28** Tertulia
**15:28** Magazinea
**16:28** Bertso saioa
**17:50** Berriak
**18:07** Marrazki bizidunak
**18:52** Berriak
**19:07** Ipupomamua
**19:39** Bi tartean
**20:17** Tertulia
**21:17** Gipuzkoa kultura
**21:47** Bizitegia
**22:17** Ikusmira
**22:27** Antzuolako jaiak
**23:07** Magazinea

**ASTELEHENA, 25**

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:00**Ipupomamua
**10:00** Leku txiki bat
**10:30** Bi tartean
**11:02** Marrazki bizidunak
**11:22** Kantari
**11:57** Berbetan
**12:32** Berriak
**13:02** Antzuolako jaiak
**13:42** Gipuzkoa kultura
**14:12** Berriak
**14:27** Leku txiki bat
**14:43** Magazinea
**15:43** Onein
**16:11** Nire Herria
**16:34** Harmailatik
**17:19** Berriak
**17:49** Bizitegia
**18:19** 28.Klip
**18:49** Marrazki bizidunak
**19:49** Kantari
**20:19** Magazinea
**21:19**Erreportajea: Zarauzko triatloia
**21:49** Magazinea
**22:49** Tolosan Blues

**MARTITZENA, 26**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:20** Onein
**14:57** Berriak
**15:27** Erreportajea: Zarauzko triatloia
**15:57** Hamaika.bit
**16:27** Leku txiki bat
**16:42** Berriak
**17:12** Bi tartean
**17:43** Nire Herria
**18:08** Gipuzkoa kultura
**18:38** Ikusmira
**18:48** Berriak
**19:18** Kantari
**19:48** Bi tartean
**20:26** Berriak
**20:56** Erreportajea: Zarauzko triatloia
**21:26** Erreportajea: Rikardo Arregi sariak
**23:07** Berriak
**23:37** Bizitegia

**EGUAZTENA, 27**

**13:00** Marrazki bizidunak
**13:30** Kantari
**14:00** Erreportajea: Zarauzko triatloia
**14:30** Ikusmira
**14:40** Berriak
**15:10** Onein
**15:47** Bi tartean
**16:20** Nire Herria
**16:43** Berriak
**17:13** Bizitegia
**17:43** Bi tartean
**18:21** Gipuzkoa kultura
**18:51** Leku txiki bat
**19:11** Kantari
**19:44** Berriak
**20:14** Tertulia
**21:14** Filma: Albaniaren konkista
**23:14** Berriak

**EGUENA, 28**

**13:00** Marrazki bizidunak
**13:30** Kantari
**14:05** Onein
**14:42** Berriak
**15:06** Hamaika.bit
**15:36** Tertulia
**16:06** Filma: Albaniaren konkista
**18:36** Ikusmira
**18:46** Berriak
**19:16** Hamaika.bit
**20:11** Kantari
**20:41** Berriak
**21:11** Bi tartean
**21:49** Berriak
**22:19** Gipuzkoa kultura
**22:49** Bizitegia
**23:19** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Irailaren 1ean itzuliko gara zuzeneko saioekin 107.7an

*Uda giroan* irratsaioak oporrak hartuko ditu gaur, egubakoitza, irailaren 1era arte. Bitartean, baina, ez dugu atsedenik hartuko; 24 orduz musikarekin gozatzeko aukera izango duzue Arrasate Irratian, 107.7ko uhinetan.

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Astean zehar izan ditugun albisteen errepasoa egiten dugu asteburuetan, eta oraingoan ere hala izango da. Asteko elkarrizketa nagusiak entzungai izango ditugu zapatuan eta domekan, 10:00etan, Arrasate Irratian.

---

**ESKER ONA**

## Migel Mondragon Bidaburu



Zarugalde 1926/01/05 - Musakola 2011/07/18

Etxekoek eskerrak eman nahi dizkizuegu berekin eta gurekin egon zareten guztioi momentu latz honetan. Bereziki Debagoieneko Ospitaleko etxeko ospitalizazio zerbitzuko langileei.

**Arrasaten, 2011ko uztailaren 22an.**

**ESKER ONA**

## Angel Zabaleta Larrañaga



Bergaran hil zen 2011ko uztailaren 10ean.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2011ko uztailaren 22an.**

**ESKER ONA**

## Doroteo Martinez Loizaga



Uztailaren 19an hil zen, 85 urte zituela.

Lerro hauen bidez Doroteoren senitartekoek eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—

*Beti egongo gara iparrera begira, zure argia noiz ikusiko zai.*

**Zure bilobak**
**Bergaran, 2011ko uztailaren 22an.**

**ESKER ONA**

## Sabina Guri di Iñurritegi



Oñatin hil zen 2011ko uztailaren 15ean, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Oñatin, 2011ko uztailaren 22an.**

**ESKER ONA**

## Mikel Pagalday Agiriano



2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Eskoriatzan, 2011ko uztailaren 22an.**

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*



### Iker eta Naiara

Naiara eta Mikel zapatuan, uztailak 23, ezkonduko dira Arrasateko udaletxien. Zorionak, aitatxo eta amatxo! Oso ondo pasatu eta asko disfrutatu! Peru, familia eta lagunen partetik.



### Irune eta Balentin

Irune Zumalde eta Balentin Letona gaur, barikua, ezkonduko dira Oñatin. "Zorionak, bikote. Muxu handi bana, eta bereziki Irati txikixari lagun eta familiako danon partetik!".



### Xandra eta Iban

Iban eta Xandra uztailaren 23an ezkonduko dira Etxebarriko San Esteban parrokian. "Zorionak eta urte askotarako, bikote! Ondo pasatu familia eta lagunen partetik".

## HILDAKOAK

**Marcelina Orueta Lizarralde.** Oñatin, uztailaren 14an. 96 urte.
**Mikel Pagaldai Agiriano.** Eskoriatzan, uztailaren 14an. 38 urte.
**Sabina Guridi Iñurritegi.** Oñatin, uztailaren 15ean. 83 urte.
**Fernando Urrutia Zubizarreta.** Aretxabaletan, uztailaren 15ean. 62 urte.
**Divina Elvira Ordoñez.** Bergaran, uztailaren 16an. 80 urte.
**Francisca Biain Biain.** Oñatin, uztailaren 17an. 87 urte.
**Manuel Losada Barreiro.** Arrasaten, uztailaren 17an. 65 urte.
**Migel Mondragon Bidaburu.** Arrasaten, uztailaren 18an. 85 urte.
**Fco. Javier Insausti Mariezkurrena.** Aretxabaletan, uztailaren 19an. 62 urte.
**Doroteo Martinez Loizaga.** Bergaran, uztailaren 19an. 85 urte.
**Florencio Labaien Igartua.** Bergaran, uztailaren 20an. 86 urte.
**Kontxes Lazkano Barrena.** Oñatin, uztailaren 20an. 85 urte.
**Joaquin Guillen Rodriguez.** Bergaran, uztailaren 20an. 85 urte.

URTEURRENA

## Lukas Bergaretxe Llodio



2010eko uztailaren 28an hil zen, 78 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza hurrengo eguenean, hilak 28, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

—

*Urtebete da joan zinela baina, harrezkero, aitxejaun gure gogoan, aitxejaun egunero gure ahotan,* aitxejaun betiko gure bihotzetan.

**Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**



### Benja eta Aurora

Aurora Trenado eta Benja Ramos, uztailaren 23an ezkonduko dira Arrasateko San Frantzisko elizan. Gure-Ametsan ospatu ostean Thailandiara joango dira ezkon-bidaian. Familia eta lagunen partetik, "zorionak eta urte askotarako bikote!".



### Gustavo eta Arritxu

Uztailaren 23an Arritxu eta Gustavo ezkonduko dira. Familia, lankide eta lagunen partetik "oso ondo pasatu eta zorionak, bikote!".



### Jesus eta Pili

Uztailaren 23an Jesus Akixu eta Pili Uribek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte Apotzagan, Eskoriatza. Zorionak familia guztiaren partetik.



### Vicente eta Ainara

Eskoriatzako Ainara Sebastian eta Kataluniako Vicente Juan zapatuan, hilaren 23an, ezkonduko dira Valladolideko Medina de Riosecon. "Zorionak eta urte askotarako, bikote! Ondo pasatu ezkon bidaian".

OROIGARRIA

## Iñaki Ubierna Inmaz



2003ko uztailaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

*Gogo barnekoa izan da gure maitasuna*
*heriotzak askatuko ez duen lotura*
*zu bai ziñen nire bizitza nere argi eta poza*
*zurekin elkartu arte maitia behar dut laguntza.*

**Zure Marilu.**
**Oñatin, 2011ko uztailaren 22an.**





### Lorantz eta Maikel

Lorantz Fernandez eta Maikel Galindo zapatuan, hilaren 23an, ezkonduko dira Zarauzko Frantziskotarren elizan. Ondoren Otzarreta jatetxean ospatuko dute familia eta lagunekin batera. Familia eta lagunen partetik, "zorionak eta oso ondo pasatu Estatu Batuetan. Zorionak, bikote!".



### Lorea eta Eneko

Bergarako Lorea Garate eta Antzuolako Eneko Segurola zapatu honetan, uztailak 23, ezkonduko dira Bergarako Santa Marina elizan. Ondoren, bazkaria Zarautzeko Otzarreta jatetxean egingo dute. "Familixa eta lagun danen partetik zorionak eta oso ondo pasatu eguna. Urte askotarako, bikote!".

OROIGARRIA

## Igor Lete Aranburu



Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

*Zu bezalako izarrak*
*ez dira inoiz itzaltzen.*

*Maite zaitugu.*

**Zure familia.**
**Bergaran, 2011ko uztailaren 22an.**



### Maria eta Fernando

Bergarako Maria eta Fernando abuztuaren 12an ezkondu ziren, orain 50 urte. Domeka honetan, hilak 24, Etxe-Aundi jatetxean haien urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Zorionak familiakoen partetik.



### Egoitz eta Monti

Egoitz Uribarri eskoriatzarra eta Monti Carretero plaentxiarra uztailaren 23an ezkonduko dira Plaentxin. Mexikora joango dira ezkon bidaian. Zorionak alaba Nahiaren eta etxeko guztion partetik.

**OÑATI Mobydick bakarlaria**
Getxoko bakarlaria Oñatiko Antton tabernan izango da gaur iluntzean. Gitarra akustikoa eta ahots sakona izango ditu lagun hara joango direnak gozarazteko. Sentimenduz eta indarrez betetako abestiak sortzen ditu bakarlariak. Azken Bilbao Hiria lehiaketan ezusteko atsegina eman zuen getxoztarrak.
Gaur, Antton tabernan, 20:30ean.


GOIENA


JOSETXO ARANTZABAL

**ESKORIATZA Fiachras, Errekan Gora jaialdian**
Aste bukaeran amaituko dute aurtengo Errekan Gora jaialdia; eta, amaiera borobila emateko, Bergarako Fiachras taldeak kontzertua eskainiko du Gernika plazan. Bergararrek *Hiltzera goaz* diskoa aurkeztuko dute.
Bihar, zapatua, Gernika plazan, 19:30ean.

# NON-ZER

UZTAILA 22
UZTAILA 31

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## MUSIKA

**OÑATI Mobydick bakarlaria**
Mobydick bakarlari getxoztarra izango da Oñatiko Antton tabernan uztailaren 22an, 20:30ean, gitarra akustiko eta ahots sakonarekin girotuko du emanaldia.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Oñatiko Antton tabernan, 20:30ean.

**ESKORIATZA The Cherry Boppers taldearen kontzertua**
Errekan Gora jaialdiaren harira, The Cherry Boppers taldeak musika emanaldia egingo du. Europako jazz-funk talde hoberenetakotzat jotzen dute zenbait adituk.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Santa Marina plazan, 22:30ean.

**ESKORIATZA Fiachras, Errekan Gorari amaiera borobila emateko**
Lan berriarekin dator talde hori; hain justu ere, *Hiltzera goaz* izeneko diskoarekin.
Uztailaren 23a, zapatua, Gernika plazan, 19:30ean.

**ARRASATE Sobrelamarcha taldearen musika gaztetxean**
Lanzaroteko taldea da Sobrelamarcha. Hain zuzen, bost neskak osatzen duten taldea, eta orain dela lau urte sortu zuten. Ingelesez eta gaztelaniaz abesten dute.
Uztailaren 23a, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 23:00etan.

**OÑATI Kupela taldea Oñatin**
Kupela taldeak kontzertua eskainiko du Oñatiko Madalena auzoan zapatuan. 23:30ean hasiko da kontzertua eta ordu txikiak arte iraungo du.
Uztailaren 23a, zapatua, Madalena auzoan, 23:30ean.

**OÑATI The Dickies, La Urss eta Achtung! gaztelekuan**
Oñatiko gaztelekuan The Dickies, La Urss eta Achtung! taldeek jardungo dute hilaren 24ean. Sarrera 10 euro.
Uztailaren 24a, domeka, Oñatiko gaztelekuan, 22:00etan.

**ARRASATE Juan Santaolalla taldearen musika**
Udazabal programaren barruan Juan Santaolalla Quartet taldeak kontzertua eskainiko du Jose Letona plazan. Jazza da taldearen oinarri, sonoritate intimistaz lagunduta.
Uztailaren 25a, astelehena, Jose Letona plazan, 20:00etan.

**OÑATI Norte Apacheren hip-hop kontzertua**
OAAMren eskutik hileko azken egubakoitza ospatuko dute hilaren 29an. Norte Apache taldeak hip-hop kontzertua eskainiko du Arranon.
Uztailaren 29a, egubakoitza, Oñatiko Arrano tabernan, 22:30ean.

**BERGARA Rico McLarrin & Marcos Coll Band musikarien kontzertua**
Uztaileko egubakoitzetan, ohikoa den moduan, Espoloian kontzertuak eskaintzen dira. Gaur, Rico McLarrin & Marcos Coll Band musikarien eskutik izango da. Ameriketako Estatu Batuetatik, Berlindik eta Galiziatik datoz musikari horiek.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan.

**ARRASATE Yaima Orozco kubatarraren emanaldia**
Kubako Santa Claratik iritsiko da Orozco bigarren diskoa aurkeztera. Troba berriaren promes handia da kubatarra. Ahotsa eta gitarra lagun dituela girotuko du Monterron parkea datorren egubakoitzean.
Uztailaren 29a, egubakoitza, Monterron parkean, 22:30ean.

**ARRASATE La Banda del Pepo**
1999an Murtzian sortutako taldea da La Banda del Pepo. *Tanto por hacer* lana aurkeztuko dute, soinu mediterraneoa duen diskoa. Hiri usaina eta kritika soziala duen diskoa da.
Uztailaren 29a, egubakoitza, Monterron parkean, 23:00etan.

## JAIAK

**OÑATI Rock kontzertua Madalenako jaietan**
Egubakoitzean, hilaren 22an, 01:00etan. AMD, Los Galerna eta Gazte Iraultza taldeak.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Santxolopeztegi auzoan, 01:00etan.

**ARETXABALETA Santixaoak Ugastegin**
Ugastegi auzoan Santiago zaindariaren omenezko jaiak egingo dituzte egubakoitzean hasi eta domekara bitartean. 19:00etan, garbiketa eta lore apainketa ermitan eta suziriak.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Ugastegi auzoan, 19:00etan.

**BERGARA Herri afaria**
Azpeitxi jatetxean herri afaria egingo dute. Jatetxeak afari berezia prestatuko du eta kanpoan jarriko diren mahaietan afalduko dute. Ondoren, dantzaldia Orots musika taldearekin.
Uztailaren 23a, zapatua, Azpeitxi jatetxean, 21:30ean.

**BERGARA Dantzaldia Orots taldearekin**
Boluko Santa Ana jaietan dantzaldia egingo dute Orots musika taldearekin afaltzera joan arte.
Uztailaren 23a, zapatua, Bergarako Bolu auzoan, 20:30ean.

**OÑATI Kupela taldea Madalena jaietan**
Zapatuan egingo dute zuzenekoa, 23:00etan. Ondoren, Miren, Agur eta Oierrek erromeria egingo dute.
Uztailaren 23a, zapatua, Santxolopeztegi auzoan, 23:00etatik 03:00etara.

**BERGARA Folklore jaialdia**
Orkeseos Dantza Konpainiak folklore jaialdia egingo du, urtero bezala, Bergaran. Kolonbiako dantza talde onenetarikoa da Orkeseos, eta ikuskizuna eta hezkuntza helburuak batzen ditu. Taldeak 25 urte baino gehiago dihardu herriko umeak, gazteak eta helduak dantza folklorikoan hezten.
Gaur, San Martin plazan, 20:30ean.


BERGARAKO UDALA

**ARETXABALETA Santixao jaiak Goroetan**
Santiago jaiak ospatuko dituzte. 21:00etan, auzo-afaria eta gero dantzaldia Txome akordeoi-jotzailearekin.
Uztailaren 24a, domeka, Goroetan, 17:00etan.

**BERGARA Pintura eta marrazki sariketa**
Santa Ana jaiak ospatuko dituzte Bergarako Bolu auzoan. Diana etxafuegoekin egingo dute goizeko hamarretan, eta ondoren pintura eta marrazki sariketa. Irabazlea datorren urteko jaietako azala izango da.
Uztailaren 23a, zapatua, Bergarako Bolu auzoan, 10:00etan.

**OÑATI Herri kirolen desafioa**
Andoni Urrutia eta Arkaitz Lizarraldek Gorka Urrutia eta Aitor Altzolaren kontra egingo dute desafioa Santxolopeztegin, domekan, 13:30ean.
Uztailaren 24a, domeka, Santxolopeztegi auzoan, 13:30ean.

**BERGARA Buruhandiak Bolun**
Haurrendako buruhandiak egongo dira Bolu auzoko Santa Ana jaietan, musikak alaituta.
Uztailaren 24a, domeka, Bergarako Bolu auzoa, 19:00etan.

**ELGETA Santixau bezpera, Goimendin**
Jaien hasiera, berakatz-zopak eta erromeria egingo dituzte, 21:30ean hasita.
Uztailaren 24a, domeka, Goimendi auzoan, 21:30ean.

**BERGARA Herri kirolak**
Bergarako Goimendi auzoan Santixao jaiak ospatuko dituzte; horren barruan, herri kirolak egingo dituzte zapatu arratsaldean. Ruben Saralegi eta Aratz Mugertza aizkolariak eta Telleria harri-jasotzailea arituko dira.
Uztailaren 25a, astelehena, Bergarako Goimendi auzoan, 18:00etan.

**ARETXABALETA Meza nagusia Santiago egunean**
Santiago eguna ospatuko dute Goroetan hilaren 25ean. 12:00etan, kanpai errepikak eta suziriak izango dira; 12:30ean, berriz, meza nagusia; eta, 13:30ean, mokadutxoa
Uztailaren 25a, astelehena, Goroeta auzoan, 12:00etan.



MYSPACE

**ARRASATE Sobrelamarcha boskotea gaztetxean**
Lanzaroteko Sobrelamarcha taldearen musika entzuteko aukera egongo da Arrasateko gaztetxean. Bost emakume musikarik osatzen dute taldea, eta abeslari ospetsuen lanak eskaintzen dituzte.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

**OÑATI Mojito festa Arranon**
Oñatiko Askapenak antolatuta mojito festa egingo dute datorren eguenean Arranon. Festa 21:00etan hasiko da, eta eguna amaitu arte iraungo du. Aurretik, hitzaldia egingo dute: *Maputxe herriak*'
Uztailaren 28a, eguena, Oñatiko Arrano tabernan, 21:00etan.

## DANTZA

**BERGARA Folklore jaialdia**
Kolonbiako dantza taldearen folklore jaialdia egingo da San Martin plazan.
Uztailaren 22a, egubakoitza, San Martin plazan, 20:30ean

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI Kubako Iraultzaren eguna**
Kubako Iraultzaren egunekoospakizunak egingo dituzte Oñatiko Arrano tabernan datorren martitzenean.
Uztailaren 26a, martitzena, Oñatiko Arrano tabernan, 10:00etan.

## BERTSOLARITZA

**BERGARA Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak**
Goimendiko Santixau jaien barruan Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluzek jardungo dute bertsotan. Ondoren trikitilariak izango dira: Ostolaza eta Andonegi.
Uztailaren 25a, astelehena, Bergarako Goimendi auzoan, 12:30ean eta 19:00etan.

**BERGARA Amuriza eta Elortza bertsolariak Basalgon**
Amuriza eta Igor Elortza bertsolariak Basalgo auzoko jaietan jardungo dute. Ondoren, erromeria izango da.
Uztailaren 25a, astelehena, Bergarako Basalgo auzoan, 13:00etan.

**BERGARA Bertso bazkaria**
Bertso bazkaria egingo dute Basalgoko jaietan astelehenean. Amuriza eta Igor Elortzak jardungo dute bertsotan eta soinu-jotzaileek ere girotuko dute bazkaria. Uztailaren 23a baino lehen eman behar da izena Iraho tabernan edo Basalgokoak elkartean. Ondoren, erromeria.
Uztailaren 25a, astelehena, Bergarako Basalgo auzoan, 13:00etan.

## UMEAK

**OÑATI Haur parkea**
ULMA Taldearen 50.urteurrenaren harira, 1 eta 10 urte bitarteko gaztetxoendako hainbat ekintza egongo dira Oñatiko plazan.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Oñatiko Foruen plazan, 16:00etan.

**OÑATI Gorriti eta bere animalien erakustaldia**
Madalena auzoko jaien barruan Gorritik emanaldia egingo du zapatuan, hilaren 23an, 17:30ean.
Uztailaren 23a, zapatua, Santxolopeztegi auzoan, 17:30ean.

**BERGARA Haurrendako puzgarriak**
Bolu auzoko Santa Ana jaietan haurrendako puzgarriak egongo dira musikaz alaituta. Ginkana Bolu kalean. Arratsaldean ere puzgarriak egongo dira, 16:30ean.
Uztailaren 24a, domekan, Bergarako Bolu auzoan, 12:00etan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Zaloa Ipiñaren erakusketa**
Gaur zabalduko dute Aroztegi aretoan Zaloa Ipiñaren erakusketa. 24 urteko bilbotarrak *Argi diztirak* erakusketa zabalduko du. Argazkiak, grabatuak, film labur bat eta instalazio txiki bat batuko ditu artista bilbotarrak Aroztegin.
Uztailaren 22a, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 18:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Maputxe herriak'**
Oñatiko Askapenaren eskutik *Maputxe herriak* hitzaldia eskainiko dute, Arrano tabernan. Ondoren mojito festa egingo dute.
Uztailaren 28a, eguena, Oñatiko Arrano tabernan, 18:00etan.

## ZINEMA

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Piratas del Caribe 4**
Egubakoitza: 21:30.
Martitzena: 16:30.

### ARRASATE

**MONTERRON**

**Cyrus**
Egubakoitza: 22:30.

### BERGARA

**GAZTETXEA**

**Zombies Party**
Eguaztena: 22:30.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**Udako zinema**
Eguaztena: 21:30.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**Los pinguinos del Sr. Popper**
Egubakoitza: 22.30
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30
Domeka: 17:00, 20:00
Astelehena: 20:30

**COLISEO 1**

**Insidious**
Egubakoitza: 22.30
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30
Domeka: 17:00, 20:00
Astelehena: 20:30

**COLISEO 2**

**Hanna**
Egubakoitza: 22.30
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30
Domeka: 17:00, 20:00
Astelehena: 20:30

### GASTEIZ

**GORBEIA**

**Los Pinguinos del Sr. Popper**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

**Paul**
Egubakoitzetik eguenera: 118:00, 20:15, 22.30.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:45
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**Templario**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:50.

**Don Carlo**
Egubakoitzetik eguenera: 19:00.

**Harry Potter y las reliquias**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:00, 20:15, 21:45.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 23:00, 0:30.
Zapatu eta domekan, baita: 16:15.

**Harry Potter y las reliquias 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 19:30, 21:00, 22.15.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 23:45.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30, 16.45.

**Cars 2**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 18:30, 20:15, 22.30.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:45.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30, 16:15.

**Cars 2 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 19:15.
Zapatu eta domekan, baita: 16:45

**Bad Teacher**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:10, 22:10.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:10.
Zapatu eta domekan, baita: 16:10

**Transformers 3 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:30.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:20.

**Transformers 3**
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 23:30.

**Amigos**
Egubakoitzetik eguenera: 21:45.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 23:50.

**Resacon 2 i Ahora en Tailandia!**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:20, 22:30.

**Piratas del Caribe 4**
Egubakoitzetik eguenera: 20:45.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 23:30.

**Kung Fu Panda 2**
Egubakoitzetik eguenera: 18:20.
Zapatu eta domekan, baita: 16:30.

**Midnight in Paris**
Zapatu eta domekan: 16:15

**Insidious**
Zapatu eta egubakoitzean: 0:40.

**GURIDI**

**Cars 2 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 16:40, 18:40.

**Nuestra cancion de amor**
Egubakoitzetik eguenera: 20:35, 22.30.

**Bad teacher**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Transformer 3: el lado oscuro de la luna**
Egubakoitzetik eguenera: 17.30, 20:30.

**Midnight in Paris**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Los Pingüinos del Sr. Popper**
Egubakoitzetik eguenera: 16:45, 18:40, 20:30, 22:30.

**Kung Fu Panda 2**
Egubakoitzetik eguenera: 16:40.

**Resacon 2 ¡Ahora en Tailandia!**
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:30, 22:30

**Harry Potter y las reliquias de la muerte 3D**
Egubakoitzetik egunera: 17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA**

**Harry Potter y las reliquias de la muerte**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 21:00.

**Silencio de amor**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30

**Betty Anne Waters**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30

**La prima cosa bella**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30

**Cars 2**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30

**Cirkus Columbus**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30

**Beginners**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30

**Un cuento chino**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30

**BOULEVARD**

**Templario**
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:05, 20:20, 22:40.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 1:00.

**Bad Teacher**
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:40.

**Resacon 2 ¡Ahora en Tailandia!**
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:20, 20:30, 22:40.

**Harry Potter y las reliquias de la muerte 2 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:15, 22:10.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:50.

**Insidious**
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:05.

**Amigos**
Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:20.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:30

**Paul**
Egubakoitzetik eguenera: 16:10, 18:15, 20:30, 22.40.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:45

**Cars 2**
Egubakoitzetik eguenera: 16:05, 18:15, 20:30, 22.40.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 1:00

**Harry Potter y las reliquias de la muerte 2**
Egubakoitzetik eguenera: 15:55, 18:30, 21:45.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:30

**Los Pinguinos del Sr. Popper**
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:20, 20:30, 22:35.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:40.

**Kung Fu panda 2**
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:15, 20:15.
Zapatu eta egubakoitzean, baita: 0:45.

**Transformers: El lado oscuro de la luna**
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:40, 21:45, 22:15.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 19:10.

**Blitz**
Egubakoitzetik eguenera: 22:20.

## KRITIKA

**CIRCUS COLUMBIA** ★★★★★

**Zuzendaria:** Danis Tanovic.
**Herrialdea:** Bosnia-Herzegovina.
**Urtea:** 2011.
**Aktoreak:** Miki Manojlovic, Mira Furlan, Boris Ler, Jelena Stupljanin.
**Iraupena:** 113 minutu.



# Dramara komediaren bitartez

Azkeneko hamarkadetan gatazka ugari izan dira lehen Jugoslavia deitutako herrialdean. Aldaketa nabarmenak izan dira eta egindako bidean hilketak, gorrotoa, mina eta sufrimendu handia izan dira. Zinemak ez ditu gertakizun horiek alde batera utzi. Herrialde horietako zuzendariak tonu eta ikuspuntu desberdinekin hurbildu dira han gertatutakoa azaltzera. Agian Emir Kusturica da zuzendari horien artean ospetsuena, baina badira beste batzuk ere. Danis Tanovic-ek *En tierra de nadie*-rekin ingelesez eginak ez diren film onenaren Oscar saria irabazi zuen. Filma bataila-eremuan kokatua zegoen eta istorioa kontatzeko erabilitako tonuak esperpentoarekin eta absurdoarekin zerikusi handia zuen. Komediaren bidez garai eta egoera horien zentzugabekeria eta alde tragikoa heltzen zitzaigun.

*Cirkus Columbia*-rekin Tanovickek tragikomediarekin jarraitzen du. Filmak komediara jotzen du; honen bitartez eta pertsonaien jokatzeko moduarekin eta egoeraren garapenarekin gertatutakoaren bertsio bat eman nahi da. Komediaren tonua ez da hain basatia, egunerokoagoa da. Istorioaren abiapuntua nahiko bitxia da: 20 urte Alemanian egon ondoren gizon bat Bosnia-Herzegovinako herri batera bueltatzen da emakume berri batekin eta etxetik bidaltzen ditu bere lehengo emaztea eta semea. Pasadizo hori da istorioaren motorra eta, zeharka, herrialdearen egoera sozio-politikoa agertzen da.

Normalean halako filmak egiterakoan, hau da, tragikomediarekin jokatzerakoan, filmek gorako eta beherako jauziak izaten dituzte. Komedia eta egoera dramatikoak nahastuta joaten dira, barre egiteko eta hunkitzeko eszenak egoten dira, eta, horrela, tonua biziagoa izaten da. Kasu honetan, tonua lauagoa da, gatz pixka bat falta zaio. Filma, gaizki egon gabe ere, motel samarra da.

ANTONIO ZABALA




goiena“
2011-07-22
**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM



# Hegan egiten duen kameralaria

▶ Helicamak aireko irudiak bereizmen handian grabatzeko balio du eta irrati kontrolaz gidatzen da

▶ Zerbitzua Arteman Komunikazioak eta Uvedos enpresa sevillarrak eskaintzen dute, batera

**ASIER ALKORTA** | DEBAGOIENA

Urrutitik begiratuta, listor erraldoia edo hegazti bat dela pentsa dezake edonork. Baina ez, helicama da. Zer den? Aireko irudiak grabatu eta argazkiak ateratzeko gailua da. Berria, modernoa eta punta-puntako teknologiarekin hornituta. Eta Artemanek, Uvedos enpresa sevillarrarekin batera, zerbitzu hori eskaintzen du.

Goitik begiratuta dena da berezia, baina ez dago munduan hegan egiten duen pertsonarik, eta gutxiago kamera bat eskuan duela. Baina teknologia aurrerapauso handiak ematen ari da eta helicama horren ondorio da.

Kamera itsatsita daraman eta hegan egiten duen aparailu txikia da. Urrutitik gidatzen da, irrati kontrolez, eta, ondorioz, leku askotara ailega daiteke.

Artemanek, helicamarekin argazkiak atera eta irudiak grabatzeaz gain, Sony PMW-F3 kamerarekin bideoklipak eta bestelako lanak egiteko aukera ere eskaintzen du.



Teknikari bat helicamaren kontrola egiaztatzen. | ARTEMAN KOMUNIKAZIOA

### Zerbitzua, berton

"Ikuspegia erabat ezberdina izaten da goitik begiratuta eta oso ikusgarria da dena". Eta aukera hori eskaini nahi izan die Artemanek bezeroei ere.

Azken hilabetean Aretxabaleta eta Arrasate inguruak goitik, airetik, grabatzen ibili da enpresa. Besteak beste, Udalatxen dagoen Kanpanzarko barruko harrobian, Urkulu urtegian, Fagor Arrasaten eta beste zenbait lekutan egin dituzte grabazioak.

Zerbitzu bateratua eskaintzen dute Artemanek eta Uvedosek eta aurrerantzean ere Euskal Herrian eta Estatu mailan ere zerbitzua eskaintzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute.



Helicam-ak hartutako irudi bat. | A.K.



Helicama airean. | A.K.

Besteak beste, Diabulus In Musica talde iruindarraren bideoklipa, *Aretxabaleta Naturala* izeneko bideo promozionala eta Fagor Arrasateko korporatiba grabatzeko erabili du Artemanek helicama.

Eta ez da gutxiagorako ere; izan ere, ikusirik helicamak kalitatezko irudiak hartzen dituela, zerbitzua ez da garestia.

Helicamarekin eta bestelako puntako teknologiaren alde eginez, Artemanek duen eskaintza zabaldu nahi izan du, kalitatezko produktuak eskainita.



**MIKEL IRIZAR**



## Opor giroa

Ez da giro oporren bezperan. Eraso betean dabiltza merkatuak estatuen aurka. Ahulezia ekonomikoa non, han agertzen dira harrapariak, rating agentziak aurrez prestatutako bazka jatera. Gero eta txotxongiloago ikusten dira agintariak, ezarritako gidoia antzezten talentu eta konbentzimendu eskasarekin. Une batez ere ez zaie nabaritzen erasoei aurre egiteko adorerik.

Eta bitxia da oso nola merkatu librea, urte oparoetako zoroaldian sekulako aberiak eragin eta gero, are zoroago jokatzen ari den krisiaren erdian, libreago eta berekoiago, inongo agintre publikoren kontrolik gabe. Inondik ere, garai txarrak dira lirikarako.

Baina oporrak datoz, eta abuztuan arazoak konpondu ez, baina bai lausotu eta urrundu. Marrazoek ez dute atsedenik hartuko, baina gai arinagoak nagusituko zaizkigu eguzkiak bigundutako kaskezurrean, eta lagunarte gozoek anestesiatuko digute adimena, gutxiago sufri dezagun.

Tarteka gogora dezagun udagoienak ekar ditzakeela kontu pozgarriak euskal gizartearen bilakaeraz. Eta irailerako apuntatu: gizabanakook merkatuari aurre egiteko dugun arma bakarra da harekiko menpekotasuna gutxitzen joatea.

Ondo pasa uda!

